



Donato
LARRETXEA
Jaun eta jabe Tolosan
→ 65

2009ko azaroaren 26a | XXIX. urtea | 507. zenbakia

www.ttipi.net

Eraikuntza

Gehigarri berezia → 23-50

ARANTZA → 15

Txistularien topaketa
abenduaren 12an

LEGASA → 22

Eskualdeko gazteen
laugarren topaketa

GOIZUETA → 52

VI. Feria Eguna
azaroaren 28an

SENPERE → 60

Animazioak apailatu
dituzte saltzaileek

«Baztango ondare historikoa
kontserbatzeko proiektua da,
eta Ballerako inbertsioa»

PALACIO DE AROZTEGUIA SL

«Turismo baliabideak behar
ditugu, gure bezeroek zerbitzu
gehiago eskatzen dizkigutela»

Virginia ALEMAN, Baztango alkatea

«Etxe gehienak golf-zelaiak
erakarrita etorriko diren jendea-
ren bigarren bizitzak izanen dira»

Lekarozko Batzarrearen helegitea

Lekarozko Aroztegia Jauregia

Batzuentzat garapena, bertzeentzat hondamendia

ERREPORTAJEA → 4-5

ELKARRIZKETA → 3

Esteban Irigoienentzat 'Larreko Saria'

Francoren denboran, Nafarroako bigarren irati euskalduna sortu zuen Arantzan. Eta orain, 45 urte beranduago, Nafarroako lehen euskal irratien eragileetako bat izan zelako, Euskalerria Irratiak, Iruñerrian euskaraz emititzen den irati bakarrak, Larreko Saria eman dio.



Esteban IRIGOIEN | Arantzan apaiz egondakoa



KIROLIZKETA → 64

Irati Otxoteko etorkizun haundiko txirrindularia

15 urterekin Nafarroa-
ko txapeldun izan da
kadeteetan, eta Euskal
Herrikoan bigarren.

ZOKKETAK → 71





bizi munduko energia guztia rekin

Gasa eta elektrizitatea bateratuz, etxeko ongizatea baino askoz ere gehiago lortu dugu. Orain aukera dezakezu nola bizi eta nola moldatu energia zure beharretara. Hori lortzeko esperientzia eta gaitasun guztiak dauzkagu. Gas Natural eta Union Fenosa konpainia bakar batean bildu ditugu eta gure energia guztiak erabiliko ditugu munduko 23 herrialdeetan ditugun 20 milioi bezero baino gehiagoren bizimodua egunero hobetzen joateko. Gurekin etorriko zara?



www.gasnaturalyunionfenosa.com

Frankismo garaian, Nafarroan sortu ziren lehenbiziko euskarazko irratiak Beruetekoa (1955-1964) eta Arantzakoa izan ziren (1965-1968). Garai hartan Arantzan apaiz zegoen

Esteban Irigoien baztandarrak 60.000 pezeta-
ren truke, Berueteko ekipoa erosi zion Jose
Manuel Lasarte Berueteko apaizari, eta
Arantzan irratiaren paratu zuen martxan. Baina

hainbat salaketa tarteko, emisioa geldiarazi
egin zuten. Orain, 85 urterekin, Nafarroako
lehen irratiaren eragile izan zelako, Euskalerrria
Irratiak Larreko Saria eman dio.

Esteban IRIGOIEN | Arantzan Nafarroako bigarren irrati euskalduna sortu zuena

«Elizako pulpituak ez zuen deus balio, irratiaren indarrarekin konparatuz»

TTIPI-TTAPA | ARANTZA

Berueteko irratiaren erosi eta Arantzakoa paratu zuten martxan...

Bai, hala izan zen. Baina horretarako Jabier Arburua apaiza ezinbertzekoa izan zen. 1962an Arantzara joan nintzenerako han zegoen bera. Hango arazoak kontatu zizkidan eta zer egin pentsatzen hasi ginen. Nik adiskideanuen Jose Manuel Lasarte, eta irratiaren saldu behar zuela erran zidanean, nik erosi-ko niola adierazi nion. Ez genuen dirurik, eta Jabier Arburuaren amak aitzi-neratu zigun. 60.000 pezeta-
ren erosi genuen irrati-
a eta aditu batek gailuak
prestatu eta kanpando-
rean neronek paratu nuen
antena. Gerora Diputa-
ziotik, Amadeo Markoren
bidez, 60.000 pezeta lor-
tu genituen eta Arburua-
ren amari bueltatu genion.
Hasiera gogorra izan zen?

Gogorra baino gehiago, ezezaguna. Ez genekien jendeak nola hartuko zuen. Baina gauzak ibiliz egiten da bidea, eta horrela hasi ginen. Herria elkar-
tu nahi genuen, arazoari
azala kendu eta larugorri-
tan paratu, zer pasatzen
zen eta zer egin behar zen
adieraziz. Horretarako ho-
berena irratiaren zena. Eliza-
ko pulpituak ez zuen deus
balio, irratiaren indarra-
rekin konparatuz.

Nolako jendea zegoen orduan Arantzan?



ARGAZKIA: EUSKALERRIA IRRATIA

Esteban Irigoien, Arantzan apaiz egondako berroetarra.

Hasiera hartan, aunitzek ez zuten irrati-
rik. Baina
jendeari transistoreak
Hendaian eta Baionan
erosteko erran eta jendea
animatzen hasi zen. Men-
dira ere transistoreak era-
maten hasi ziren. Nonahi
aditzen zuten!

**Zer eskaintzen zenu-
ten?**

Goizero arrosarioa izaten
zen eta ondotik, abisuak
jakinarazten genituen. He-
rriko berriak ere ematen
genituen, eta mendiko
mutiletaz ere aunitz oro-
itzen ginen. Munduko be-
rriak, Elizako kontuak, ki-
rola, musika... Denetarik
izaten zen. Igandetan Me-

MAIZ SALATUA

**«Jende xumearen
artean izugarritzko
arrakasta izan zuen
-irratiak-, baina
beti izaten dira
haundixkoak... Eta
aunitzetan salatu
ninduten Iruñean
euskaraz egiten
genuelako»**

za Nagusia eskaintzen
zen eta ondotik, hamar
pezeta kobratuz kantuak
eskatzeko tartea izaten
zen. Jendeak kantuak es-
katzen zituen eta aterat-
zen genuen diruarekin
astelehenetan, Jabier
Hendaia eta Baionara
joaten zen motorrarekin
handik euskarazko dis-
koak eskatzeko. Gero irra-
tiant paratzen genituen.

**Zer moduz hartu zuten
arantzarrak irratiaren?**

Jende xumearen artan
izugarritzko arrakasta izan
zuen, baina beti izaten di-
ra haundixkoak... Eta au-
nizetan salatu ninduten
Iruñean, euskaraz egiten

genuelako. Behin, Infor-
mazio eta Turismo Minis-
terioko ordezkari bat eto-
rri zen Lesakatik, irrati-
a ixtera. Irratirako idazten
ari nintzela harrapatu nin-
duen, behin ere ez baiken-
tuen memoriak erraten
gauzak, beti idatzita. Gu-
re irratiaren debekatua ze-
goela erran zidan, baina
euskaraz egiten genuela
konturatu zenean, segi-
tzen utzi zigun. Accion
Catolicakoak zirela erra-
nez, bi polizia ere etorri
ziren gerora. Material guz-
tia delituzkoa zela, euren-
a zela eta eraman behar
zutela erran zidaten. Eta
nik ezetz, ez zela euren-
a. Aizkora hartu eta disko-
ak hautsi behar nituela
hasi nintzen. Hori ez egi-
teko oihuka hasi ziren, eta
itxiko nuela hitz emateko
eskatu zidaten. Nik baietz
erran nien, baina ez nuen
itxi. Bi urte eta erdiren bu-
ruan berriz etorri zen Po-
lizia, eta deus erran ga-
be, dena lakratu zidaten.
Hantxe akautu zen dena.
**Pena hartuko zenuten
itxitakoan, ezta?**

Jendeak pena haundia
hartu zuen, eta protes-
tak egin ziren. Behar ba-
zen irratiaren irekitzeko mi-
lioio bat paratuko zutela
erranez ere etorri zitzaiz-
kidan. Baina Iruñean eta
Madrilen nola pentsatzen
zuten banekien eta han
utzi genuen dena. Nik ere
pena hartu nuen, gure-
tzat ez zegoelako hala-
ko pulpiturik.

PROIEKTUA EZTABAIDAN → BAZTAN

Lekarozen hotela, golf-zelaia eta etxebizitzak eraikitzeko proiektuak eztabaida eragin du

Aroztegia Jauregiaren inguruan egin nahi den inbertsioaren kontra hainbat herritar

Lekaroz itxuraldatuko lukeen proiektua mahai gainean dago. Oraindik onartu gabe, baina bidean: Aroztegia Jauregian eta inguruan dauden

40 hektareatan, lau izarreko hotela, apartotela, golf-zelaia eta 30 partzelako urbanizazioa egin nahi da. Palacio de Aroztegia SL da bultzatzailea, eta

Baztango Udalaren hasierako onarpena ere badu. Hortik haratago, alde eta kontrako iritzi kontrajarriak plazaratu dira Lekarozen.

TTIPI-TTAPA | BAZTAN

«Baztanentzat proiektu berritzaile eta turistikoa» izanen dela erranez aurkeztu du Palacio de Aroztegia SLk bere egitasmoa. XII. mendeko jauregia lau izarreko hotel bihurtu nahi du, 16 hektarea inguruko golf-zelaia ere egin nahi da eta horrez gain etxebizitzak. Guztia zatika. «Etxeak faseka eraikiko dira: golf-zelaiarekin eta hotelarekin hasi, eta fase bat lotu arte, ezin izanen da hurrengoa egin». Horrela azaldu digute Virginia Aleman Baztango alkateak eta Martin Garde turismo zinegotziak. «Lehen fasean eginda-koak saldu arte ez da bigarrenarekin hasiko».

Obrak hurrengo urtean hasi nahi ditu enpresak, eta irailaren 7ko udalbatzarrean Baztango Udalaren Na Bai eta UPN- hasierako onarpena ere hartu zuen. Aldi berean, lurren birkalifikazioa onartu zuen Udalak. Baina lekaroztarrak proiektuarekin konforme ez, eta helegiteak aurkeztu zituzten hasierako onespeneraren kontra. Orain, bada, helegiteak eta txosten teknikoak aztertzeak dira. Herritarrek botazioak ere eginak dituzte, eta juridikoki baliorik ez badute ere, proiektuaren kontrako jarrera ikus daiteke.

BOZKETA

Lekaroztar talde batek sinadura bilketa egin zuen gaiari buruz herri

galdeketa egiteko. 53 sinadura bildu ziren eta %48ko parte-hartzea izan zuen bozketak. «Aroztegiko lurren birkalifikazioaren alde zauden?», galdetu zen lehenbizi. Eta %67ak ezezkoa erran zuen; %26ak baietzkoa eta %7ak boto zuria. Bigarren galdera ere boto zen: «Alegazioak (birkalifikazioa, mugaketa...) egiteko herriak abokatu bat kontratatzearen alde zauden?». Eta boto-emaleen %64ak baietz. %30ak ezetz eta %6ak boto zuria.

Beraz, Lekarozen ez dute begi onez ikusten guztiek. «Baztanen biztanleria eta lana bulkatuko dituela erranez saldu nahi da proiektua» eta Lekarozko populazioa hirukoiztu egingen litzateke». Horrela ageri da Jabier Elizalde Lekarozko alkateak herritarren ize-
ne-

an aurkeztutako helegiteen zerrendan.

252 ETXE GEHIENEZ

Egitasmoa oraindik ez dago onartua, eta alaketak egon daitezkeen arren, enpresak hasieran aurkeztutako proiektuak, hotela, apartotela, eta golf-zelaiaz gain, gehienez 252 etxebizitzarekin aurreikusia du: bizitza bakarreko 90 etxe guttienez, bi bizitzako 15 etxe gehienez, 66 etxebizitza kolektibo libre, 66 babes ofizialekoak eta 6 apartotelak. Horietatik %25 baztandarrentzat. Honen inguruan, enpresak herrian eta hedabideetan emandako informazioan datu horiek ez dituztela eman salatu du Garbiñe Elizegi herritarrek: «zenbat etxebizitza egin behar dituzten zuzen galdetu zaienean 30 partzela erantzun dute».

Bertzalde, Martin Gardek azaldu digunez, «etxebizitzak

saihesbide berriaren inguruan kokatuko dira, Elizondori sarrera ematen dion biribilgunetik izanen du sarbidea, ez Lekaroztik. Merkatuzelai aldean, Elizondoren ondoan».

DUELA ZAZPI URTE HASITAKO PROZESUA

Bideak dira herritarrei kezka eragiten dieten bertze kontua. Eta hori 2002tik dator. Elizegik azaldu digunez, «2002tik 2008ra Palacio de Aroztegia SL izan da Aroztegiaren jabe. Baztango familia bate-na zen, eta turismoa eta ostalaritza zituen helburu. 2002an finkatik pasatzen ziren bide publikoak bereganatzen saiatu zen, Udalaren baime-narekin». Horrekin arduratuta, lekaroztarrek alegazioak aurkezteaz gain, lur publikoa eta pribatua zena ongi bereizteko eskatu zuten. Akordioa ere sinatu zuten enpresako ordezkariak,



Baztango alkateak eta Lekarozko alkateak, eta enpresak hotela eginez gero, bide publiko batzuk asfaltatzeko konpromisoa hartu zuen. Baina herritarrek helegiteetan diotenez, «enpresak ez zuen hitzartutako baldintza bat bera ere bete, eta bideekin eskatua zuen aldaketa juridikoa bertan behera gelditu zen; bideek jabetza publikoak izaten segitu zuten». 2005etik Batzar Nagusiak mugak bereiztea onartua duela ere erran digu Elizegik, baina «oraindik egin gabe dago».

2008an Palacio de Arozteguia SL desegin egin zen eta jauregia eta lurak Baltea Desarrollos Inmobiliarios SL enpresari saldu zizkion. Enpresa honen akzioen %50 Fundacion Caixa Gali-ciarena da. Baina berriki orain lurren jabe den enpresak aitzinekoaren izena hartu du, hau da, Palacio de Arozteguia SLren izena.

Bi enpresen arteko desberdintasunak «agerikoak» direla diote proiektuaren aurkakoek, «helburu diferenteak dituztelako». Eta Garbiñek kontatu digunez, enpresa berriki idatzi bat aurkeztu zuen Palacio de Arozteguia SL de Tajonarren izenean: «Idatzi horretan 2003ko akordioa aipatzen da, lehengo enpresarekin egindakoa. Enpresa hori orain ez denez existitzen akordioa deuseztatua dago, baina inork ez zuen batzar horretan enpresaren aldaketaren berri eman». Hala, bide batzuk pribatu bihurtzeko arriskua ikusten dute.

Bideen inguruan, hasierako eta oraingo proiektuaren artean gaizkiulertuak izan direla iritziz dio Gardek: «lehenbiziko proiektuan agertu ziren bideak eremu itxian geldituko ziren. Baina proiektu honekin bideak dauden bezala errespetatuko dira. Urbanizazio bideak publikoak izanen dira, eta gainera, mantentze kostea propietarioen esku egonen da, eta Udalak ez du sos bat bera ere ordaindu beharko».

16 HEKTAREAKO GOLF-ZELAIA

Baztanen golf-zelaia egitea proposatu duen hirugarren proiektua da hau. «Amaiurren lehena, eta Lekarozen Aroztegiaren ondoan bertzea, baina gibelera bota ziren», dio Alemanek. «Hau baino aunitzez ere gogorragoak ziren», erran du Gardek.

Lekaroztarren iritziz, golf-zelaiak «bideragarritasun eskasa» du. Bertzeak bertze, «mantenimenduak inpaktu handia eraginen luke, batez ere ur kontsumoagatik, eta produktu kimikoen erabilerragatik». Urteetan herrian izan duen ur eskasiaz ere ez dira atzendu. Berriki arte izan dituzten hornidura arazoak ura Iruritatik hartuta akitu baitira.

Virginia Alemanek, bere aldetik, urarekin ez dela arazorik izanen adierazi du: «lurrazpiko akuifero batzuk daude partzela horretan, eta handik hartuko dute ur guztia».

Helegiteetan ageridenez, lekaroztarren

ZER DIOTE PROMOTOREEK?

‘Konpromisoak Baztanentzat’

Proiektua aitzinera ateratzen bada, enpresak hainbat konpromiso hartuko dituela iragarri du. Honela dio TTIPI-TTAPARI igorritako oharrean: «Aroztegia Jauregia enpresa-ekimena proiektu sozioekonomikoa da eta bi enpresa berde eraiki nahi ditu: hotel ‘xarmant’ bat, garai batean defentsarako jauregia izan zena eta Baztango ondare historikoa zaharberrituz, eta bertzetik, golf-zelaia, inguruarekin bat eginez. Gainera, etxebizitzentzat gune bat eraiki nahi da eta hau faseka egingen da. Garapen jasangarria izanen duen proiektua da eta aldi berean, lanpostu zuzenak eta zeharkakoak sortuko dituena.

Baztan osorako izanen da garrantzitsua, konpromisoak hartuko baititu balle osoarekin (...).

Golf-zelaiak eta proiektu osoak ur hornidura propioa izanen du eta aipatzekoa da, urbanizazioaren mantentze lanek ez

dietela kosturik sortuko ez Udalari eta ez herritarrei ere.

Badira bertze konpromisoak ere, aisialdiarekin, kirola egitearekin eta turismoa indartzearekin lotura zuzena dutenak. (...) merenderoak eraikitzea aurreikusia dugu eta parke flubiala ere egingen da, jolaserako eta aisialdirako gune batekin osatua. (...) Golfako eskolako jardueren artean sartuko da, eta toki publikoak eta kirol elkar-teentzako lokalak egokituko dira. Baztandarrek instalazioak erabiltzeko baldintza bereziak izanen dituzte.

Baztango ondare historikoa kontserbatzeko proiektua dela uste dugu, baita ballerako inbertsioa ere. Enpresa eraikitzaileek, gremioek eta merkataritzaren sektore osoak aterako dituzte onurak».



Lekarozko Telleri auzoan dagoen Aroztegia Jauregia da lau izarreko hotel bihurtu nahi dena, eta inguruko zelaietan egin nahi da gainerako inbertsioa.

irudiko, «etxe gehienak golf-zelaiak erakarrita etorriko diren jendearen bigarren bizitzak izanen dira». Hala, «bigarren bizilekuek sortzen duten lana hutsaren hurrengoa da, eraikuntza prozesuan izan ezik». Izan ere, herritarren arabera, «lana eta biztanleria indartuko dela erranez saldu nahi da proiektua, Balle-rako interes publikoa duela erranez, baina isiltasun eta informazio eskasiaren giblean, partikular baten interesa da goela pentsa daiteke».

Baina Udalean bertzelakoa pentsatzen dute: «natura errespetatzen duen proiektu bat da. Turistikoki baliabideak behar ditugu, gure bezere-ek zerbitzu gehiago eskatzen dizkigutelako eta horien artean dago golf-zelaiaren eskaera. Ez da ingurumenarentzat erasokorra». Hirigintza ikuspegitik ere alde positiboa ikusten diote Udalean: «gauregun Baztango landa-eremuan eraikitzen ari diren familia bakarrek bizitzak aunitz hedaturik dira, eta

hori kezkarria da. Alde horretatik, etxe mota hauek leku batean kontzentratzea aukera ona izan daiteke».

Baina herritarrek euren hitza errespetatzeko eskatu diote Udalari. «Onartezina da Udala proiektuaren bultzaileekin akordio batera ailegatu izana, Lekarozko auzotarren iritzia kontuan hartu gabe». Horixe dio helegiteen zerrendako azken puntuak.

Eztabaida, beraz, bizi-bizi.



Nire txanda
Fernando ANBUSTEGI

Berdintasuna?

A unitz solasten da gizon emakumeen berdintasunaz gaur egun. Dena den, solasteaz gain, zerbait gehiago? Gizon eta emakumeen berdintasuna (eskubide eta eginbeharrei dagokienez) gero eta hurbilago omen dago. Bai? Hala uste duzue? Gizarteak berak ez du hori hala denik sinisten. Hizkuntzatik hasita, hizkuntza bera berdintasunaren kontrakoa baita. Zer diozu? Gizonak gero eta gehiago laguntzen dugu!

Lagundu? Hori da arazoa. Guk geuk erraten dugu, konturatu gabe (batzuk) emakumearen eginbeharak direla eta gizonok laguntzen dugula. Hori bai, gero eta gehiago! Ze onak e? Ez dut demagogia merkerik egin nahi. Hausnarketara pittin bat bulkatu, bertzerik ez. Eta hausnartzen hasi bazarete, to, hausnarketarako azken esaldia: zer iruditu zaizue testu hau, kojonudoa? koñazo bat?

Hausnarketarako azken esaldia: zer iruditu zaizue testu hau, kojonudoa? koñazo bat?

Ezpala

Aitor AROTZENA

Olentzerok TDTa ekarriko digu

TDTarekin kalitatez nabarmen hobetuko omen da telebista (?). Irudiaren kalitatea izanen da, edukiari dagokienez, ez dut uste: globoak hainako titiekin borts orduz lehiaketa ñoñoak aurkezten dituzten neskak, abdominalak lantzeko tresnak iragartzen dituzten amerikanoak, elkarriketatuak baino garrantzi handiagoa hartzen duten kazetariak... Olentzero ikatzarekin dator aurtent!

Nabarmentzekoak



Patrocinio PEREZ
100 urteko oronoztarra

Ehun urte bete ditu Burgoako Palacios de Benaver herrian sortu aurretik bizi ziren Oronozko Balango Berri daraman emakumeak. 10 seme-alaba, 11 biloba eta 8 birbiloba ditu.



Jon JAUNARENA
Leitzako pilotaria

Nafarroako klub arteko txapelketan, 22 urtez beheko kategorian txapelketa izan da buruzburu. Orain Guillermo Mazo txapelketan ari da, lau t'erdia erdiaren barruan.



Kristina URRUTIA
Malerrekan Euskaraz Bai

Malerrekan Euskaraz Baiekimeneko teknika da ETBko hainbat saiotan ezagutu gure leitzarra. Malerreka eta Bertizaranako euskalgintza hilean behin biltzen hasi da.

Aztera begira → 1991.12.05 / TTIPI-TTAPA 75. zbk



Matxinbeltzenea euskaltegia inauguratu zuten Lesakan

Matxinbeltzenea Euskal Etxea inauguratu zuen Bortzirietako Euskaltegiak (IKAK) Lesakan 1991ko udazkenean. Azaroaren 24an egindako ekitaldira jende eta pertsonalitate ugari bildu zen. Mikel Legarra Bortzirietako Euskaltegiako arduradunak zioenez, «Nafarroan arazo latzak ditugu euskaltegiak finkatzeko, herri txikiek osatuta dauden eskualdetan arazo handiak sortzen dira eta Matxinbeltzea proiektu honekin horri guztiari erantzun bide bat eman nahi diogu».



Argitaratzailea Ttiipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andueta, 12 • 31760 ETXALAR
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttiipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usua Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Aranxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Alizuri, Joseba Urroz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorenena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemane Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdi Aklarre elkarteak, Bortzirietako Euskar Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2009ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	36€	Ipar Euskal Herria	54€	Amerika eta Australia	120€
Espainia	36€	Europa	54€	Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leizta	30€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Elgorriagako bainuetxeko ur gaziaren aurkikuntzaz

Andres IÑIGO

A spaldikoa da gatzari erreferentzia egiten dion leku izena Elgorriagan, 1539rako, behinik behin, agertu baitzaigu dokumentu zaharretan gatzatokia adierazten duen Gesalaga toponimoa. Leku horretan eraiki zuten XX. mendearen erdialdera arte funtzionatu zuen bainuetxea eta orain dela egun gutxi inaurguratuta dute egin berria den eraikin moderno eta dotorea. Ur gaziaren kalitateari dagokionez, aipagarria da 1920an Mañeru doktoreak Madrilan argitaratu zuen Guía de los Baños Salinos de Elgorriaga izenburuko liburuxka. Espainiako eta, batik bat, mundu zabaleko bertze zenbait bainuetxetako uraren kalitatea konparatu ondotik, ondorioztatu zuen ez zela Elgorriagakoak baino mineralizazio handiagorik zuen urik. Dokumentu horrek berak dio Elgorriagan 1846an hasi zirela iturburu horretako gatzatoki erdiesten ebaporazio prozesuaren bitartez. Baina noiz aurkitu zuten ur emari hori? Nor konturatu zen ur gaziaren iturburu horretaz? Nafarroako Artxibo Nagusian aurkitutako agiri pare bati esker, jakin dugu elgorriagarrek izan zirela aurkitu zutenak eta orain dela 172 urte ohartu zirela ur gazi iturburu horretaz, 1837an hain zuzen ere. Hona hemen aurkikuntzaren inguruan izandako aferaren kontua: 1837ko maiatzean Joxe izeneko elgorriagar bat konturatu zen leku horretan ur gazi ateratzen zela, baina, hasiera batean, pentsatu omen zuen, iturburuaren ezaugarriak indusketa (eskabazio) baten bitartez ongi zehaztu arte, horren berririk inori ez ematea. Hasiera batean hala pentsatu bazuen ere, handik bi hilabetera (uztailean) bere konfiantzako bi lagunekin (Exteban eta Tomaxekin) hitz egiten ari zen batean, ezin egon nonbait, eta azkenean galdetu omen zion ea inoiz izan zuten inguru hartan ur gazi ematen zuen putzu edo iturriren baten berririk. Extebanek erantzun zion aditukatu zuela Zubietako erretoreak hango harri tartetik hartutako gatzarekin maneatzeko zuela janaria. Zerbait bazekitela ikusita, Joxek bertara eramane eta iturburuaren leku zehatza erakutsi zion. Ikusitakoan, hirurak elkarrekin hitz egin eta isilpeko adostasun honetara iritsi ziren: uda aldeko lan garrantzitsuenak eta, batik bat, garia biltze eta jotze lanak akitzen zituztenean hasiko zirela iturburu hori aztertzen eta

gatzarekin ateratzen ahal zuten etekina hiruena izanen zela. Iturburu herriko lurrean zegoela baldin bazekiten ere, pentsatu zuten aurkitzaile eskubideak izanen zituztela eta ondotik ateratzen ahal zuten ondasun eta etekinen jabe izanen zirela. Baina, handik gutxira, hiruertako batek, (Tomaxek), hitza jan zuen eta jabetza osoa bereganatu nahian, bertze biei deus ere erran gabe, Nafarroako 'Real Junta Gubernativa' erakundean eskari bat egin zuen. Instantzia horretan bere burua jotzen zuen ur gaziaren iturburuaren aurkitzaile eta, horren ondorioz, Juntari eskatu zion onartzeko bera zela, bai iturburuaren aurkitzaile, bai ur gaziaren esplotaziorako eskubideen jabe. Juntak instantzia aztertu ondotik, bertze inolako erabakirik hartu baino lehen, Elgorriagako herriari eskariaren berri eman zion eta alegazioak egiteko zortzi eguneko epea jarri. Herrian gaia tratatzeko egin zuten bileran, udalak –udal gisa– Tomaxek jarritako auziari aurre ez egitea erabaki zuen; baina, aldi berean, alegazioak egiteko prest zegoen edozeini baime-na eta askatasuna ematea erabaki zuen, eta espresuki Joxeri aitortu zioten ahalmena egin behar horretarako. Herriarrak hagitz seguru zeuden nonbait Joxe zela iturburuaren lehenbiziko eta benetako aurkitzailea. Alegazioak egiteko eman zitzaion babesa onartu eta Juntaren aitzinean argi utzi nahi izan zuen Joxek, bera izan zela iturburuaren lehendabiziko eta benetako aurkitzailea eta, gainera, adierazi zuen Tomaxek Juntari egin zion eskarian alegatutakoa funtsik gabekoa zela. Oraindik gehiago, Joxek zioen berak bakarrik aprobetxatzen ahal zuena bertze biekin batera partekatzeke era-

«Mundu zabaleko bertze zenbait bainuetxetako uraren kalitatea konparatu ondotik, ondorioztatu zuten ez zela Elgorriagakoak baino mineralizazio handiagorik zuen urik»



kutsitako konfiantza eta jarrera onari, erabat desleialki eta fede txarrez erantzun ziola Tomaxek. Horretaz gain, bere iritzia ere azaldu zuen erranez, halako meatze baten aurkikuntzan –gastelaniatzko testuan ‘mina de sal’ deitzen zaio–, eskubideak harrapatzen zuenarenak edo dagoen lurraren jabearenak izaten zirela. Beraz, kasu honetan Joxe berarenak edo Elgorriagako herriarenak, edota bienak. Ondorioz, eskubide horiek herriarenak ez izatekotan, bertze inori baino lehenago berari aitortu behar zitzaizkiola, bera izan zelako iturburu hori aurkitu zuen lehenbizikoa. Hau dena egiaztatzeke, aurkikuntzaren inguruan hasieratik izandako gorabeherak xeheki deskribatu zituen (gorago aipatu ditugunak). Bere alegazioak amaitzeko, Joxek nahitaez kotzat jo zuen ur gaziaren indusketa eta salmentak kontuetan Tomax erabat baztertua uztea eta, gainera, ordura arte egindako salmentetan atera zuena ere itzultzea behartzea. Bertalde, eskatu zuen auziak irauten zuen bitartean, berari (Joxeri) aitortu behar zitzaiola iturburuaren jabetza, eta epe horretarako fidantza bat ere jartzeko prest agertu zen, betiere onartuz galtzaile ateraz gero, hartutako etekinak itzuli beharko zituela. Azkenik, auziaren erabaki-dekretua sinatu zen. Erabakiak zioen, alde batetik Tomaxen eskaria ez zela onartzen eta, bertzetik, Joxeri zegokiola iturburuaren esplotazioa eta salmenten etekina. Joxek erabaki hori ezagutu zuenean, aitortu zitzaizkion eskubideei betiko uko egin zion –berari eta bere ondorengoei tokatzen ahal zitzairen etekinen eskubideei, alegia–, eta herriarrak guztiek in bat egin nahi izan zuten herriaren aldeko eskubideen defentsan. Elgorriagako aginteei eta herriarrek bildurik, onartu zuten Joxek herriaren alde egindako proposamena, eta Tomaxen azken alegazioei aurre egiteko denak batera joatea erabaki zuten.

Irakurleak mintzo

Etxalarko
Usategietako
sarezko ehiza
bizirikGerardo DANBORIENA
Etxalarko usazaleen izenean

Usazaleok, aurtengo uso ehiza sasoi honetan gertatutakoari buruz ondorengo gogoetak adierazi nahi dizkizuegu:

Orain dela sei urte inguru arte usategietan usozaleen eta tirazaleen arteko elkarbizitza osasuntsua zen, elkar ongi ulertu eta errespetatzen genuen.

Azken urte hauetan aldiz, elkarbizitza gaiztotzen joan da. Alde batetik uso sasoirako usozaleek egiten zituzten zenbait prestaketa lan hondatuta agertzen hasi ziren, landatzen ziren arbolak hautsiak edo eta ateriak... Bertze aldetik, saretako ehiza mota honek beharrezkoak dituen arauen errespetu eza ere nabaritu dugu (korneta jo baino lehen tiro egitea...).

Honek guztiak sareko ehiza inbaditu eta baldintzatu egin du, gure ezinegona areagotuz. Sareetan ari garenok babesik gabe sentitu gara, guttietsiak eta irainduak.

Hau guztia kudeatu behar duen Udalak ignoratu egin gaitu eta gorrarena egin du gure eskakizunen aitzinean.

Usategietak Etxalarrak duen ikurra da, herri hau berteen artean originala eta erakarga-

rriagoa egiten duena. Kanpokoak aunitz dira usategiak direla eta ezagutzen gaituztenak, izan ere, 700 urte baino aunitzez gehiago baitira sareak ehizean ibiltzen direla. Azkarkik nahiko lukete horrelako altxor bat! Baina hemen hau guztia desagertzeko arriskuan jarri da, kudeatu behar duenak ez baitu ardura hori hartu.

Usategietak bizirik eta era orekatuan jarraitu dezaten nahi dugu, guztiok kabitzen gara bertan, baina ez nolahi. Ezinbertzekoa da legedia eta araudia betetzea, oinarritzakoa alderdiak elkar errespetatzea eta Udalak, autoritatea bilakatuz, honetaz guztiaz jabetu eta arduraz lanean hastea, lehia politiko guztien gainetik. Inork ez bailuke ulertuko belaunaldiz belaunaldi hainbertze urteetan bizirik iraun duen ikuskizun hau desagertuko balitz.

Eskerrak eman guregana hurbildu, interesatu eta laguntzen saiatu zareten guztioi. Ziur gaude zuek ere sareak, usategietak, bizirik ikusi nahi dituzuela eta ziru gaude gure indarrak batuz gero, hori posible egiten dugula.

Iruritan eskola
berria behar
dugu
lehenbailehenIRURITAKO GURASO
ELKARTEA
Irurita

Iruritako eskolako ikasleen gurasoak, Iruritako herriak eta Baztan bailarako udalerriak, eskola berria lehenbailehen eraikitzea eskatzen dugu. Premiazkoa dela uste dugu jarraian zehazten diren arrazoiengatik:

Ikastetxean dauden ikasgelak ez dute behar aski toki momentuan dauden ikasleendako ezta datozen urteetan aurrikusten den matrikulari aurre egiteko ere. Datorren ikasturterako gela bat gehiago behar dela aurrikusten da, baina eskolan ez dago tokiirik.

Sarbidea arriskutsua da. Haurrek eskolara sartzeko pasatu behar duten eskalera zuta eta arriskutsua da.

Ez dago prestatuta mugikortasun mugatua edo elbarriak diren pertsonentzat. Zenbait ikasleek muletekin ibili behar izaten dute eta ezin izan dute geletara laguntzarik gabe iritsi.

Barnekoaldean arrisku handiko bertze eskailera bat badago. Eskailera hau ikasle txikiek beraien gelara joateko eta gainerako ikasleek komunetara joan behar dutenean erabili behar dute. Aipatu be-

har da komun gutti eta desagokiak direla, helduek eta haurrek komun berberak erabili behar izaten dituztelako.

Jolastokia herriko plaza eta aldi berean bide bat ere bada. Leku irekia da eta errekreo orduan kate bat erabiliz ixten da ibilgailuak plazara sarek daitezke. Nahiz eta katea hor egon errez atera daitezke umeak jolasgunetik beraien burua arriskuan jarritz.

Ez da leku egokirik psikomotrizitate eta gorputz heziketako klaseak emateko. Ikasle txikienek ekintza hau burutu ahal izateko ezinbertzekoa suertatzen zaie irakasleei, gela bateko mahaia eta aulkia izkin batean mukuurtzea eta koltxonetak lurrean hedatzea. Gainerako ikasleak 500 metrora dagoen pilotalekura hurbildu behar dute. Bertara, trafiko handiko N-121B errepidetik oinez joaten dira.

Bertze aldetik, 2006-07 ikasturtean, matrikularen gorakadari irtenbidea emateko, eskolatik 50 metrora dagoen Herriko Etxean gela bat moldatu zen. Gela honek gatzerra, argi falta eta hezetan arazo larriak ditu. Aipaturiko baldintzak umeengan osasun arazoak eragin ditzakete. Gaur egun gela hau 5. eta 6. mailako ikasleek erabiltzen dute. Gela honek telefono sarerik ez dagoenez, ezin dute Interneten sartu. Uste du-

gu egin diren berrikuntzak eskasak izan direla, eta gela honek bizigarritasun zenbait arau ez dituela betetzen. Aipatu behar da gela bihurtu den aretoaren jabeek doan utzi egin dutela zenbait urtetarako.

Eskolak duen koka-penagatik, ez zen posible izan hain polemikoak diren aula prefabrikatuak jartzea, egoitzak ez duelako horretarako lursailarik.

Badira zenbait urte hasi ginela eskola berria eskatzen eta uste dugu tarte honetan zaharkitua gelditu den oraingo eskola honetan gastatu den dirua xahutua izan dela. Egoitzak duen mantenimendu kostea handia da, beroa ez galtzeko dauden kristalak ez dira egokiak, hosgabete edo intsonorizazio eskasa du, eta hainbat eta hainbat eragozpen gehitzen ahal genituzke.

Hau dela eta eskolak arrisku prebentziarako eta sarbideko arauak betetzen ez dituelakoan gaude. Bizigarritasun baldintza eskasak eta baliabide ezak, gure seme alaben heziketa garapen egokia galarazten du eta gainera edozein istripu eta osasun arazo pairatzeko egoeran daudela uste dugu.

Eskola berria lehenbailehen eraikitzea eskatzen dugu.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.net**
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



Bota bertsoa

Jon BARBERENA (Elizondo)

Iruritako eskola Iruritako kobazuloa

Hoge metroko gela tikiak, hezetasunak atean...
Overbooking-a ematear da Iruritako partean orratz bat ere ez zen sartuko hainbertze ume artean. Gobernua (e)ta Udala trankil omen daude bitartean nafarron zergak administratzen "Krisia hartuz menpean" Berrehun metro karratu duen bulego eder batean.

Adostutako "gure eskola" Corellan gelditu al zen? Ez patiorik, ez gimnasiorik ez internet, ez almazen... Teknologia definitzen du zer garen eta zer ginen. Historiaurrean gure arbasoa hormak margotzen zebilen... Atapuerkako kobazuloan erreparatuz dena den: ikus liteke aunitz gehiago ez dela aitzinatu hemen.

11 galdera labur

Ikasketaz ingeniaria, baina lanbide aunitzetako mutila. Hala da?

Bai, karrerako proiektua egiten ari naiz, eta bitartean bertze bi lanetan: AEK-n euskara irakasle eta Solaslaguna egitasmoaren koordinatzaile. **Tabernaria, euskaltegiko irakaslea, Solaslagunako dinamizatzailea...**

Nola moldatzen zara denetarako?

Lan bakoitzak ez dit denbora gehiegirik kentzen, beraz nahiko aise ailegatzten naiz denetara.

Nola ikusten duzu inguruan euskararen egoera?

Herriaren arabera da. Herri tikietan euskara aunitz erabiltzen da, baina Elizondon badago lanik oraindik.

Haur eta animaliekin euskaraz eta helduak euren artean erdaraz...

Triste da, baina aunitzetan hala da eta euskararekiko dugun kontzientzia aldatu arte hala izanen da.

Zein zaletasun dituzu?

Gazte gehienei bezala lagunekin parranda egitea gustatzen zait, baina baita bizikletaz ibili eta mendira joatea ere.

Pirinioetara hiru milako bat igotzera edo Auzara joan-etorria. Zein nahiago?

Toki berriak ezagutzeko Pirinioak nahiago ditut, baina hemen ere

baditugu aski mendi ederrak.

Erratzuko Sanpedroak ala Baztandarren Biltzarra?

Nik uste edozein erratzuarri galdetuz gero berdina erantzunen zuela: bien gainetik Erratzuko ihauteak!

Baztandarra ala erratzuarra. Zein lehenago?

Norberaren herriak beti tiratzen du gehiago, beraz, erratzuarra.

Zein dira baztandar on baten ezau-garriak?

Ez dut uste baztandar on prototipo bat dagoenik, beren interesak defendatzeko bertzeen interesen gainetik pasatzen ez diren guziak dira onak.

Zer du Baztanek soberan eta faltan?

Hobe izanen da soberan zer edo nor dagoen ez erratea... Faltan somatzen dut inguruneari kalterik egin gabe eta herriari bizkarrik eman gabe zonaldearen garapen sozial eta ekonomikoa ekarriko dituen plan bat; bai Baztanen eta bai eskualde osoan ere.

Ametz bat?

Orain ondoan ez dudan lagunen bat besarkatu ahal izatea Euskal Herri aske, euskaldun eta sozialista batean.

Estebe APEZETXE → Erratzuko gaztea

elika
Dietetika eta elikadura

Aholkularia dietetika eta nutrizionala
Ondura osasuntsua
Egunerako egutegi emazte emakal
Elikadura orokorra eta antza
Dietak personalizatua
Gorputz konposizioaren azterketa
Elikadura heziketa
Naherietako jarabidea

Iñaki Andueza Lariz
Itzea, 6 beheko - BERA - Tel: 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

USOA
nekazari
kooperatiba

ganaduarentzat
pentsurik egokiena

Tel: 948 635 214 - ETXALAR

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 407 406 781

udana
salazones

UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTION
DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatu, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. - Bararta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
Audi

MARKA GUZIEK KONPONKETA
Bararta, 2 - Alkaiaga industrialdea
LESAKA (samera Baratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

BORTZIRIAK

KULTURA → LEHIAKETA

Bortzirietako haur eta gaztetxo-en ipuin lehiaketa abian da

Lanak aurkezteko azken eguna abenduaren 2a

TTIPI-TTAPA

Berako Herri Liburutegiak, Berako Kultur Batzordeak eta Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Bortzirietako Haur eta Gaztetxo-entzako Ipuin Lehiaketa antolatu dute aurten ere. Gaia *munduko herriak*

izanen da, eta sari gisa, liburu sorta eta eskola-ko materiala jasoko dute irabazleek.

Ipuinek euskaraz eginak izan behar dute, eta entregatzeko azken eguna abenduaren 2a izanen da. Berako Liburutegira edo Kultur Etxera bidali beharko dira. Sari banaketa, berriz, abenduaren 16an egingen da, 18:00etan Liburutegian.

OINARRIAK

Adinaren arabera, hiru mailatan sailkatuko da

lehiaketa: A Maila (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila); B Maila (5 eta 6. maila) eta C Maila (DBHko 1. eta 2. maila). Irudimena, txukuntasuna, originaltasuna eta hizkuntzaren aberastasuna baloratuko ditu epaimahaiak eta hori bai, ipuinek eskuz idatziak izan beharko dute.

Lanak entregatzekoan, ipuina gutun-azal itxi batean aurkeztuko da, goitizen bat eta maila agerian dituela. Bertze gutun-azal batean,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ipuin lehiaketako sari banaketa ekitaldia, duela bi urte.

kanpoko aldean goitizena paratuko da, eta barrunean ipuinaren titulua

eta egilearen datuak. Argibide gehiagorako: 948 625502 (Beatriz).

MERTZERIA

Deñe

LENTZERIA

bixkiak

KIROL ETA MODAKO

arropa denda

Arretoa, 7 B2 • LESAKA • 948 638 110

Abenduak 3 eta 8an

-%20

Beheko plaza, 10 • LESAKA • 948 627 514

NC NORTH

Lois

mayoral

3-14 urteko neska multzoentzat

Designat

RayeBot

INGURUMENA → MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Bizikletaren erabilera sustatzeko kanpaina paratu da martxan

‘Herrian Txirrindula’ deitu diote proiektuari

TTIPI-TTAPA

Herrigunean, eguneroko joan-etorrietan bizikleta erabili eta bertze mugikortasun modu jasangarri edo iraunkorak (oinezkoa, garraio kolektiboa eta partekatutako autoa) bultzatzeko esperientzia pilotu bat hasiko da. Proiektu honi, herriko karrika batean ikusitako eslogan batean oinarrituz, Herrian Txirrindula deitu diote. Horrela jakinarazi zuten azaroaren 11n Herriko Etxean egindako bileran.

Nafarroan mugikortasunerako bizikleta erabiltzeko helburuarekin, aholkularitza teknikoa egiteko CRANA Nafarroako Ingurumen Balaibide Zentroak Oraintxe S.L. enpresa kontratatu du. Europako Komisioaren Europarentzako Energia Zentzuduna programaren bitartez finantzatutako Added Value proiektuaren barnean dago egitasmoa.

Lan hau aitzinera eramateko, herriko barne mugikortasuna aztertu dute lehenik, bidaia erakarle zein eragile diren lekuak, mugitzeko



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eguneroko joan-etorrietan bizikletaren erabilera bultzatu nahi da.

moduak, puntu arriskuak edo arazodunak, eragozpenak... Bizikletarekin lotutako azpiegituren egoera eta segurtasuna ere aztertuko da, bide seguruak, aparkalekuak, maldak, bertze garraio mota zein oinezkoekin elkarbizitza eta gisakoak.

Oinez ibili eta bizikletaren eguneroko erabileraren onurak zabalduko dira eta, aldi berean, giza eragileekin, proposamen prozesu bat martxan paratuko da.

Goikoren lanak Ficoban

Genealogia eta Tokiko


Historiaren II. Topaketa eginen da larunbat honetan, azaroak 28, Irungo Ficoba erakustazokan. Eta han izanen dira Martin Goikoetxea herriko argazkilariaren obrak. Sarrera dohainik da eta 10:00etatik 20:00etara zabalik egonen da.

Bide seinaleetan ‘Bera’ erabiltzeko eskatu dio Parlamentuak Gobernuari

Bide seinaleetan ‘Bera’ izendapena erabiltzeko eskatu dio Nafarroako Parlamentuak Gobernuari. Duela bi aste aho batez onartu zuen Parlamentuak hori eskatzen duen ebazpena. Aldaketa «berehala» egiteko eskatu dio, gainera. Mozioa NaBaik aurkeztu zuen, eremu euskaldune-

an izendapen ofizialak errespeta-
tzeko eskatuz.

Joan den udan Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak arrazoia eman zion Udalari eta geroztik izendapen ofizial bakarra ‘Bera’ da. Halere, oraindik zenbait tokitan ‘Vera de Bidasoa’ ere ageri da.



Pertsonaia
Izei GILLENEA

Hirugarren Espainiako Kenpo-Kai txapelketan

Izei Gillenea Iriarte, 16 urteko kirolari gaztea hirugarren izan da Espainiako kenpo-kai txapelketan, jubenil mailan. Urriaren 17an jokatu zen txapelketa Madrilan. Izei duela bortz urte hasi zen arte martzial hau praktikatzen, «Beran auke-
ran nuen kiroleratik ez nuen bakar bat ere gustuko, baina kenpo-kai erakusten hasi zirela ikusi nuen, probatu nuen eta engantxatu nintzen» dio. Herrian haundien taldeekin nahiz tiki-ekin entrenatzea gustatzen zaio eta tarteka Oiartzunera ere joaten da, Juan Mari Vidalekin prestatzera. Kenpo-kai egitea «hagitz konpletoa» iruditzen zaio Gilleneari, «bizimodu eta filosofia bat ere bada». Izei Espainiako Karate txapelketan ariko da larunbat honetan, azaroak 28, Leganesen eta Nafarroako ordezkari bakarra izanen da.

ERREKALDE
Plater konbultak
Pintak
Rustikat
TFN: 948 630 259 BERA

LABEZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak
Goya
Alreano, 3 - Tel: 948 630 083

XIRRI
Alreano 1 - BERA
Tfn: 948 631 488

LESAKA

FERIAK → 210 AZIENDA AURKEZTU ZIREN

Begibeltzenekobordako Joxean Igoa beratarraren behiek irabazi dituzte ferietako sari gehienak

Zaldietan lehen saria Jose Antonio Larralde lortu du eta ahare bakarra aurkeztu da

Aitor AROTZENA

Eguraldi eguzkitsu eta epela aprobetxatuz 210azienda buru aurkeztu ziren azaroaren 19ko feria egunean, 90 zaldi, 85 ponni, 34 behi eta ahare bakarra. Sariari dagokienez, behi aziendetan, suizetan Berako Begibeltzenekobordako Joxean Igoa eskuratu zituen hiru lehen sariak, baita hobekien aurkeztutako behiari emandako txapela ere. Guztira 18 behi plazaratu zituen Igoak. Haragitako behietan ere, lehen saria berak eskuratu zuen eta bigarrena eta hirugarrena, berriz, Iriberriko Ion Muñoak. Frisona arrazako lehen saria Pilote-giko Manuel Maiak eraman zuen.

Zaldi aziendetan, lehen saria eta hobekien aurkeztutakoari emandako txapela Jose Antonio Larralderen zaldi ikusgarriak lortu zuen. Bigarren saria, Iriberriko

Ion Muñoak lortu zuen eta hirugarrena Beñat Oronozek. Aharetan, berriz, Igantziko Ignacio Telletxeak aurkeztu zuen buru bakarra eta beretzat izan zen lehen saria. Aziendez gain, hainbertze salmenta postu paratu ziren herriko karriketan.

Bezperako ajoarriero lehiaketa ikusgarria suertatu zen, 16 bikote aurkeztu baitziren, horietatik zazpi Bortzirietako Gorriak peñakoak, Beheko Plaza karrika aldinbertze betez. Arrano elkartearen izenean aritu ziren Imanol Lopezek eta Boro Legasak lortu zuten lehen saria, 24 punturekin. Bigarren posturako 22 punturekin berdinduak gelditu ziren gorritxoek bi bikote, Egoitz Telletxea eta Joseba Etxartek eta Juan Ignacio Etxepare eta Maite Ortega osatutakoak. Hirugarren postua, 21 punturekin, Iraín Guraso Elkarteko Marisa Larrainzar eta Laura Igantzik lortu zuten.

Hodei toxikoa igerilekuan

Feria egunak bertze albiste bat ere utzi zuen, udal igerilekua jendetz hustu eta itxi behar izan baitzuten, beheitiko solairuan sortutako



ARGAZKIAK: A.A.

34 behi, 90 zaldi, 85 ponni eta ahare bakarra aurkeztu ziren plazara feria egunean.

hodei toxiko baten ondorioz. Gertakaria, depositoak bete zituen langile bat hodiz nahasi zelako gertatu zen eta azido sulfurikoa eta kloroa

nahasterakoan erreazioa egin zuen. 10:40ean gertatu zen istripua, igerilekuan 3 langile eta 7 bezero zeudenean. Horietatik 6 Osasun

Zentrora eraman ziztuzten, begietan eta eztarrian asnaia zutelako, baina ez zuten inor ospitalera eraman beharrik izan.



ARGAZKIA: A.A.

Etxe izenak paratu zituzten Euskaraz Bai Egunean

Lesakan Euskaraz Bai Eguna ospatu zen azaroaren 15ean. Goizean karrikabuelta egin zen, 11 bikotek Alondigan ilar-prestatze lehiaketa hasten zuten bitartean. Hametaka bikote aritu ziren ilarak prestatzen. Eguerdian Beheko Plaza eta Zandako etxeei izena paratu zizkieten Euskara Batzordeko kideek, Abesbatzaren eta trikitilarien laguntzarekin. Gero, 90 bat lagun bildu ziren Arranon bazkaltzera eta bazkalondan, euskal kantu zaharrak izan ziren Eutsi taldearekin.



INFORMATIKA → TEKNOLOGIA BERRIAK

Teknologia berriei buruz kongresua egin dute Etxalarko Bentan

Mendialde hau gibelera
dagoela erran dute

Joseba eta Nerea

Espainia osoan teknologia, informatika eta komunikazioaren inguruko 35 denda eta enpresa biltzen dituen NCS Informatica taldeak urteko kongresua egin zuen azaroaren 13an Etxalarko Bentan. Elkarteko ki-deak ez ezik, sektoreko hainbat enpresa gonbidatu zituzten kongresura: Microsoft, HP, Acer, LG, Tech Air eta Kingston, bertzeak bertze. Bertizko Partzuergo Turistikoak, Cederna-Garalurrek, eskualdeko udalek eta enpresaren bat edo bertzek ere parte hartu zuten kongresuan.

Partehartzaileen %80 inguru Madril, Katalunia eta Levante ingurutik etorri ziren eta Javier Ubiria antolatzaileak adierazi duenez, «puntako teknologia ekarri dute, bai-na zoritxarrez, mendial-



ARGAZKIAK: TTPI-TTAPA

Etxalarko Bentan egindako kongresua. Behegian, Javier Ubiria kongresua Etxalarrera ekarri duen antolatzailea eta Eduardo Galván, NCSko zuzendari nagusia.

de honetan hagitx gibelera-
teratuak gaude teknolo-
gikoki eta hemen ikus-
ten diren gauzetako au-
niz ezin dira aplikatu,
erraterako, ADSLa ez da-
goelako erabat hedatua».

Etorkizunean «arrai-
digital» hori moldatzen
saiaitzeko, Cederna-
Garalur, Bertizko Par-
tzuergoa eta inguruko
udalak biltzen hasteko-
ak direla aipatu digu Ubi-
riak eta Nafarroako Go-
bernuari Bidasoaldean
inbertitzeko eskatu dio.

80 urtekoei omenaldia abenduaren 3an

San Francisco Javier eguna probetuz, urte-
ro bezala, Larraburua Ju-
bilatu Elkartek omenal-
di berezia egingen die aur-
ten 80 urte betetzen di-
tuzten herritarrei. Aurten
zazpi izanen dira omen-
duak: Peruneko Maria
Cristina Elizagoien, Exku-
tuko Juan Pedro Bertiz,
Iruneko Bordako Maria
Isabel Irazoki, Amusene-

ko Daniel Sanzberro, Ur-
zelaiko Santiago Olasa-
gasti, Intzeko Bordako
Maria Jesús Irigoien eta
Bekozubiko Milagros
Santesteban. Meza Na-
gusia egingen dute goi-
zean eta ondotik bazka-
ria Larraburua Elkartean.
«40 lagunetik goiti bildu-
ko gara, omenduen, la-
gunen eta familiakoen
arte», erran digu Jose
Jabier Zubietak Larrabu-
ruko presidentek. Oroi-
garriak eta loreak ema-
nen dizkiete omenduei.

FLASH

Arazo franko postarekin

Orain dela hilabete ba-
tzuk Correosek jaki-
narazi zuen baserrie-
tako posta zerbitzua
murriztu egingen zue-
la, orain dela urte ba-
tzuk saiatu zen beza-
la. Udalari postontzi
kolektiboak jartzeko
lekuak zehazteko es-
katu zion banaketa
baserriz-baserri egin
ordez, multzoka egi-
teko.

Erabaki horren aitzia-
nean, Udalak bertze
udalekin harreman-
tan paratu zen guzti-
en artean asmo berri
hori gibelera bota eta
lehengo zerbitzua
mantentzeko, posta
baserriz baserri ba-
natzekoa. Horretaz
gain, sinadura bilke-
ta egin zuten kaltetu-
en atxikimendua lor-
tzeko.

Horrela, Etxalarko
Udalak bertze sei he-
rriren atxikimendua
lortu du eta denak ba-
tera baserriarrek pos-
ta beren etxean jaso-
tzeko eskubidea ber-
matu nahi dute. «Ez
dugu nahi zerbitzua
auzo sarreretan para-
tuko lituzketen parat-
uko kolektiboetara muga-
tzea», adierazi digu
Patxiku Irisarri alkate-
ak. Ea hala den.

Farola zaharrak udaletxean eskuragai

Aurtengo udan herri-
ko argiteria berritu zen
eta hainbat farola za-
har kendu zituzten
berriak paratzeko.
Orain herritarren es-
kuragarri paratu ditu
Udalak farola horiek
guztiak. Udaletxean
izena eman eta 10 eu-
roren truke lortzen
ahal dira.



Berean etxean • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511



PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

IGANTZI

KULTURA → OSPAKIZUNAK

Bete-beteak datoz abenduko kultur egunak

Abenduaren
4tik 8ra bitarte
izanen dira

TTIPI-TTAPA

Kultur egunei hasiera emateko, abenduaren 4an, ortziralarekin eta 20:00etan, Tomania Folk Taldearen emanaldia izanen da, Baratzondon. Ekitaldi hau Nafarroako Gobernuak antolatzen duen Udazkeneko Biraren barrenean dago.

Hurrengo egunean, abenduak 5, larunbata, neska-mutikoentzako zine emanaldiak izanen dira Ziberrean, 16:00etan hasita. Oraindik pelikula erabaki gabe badaude ere, bi emanaldi izanen dira, lehenbizikoa 8 urte bitartekoentzako, eta bigarrena 8 urtetik goitikoentzako.

Ilunabarrean, 20:30ean, Baratzondon, helduentzako antzerki emanaldia izanen da. Aurtin berriz ere Txirene taldea etorriko da; orain hiruzpa-

lau urte etorri zen talde hau, *Ogiyik karri etzuen semia* lanarekin, eta arrakasta handia izan zuen igantziarren artean. Oraingoan bere lan berriarekin datoz: *Gezurrezko printzea*. Senarraren bizitzan erabat murgilduta dagoen andre baten bizitza kontatzen du lan honek. Senarraren ama gaixotu, eta andreak hartuko du hura zaintzeko ardura. Senarraren bizitza, ordea, ez da aldatuko. Erabat etsita, andreak harremana haustea erabakiko du.

GAZTA LEHIAKETA

Abenduaren 6an, sanmigeletan egin gabe gelditu zen ekitaldia eginen da: gazta lehiaketa. Erran behar da lehiaketahonetan herriko gaztagileek bakarrik parte hartzen dutela. Urtero-urtero hamar gazta baino gehiago aurkeztu izan dira. Lehiaketa frontoian izanen da, 12:00etatik aitzinera. Horrekin bate-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

lazko kultur egunetan etxeko produktu eta sendabellarrei buruzko erakusketa egin zen.

ra, eskolako haurrek eta gurasoek hainbat postre eta jaki jarriko dituzte salgai.

17:00etan, Kiki, Koko eta Moko pailazoaren emanaldia izanen da, Baratzondon. Eta ondotik, 19:00 aldera, goizean lehiatutako gaztak probatzeko aukera izanen da Biltokian, sagardoarekin.

Abenduaren 7an, 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoek albumak egiten ikasteko tailerra izanen dute eskolan, 10:00etan hasita. Horretan lagunduko die Pello

Añorga idazleak, bere *Gerlari handia* albuma oinarri hartuta.

Astelehen horretan, 19:00etan, Marimendi emakumeen mendi taldeak emanaldi bat eskainiko du Ziberrean. Talde horrek 2008an Elbrus mendira espedizio bat egin zuen; tartean zen Arantzako Mentxu Peña, eta haren eskutik jakenen dugu espedizio haren berri, horretarako prestatu duten DVD baten laguntzarekin.

Eta kultur egunei akabaila emateko, abenduaren 8an, 11:30etik aitzinera Baratzondon erakusketa izanen da, urtero bezala. Aurtengoan, Biltokik erakusketarako aukeratu duen gaia *Oraingo eskola/lehengo eskola* izan da. Erakuske-

ta osatzeko, herritarren parte-hartzea eskatu dute. Beraz, etxeetan lehengo eskolako materialak (liburuak, idazlurmak, eskulanak, marrazkiak, pizarrak, argazkiak...) dituztenei dei berezia egin diete horiek Biltokiren esku uzteko. Bertzalde, lehengo eskolarekin erabat lotua dagoen *El florido pensil* antzezlan proiektatuko dute Baratzondon bertan, 12:00etan eta 18:00etan.

Kultur egun hauek Euskara Batzordeak antolatu ditu, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eta Udalaren laguntzarekin. Eta antolaketan bereziki parte hartu dute batzorde horren partaide diren Biltoki elkarteak, Eskolak eta Guraso Elkartek.

ERAKUSKETA

Abenduaren 8arako oraingo eta lehengo eskolari buruzko erakusketa antolatu du Biltoki elkarteak.

LEGARRA

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

LEURTZA ABENTURA

Puzgarriak festetarako
Segway - BTT
LASER paintball
Despedidak
Eskolarrak

tel. 948 59 20 97
mug. 620 37 96 42
www.leurtza.com

ARANTZA

GIZARTEA → OSPAIZUNAK

Baztan-Bidasoaldeko txistularien eguna egingen da abenduaren 12an

Aurten topaketaren bortzgarren aldia da

Nerea ALTZURI

Beran egin zen lehenengo aldiz topaketa eta Elizondo, Lesaka eta Donezteben hurrengo edizioak egin ondoren, abenduaren 12an Arantzán bilduko dira herriko eta inguruko txistulariak. Helburua zonaldeko txistulariak elkartzea izanik, herritar txistulariak eguna antolatzen hasi dira.

Goizean karriketan barna kalejira izanen da; tartean, hamaiketako egingen dute, eta eguerdi aldera, zortzikolari talde batek herriko zortzikoa dantzatuko du. Bazkariarekin bukatuko dira ekitaldiak.

Gisa berean, gure artean dauden herriko txistulariak eta joan zaizkigunak atzendu gabe, Juan Migel Biurarena txistulari eta txistuegileari buruzko informazio panela nahiz txistularien argazkiak paratuko dira.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Betidanik izan da txisturako afizioa herrian.

IXKIBOKO SEMEA

18 urterekin hasita, IX-kibo baserriko Juan Migel Biurarena ttuntun-laria ezaguna egin zen inguruan. Jose Lorentzo Fagoaga *Errene* lagun zuela, eskualdeko herrietan eta Goierrin txistua jotzen aritzen omen ziren besta eta inauterietan. Baina, Juan Migel txistuegile gisa ere ospetsua izan zen. Txistuak ezpelaren egurrekin egin eta Euskal Herri osoan saldu zituen. Euskal Herriko Txistularien Elkarteak lehen-dakari izan zen.

Mendi-mutilen omenez argazki erakusketa egin nahi da Aterpen

Aspaldiko urteetan bezala, aurtengo Eguberrietan Errege Eguneko besta antolatu nahi du Aterpek. Goizean herri kirolak eta ondotik bazkaria eta bertsolariak izanen dira. Garai batean, egun hau mendi-mutilen besta izaten zen baina garaiak aldatu egin dira eta orain ez dugu mendi-mutilik herrian. Hala ere, euren omenaldi moduan, argazki erakusketa bat antolatzea pentsatu dute Aterpekoek eta horretarako mendi-mutilen argazkiak behar dituzte. Hala, norbaitek bere ekarpena egin eta bilduma hau osatzeko argazkirik baldin badu, Aterpera eraman ditzala. Aunitz izan ziren batez ere Frantziara mendi-mutil joan zirenak, eta euren omentzeko aukera polita dugu herritarrok.



Pertsonaia

Esteban IRIGOIEN

Franco garaian Arantzako irratia sortu zuena

Nafarroako euskarazko irratigintzan aitzindarietako bat Arantzako irratia izan zen. Berueten, Jose Manuel Lasarte apaizak eduki zuen irratiko tresneriak hurrengo geldineua Arantzán izan zuen. Orduan, Jabier Arburua eta Esteban Irigoien apaizak zeuden eta tresna guztiak erosi eta herrian irratia jarri zuten. 1966an polizien lehenengo bisita izan zuten irratia iren emisioa eten nahian. Kasu honetan isilaraztea lortu ez bazuten ere, 1968ko bi polizien bisitak guziz akabarazi zuen jarduna. Geroztik, gogoa dute irratia herritarrek. Baita Jabier eta Esteban apaizak ere. Zoritzarrez, Jabier mendian hilik harrapatu zuten Mendaurrea bidean eta geroztik, urtero, abuztuaren 8an, bere gorpua aurkitu zuten tokian jarritako gurutzean meza ematen du Esteban erretoarek. Estebanek ez du herria atzendua ez eta herritarrek On Esteban ere, bertz hainbat eginkizunetan lagundu baitzuen herrian. Orain, Euskal Herria Irratiak urtero antolatzen duen Larreko Sarian Esteban Irigoien izan da omendua. Zorionak!

sarobe
gorategia okindegia
Ezlegara 25 baje 1948 63 08 99
34780 berri-berriak www.sarobe.net

Beko
Bertako produktuak
Frain Aurra - LESAKA
Tfn: 948 637 826

ERROTAZAR
harategia
Bertako produktuak
Ezlegara, 3 - BERA
Tel/Fax: 948 630 088

BERA
Zure inguruak klase guztietako insektuz (xomorro, zinorro, armiormo, kukuxu...) eta erretoi xagutzaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak
GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tel: 948 625 597 • Zalein, 42 A • BERA

ttipi-ttapa
www.ttipi.net

GIZARTEA

HEZKUNTZA → BERA, BAZTAN ETA LESAKAKO IKASTOLAK ELKARTUTA

Eskualdeko ikastoletako 55 neska-mutiko bildu ditu Ikaspilotak aurten

Lehen aldia da topaketa Lesakan egiten dela

TTIPI-TTAPA | LESAKA

Lesakako Tanti-rumairu, Berako Labi-aga eta Baztan ikastole-tako Lehen Hezkuntza-ko bosgarren eta sei-garren mailako 55 ikas-le bildu ziren azaroaren 17an Lesakako udal pilotalekuan, Nafarroako Ikastolen Elkarteak antolatutako Ikaspilota ize-neko jardueran parte hartzera.

Joseba Lasarte, Tanti-rumairu ikastolako zuzendariak TTIPI-TTAPA-ri aipatu zionez, 70 bat neska-mutiko espero zituzten, baina osasun arazoaren ondorioz, guttiago izan ziren. Lesa-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Tantirumairu, Labiaga eta Baztan ikastoletako ikasleak bildu ziren Lesakako pilotalekuan.

kak Ikaspilota hartzen zuen lehenbiziko aldia izan zen, orain arte Beran eta Elizondon egin baita. Aipatzekoa da, bertalde, herri kirola-rekin eta arraunarekin lotutako topaketak ere egiten dituztela ikastur-

tean. Aldi honetan, baina, pilotaren txanda izan zen. Beroketak egin ondok, pilotariak txokotan banatu eta topaketa egin zuten, txoko bakoitzean neska-mutikoei joku ezberdin bat proposatuz: batzuk es-

kuz aritu ziren, bertzeak palaz, plastikozko guanteekin, punttuan, xibarekin... Txoko bakoitzean 10-15 minutu jolasten ibili ondok, txokoz aldatzen zuten.

Nafarroako Ikastolen Elkartetik eta Tanti-

DATUA

70

IKASLE

biltzekoak ziren Ikaspilotan, baina eritasunen ondorioz, guttiago elkartu ziren.

rumairu ikastolatik garbi utzi nahi izan dute Ikaspilotaren helburua ez dela txapelketa bat egitea edo pilotari onena zein den aukeratzea. Aitzitik, «helburu aberatsagoak» ditu: «pilotaz gozatzea, elkar ezagutzea, ikaslearen arteko harremanak sortzea edo sendotzea eta azken finean, pilotaren aitzakiaz eta pilotaren inguruan kirolari bere garrantzia ematea».



**GABONETAKO
APAINGARRI
BEREZIAK**
Pasko lore
Pinu naturalak - artifizialak
Argiak
Etxe-apaingarriak

PINU NATURALA DOAN
Bale bat emango dizute eta
pinuaren balio bereko
zerbait eros dezakezu urtamilan

Jaiubia Auzoa, 40
HONDARRIBIA
Tel: 943 641 710
www.endanea.com



HEZKUNTZA → GURASO ELKARTEA

Guraso Elkarteak 2010eko egutegiak salgai paratuko ditu

Ostatu eta dendetan hiru eurotan egonen dira salgai

Jaione OTXANDORENA

Joan den urtean izan zuten harrera ona ikusita, aurtengo Eskola Guraso Elkarteak 2010. urterako egutegiak aterako ditu. Aurtengo ikasturtean herriko eskolan dauden ikasleek argazkiekin egindako egutegia izanen da eta hiru eurotan egonen da salgai herriko denda eta ostatuetan.

Bertzetik, Guraso Elkarteak beraien logotipoa daramaten kamisetak ere egin ditu, baina hauek ez dira salgai egonen, herriko eskolako haurrentzat bakarrik izanen baitira.



ARGAZKIA: KULTURKARI

Hurrengo urtera begira, egutegiak egin ditu Guraso Elkarteak, joan den urtean bezala.

KAMISETAK IKASLEENTZAT

Egutegiez gain, kamisetak ere egin ditu Guraso Elkarteak. Baina hauek ikasleentzat izanen dira.



ARGAZKIAK: ANDONI APEZTEGIA ETA NAIARA ARRETXEA

Lau basurde egun berean

Joan den azaroaren 14an herriko basurde ehiztariek zorteko eguna izan zuten, lau basurde hiltzea lortu baitzuten. Haietako bat 110 kilokoa, Juan Antonio Ibarra hil zuena. Argazkietan basurde hori zintzilikatua eta larrutzeko prest ageri da. Denboraldia hasi zenetik 25 inguru basurde hil dituzte herriko ehiztariek.

Eguberriak eta inauteriak hurbiltzen ari di-

rela eta, egun horietarako antolakuntzarako bi-

lerak egiten ere hasiak dira gurasoak.





ELGORRIAGA

BALNEARIO - BAINUETXE

Hidrosoinketako klaseak igerileku mineromedizinalan

09:00etatik 13:00etara
gehienez 10 lagun eta gutxienez 7
astero ordu bateko 2 klase
astelehenetik ostiralera, jaiegunak izan ezik
30€ hilabetea

Soinketa • igerileku mineromedizinala

16:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara
Larunbatetan eta igandetan
35€ hilabetea

Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa) Tel. 948 45 60 45 - www.balnearioelgorriaga.com
%16ko deskontua tratamendu guztietan

DONEZTEBE

GIZARTEA → KULTURA

Kultur Arteko Topaketa egingen da abenduaren 4tik 12ra

Denetarik
ekitaldiak
izanen dira

TTIPI-TTAPA

Kultur Arteko Topaketa antolatute Male-
rekako Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak eta Venezuela, Argentina, Brasil, Portugal, Errumania, Dominikar Errepublikak, Nigeria eta Euskal Herriko herriarrek eta Malerrekako Gazte Asanbladak, Gazte Burrunbak eta Sunbillako Antrotokik. Inmigratio Programaren barne, abenduaren 4an hasita gisa guztietako ekitaldiak izanen dira herrian eta herrikan kanpo. Egun haundia, halere, abenduaren 12an izanen da.

Abenduaren 4tik 12ra *Emakume etorkina bizi-laguna* erakusketa egingen da Turismo Bulegoan. SOS arrazakeriaren 17 paneleko erakusketak emakume etorkinen esperientziak biltzen ditu. Astez, 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara egonen da zabalik. Besta egunetan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Abenduaren 11n 15:00etatik 18:00etara, eta azken egunean, 11:00etatik 14:00etara. **Donamarian eta Lega-**

san ere izanen dira ekitaldiak. Sos Arrazakeriako Agustin Unzurrunzagarekin solasaldia eta berendua egingen dira Donamariako Ostatuan –oraindik eguna zehaztu gabea–, eta abenduaren 10ean, Legasako frontoian bideo emanaldia, solasaldia eta berendua egingen dira, 18:30ean hasita.

HITZORDU NAGUSIA ABENDUAREN 12AN

- 10:30etik aitzinera:
 - Doneztebeko txistulariak herrian barna.
 - Eliza atarian munduko janariak eta bitxikeriak, Musu-truk denda (erabiltzen ez diren gauzak mahai gainean paratuko dira nahi duenak hartzeko. Materiala aitzinetik ekarri behar da Mankomunitatera), migratzaileen omenez agurra eta aureskua herriko dantzariekin, esaldien irakurketa hainbat hizkuntzatan, musika...
- Ondotik bazkaria.
- 17:00-18:00: ginkana
- 19:00-21:00: antzerki eta musika emanaldia eskolan: eskolako 3. mailakoen bi antzerki; Alma Latina Ekuadorreko dantza taldea, Ascana elkartearekin kapoeira, euskal dantzak, Herri beltza rap taldea, bertso saioa...



ARGAZKIA: ONDIKOL

Eguraldiak lagundutako giro ederrean joan dira feriak

Jende aunitz elkartu zen azaroaren 13an ferien aitzakian. Eguraldia, gainera, ederki portatu zen eta jendeak ez zuen aukera alferrik galdu. Aziendetan, 25 behi eta 15 behor, pottoka eta asto atera zituzten, eta horrez gain, gisa guztietako produktuekin 150 postu paratu ziren. Metro lineala 11 eurotan eskaini zen.



ARGAZKIA: ZALDUA

Entrenatzaile titulua ateratzeko ikastaroak

Heldu den denboralditik aitzinera entrenatzaileek titulua izatea ezinbertzekoa izanen denez, lehen ikastaroak hasi dira. Argazkian futbolekoa ageri da.



ARGAZKIA: ERREKA KIROL ELKARTEA

Behobiatik Donostiara eguraldiari gogor eginez

Parte-hartze bikaina egin dute aurten ere herriarrek Behobia-Donostia lasterketan. Eguraldi txarrari gogor egin, eta han atera zen argazkiko kuadrilla eta hor ageri ez diren bertze batzuk ere bai. Ana Zelaietak lan bikaina egin, eta emakumeetan hamargarrena izan zen. Santi San Migel, Alfredo Telletxea, Xabier Bañares, Jabier San Migel, Jon Apezetxea, Felipe Ganboa, Joxerra Aldabe, Alejandro Maylin, Mikel Telletxea eta Marga Erdozainek ere osatu zuten ibilbidea. Ez zuen Errekako jantzi berriak estreinatzeko eguraldirik onena egin, baina argazkian kamisetak bederen ikus daiteke. Fermin Oteiza narbartearra ere Errekako jantziekin dago.



MALERREKA

EUSKARA → MALERREKAKO MANKOMUNITATEA

Euskararen alde aritzeko deia egin die Mankomunitateak herritarrei

Euskara Batzordea hilabetero biltzen da

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Euskalgintza berriz ere biltzen hasi da eta Malerreka-ko Mankomunitateko Euskara Batzordeari bultzada eman nahi zaio. Hala, joan den urriaren 29an bildu ziren Mankomunitatean Doneztebeko San Migel eskolako Ikasketa bu-rua, eskolako zein Mendaur Institutuko guraso elkarteak, Euskaltegia, Iturengo Ibintza Kultur Taldea, Doneztebeko Burrunba Gazte Taldea, norbanako euskaltzaleak eta hainbat udaleta-ko zinegotziak (Sunbilla, Ituren, Zubietza, Bertizarana eta Donamaria). Udaletako zinegotziak Euskara Batzordeko kideak dira eta eta euskararen aldeko lan-ean jarrera aktiboa du-te. Doneztebeko ordezkaria ere partaidea



UTZITAKO ARGAZKIA

Malerrekako euskalgintza berriz ere gogotsu hasi da biltzen. Argazkia urriaren 29an egin zuten lehenbiziko bilerakoa da.

da baina bilera honeta-
ra ezin izan zuen etorri.
Beraiekin batera, Alaitz
Zabaleta euskara tek-
nikaria, Kristina Urrutia
Euskaraz Bai egitasmoko
dinamizatzailea eta
Kontseiluko ordezkarib
at ere izan ziren.

HELBURUA: EUSKARA

Euskara Batzordeak
euskararen alde lan egi-
tea du helburu. Horren
ondorioa da, erratera-
ko, Malerrekan Euska-

raz Bai dinamika mar-
txan jartzeko eskaera.
Azaro hasieran Do-
nezteben Kontseiluare-
kin egindako sinadura
ekitaldiarekin abiatu zen
ekimen hau.

Batzordea hilabete-
ro biltzen da Malerreka-
ko Mankomunitatean.
Baina aldi berean, Eus-
kara Batzordeak herri-
tarrei, euskaltzaleei eta
lanerako gogoia duen
edonori gonbidapen za-
bala egin die, Batzor-

deko ateak irekiak bai-
taude edozeinentzat.

Ibilbidea eta elkarla-
na hemen hasten da, di-
namikarekin eta Batzor-
deak antolatzen dituen
bilerekin. Baina bide ho-
nek epe luzean segitu
behar du eta etorkizu-
nean ere segida izan be-
har du batzordekideen
arabera. Izan ere, Eus-
karaz Bai dinamika ez
baita kanpaina bat, lu-
zera begirako proiektua
baizik.

NEKAZARITZA

Belate
enpresak
estatu maila-
ko elikagaien
saria jaso du

TTIPI-TTAPA

Eskualdeko hainbat
esne-ekoizle biltzen
dituen Belate Esneki-
ak enpresak Espai-
niako Elikagaiak 2008
saria jaso du behi-es-
nearen ekoizpen mail-
an. Lacturale izene-
ko esne marka berria
merkaturatuz hartu du
aipatutako saria Be-
latek. Enpresa 2006-
an sortu zen eta gaur
egun, Nafarroako 35
abeltzain biltzen ditu.
Tartean daude,
Arizkun, Donamaria,
Beintza-Labaien,
Oitz, Leitza eta
Urrotzeko ekoizleak.
Lacturale esne mar-
ka 2008ko urrian mer-
katuratu zuen, eta na-
zioarte mailan hain-
bat sari eskuratuak
ditu lehenago ere: Ur-
teko Zaporea 2008 ai-
pamena, Bartzelona-
ko Elikagaien Azokan
eta Goi Mailako Za-
porea 2009 aipame-
na Bruselan.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



bentamiguel

denda, jatetxea eta ostetua

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdaitegia

Ibardingo Lepoa · 948 631 209

ITUREN

KULTURA → OSPAKIZUNAK

Kultur Egunak antolatu ditu Ibintza Taldeak abenduko zubirako

Abenduaren 4tik 6ra iraunen dute

Arkaitz MINDEGIA

Urtero bezala, Ibintza Kultur Taldeak Kultur Egunak prestatu ditu. Abenduaren 4an hasi eta 6ra bitarte egingen dira ekitaldiak. Hona hemen egitaraua:

ABENDUAK 4, ortzirala

- 20:30ean talo jatea egingen da Herriko Etxeko ganbaran.
- Ondotik mus txapelketa (16 urtetik goiti-koentzat). Izena ematerakoan bortz euro ordaindu behar dira bi-koteko. Txapeldunentzat zerrikume bana izanen da. Bigarren eta hirugarren sailkatuek ere sariak izanen dituzte. Parxis txapelketa ere egingen da.

ABENDUAK 5, Larunbata

- 11:00etan haurrenda-ko tailerrak.
- 11:00etan gaztetxoendako argazki lehiaketa (9-14 urte). Argazki kamara digitala etxetik eraman beharko da.
- 13:30ean haurren bazkaria Herriko Etxeko Ganbaran.

BERTSO AFARIA

Abenduaren 5ean egingen den afarirako txartelak abenduaren 3a baino lehen hartu behar dira.

- 17:00etan Korri pila-zaoren *Show berria* prestatzen ikuskizuna.
- 21:30ean bertso afaria Herriko Ostatuan. Txartelak abenduaren 3a arte salgai.
- Ondotik dantzaldia Joxe Angel akordeoi-lariarekin.

ABENDUAK 6, Igandea

- Lerro hauek idazterakoan zehaztu gabe zegoen ekitaldiren bat izanen da.

Ficobako Eguberrietako Haur Parkera irteera

Dagoeneko hiru hila-bete daramatzate eskolako ikasleek burubelarri lanean, eta orain, urte bukaerako irteeraz gozatzeko aukera izanen dute. Abenduaren 18an Irungo Ficobako Eguberrietako Haur Parkera irteera egingen dute bertze herrietako ikasleekin, *Jolasten ikas* programaren barne. 10:00etatik 15:00etara han egonen dira.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Eguraldi txarra izan arren, ederki joan dira Aurtizko bestak

Pasatu berri dira Aurtizko bestak. Eguraldia ez dugu lagun izan aurten baina hala ere, ekitaldiz eta partaidetzaz beteriko bestak izan dira (haur-jokoak, herri bazkaria, mariatxiak....). Orain Errege Bezperaren zain geldituko gara.



ARGAZKIAK: MARIA LARRETXEA

Bretainian joare soinuan

Azaroaren 6tik 8ra Bretainian izan joaldunak eta dantzariak, eta egun gutti izanagatik, ederki probextu zituzten. Douarnenez, Quimper eta Pluguffan herrietan eskaini zituzten emanaldiak eta bai eurek eta bai hangoak gustura gelditu ziren.

J. RAMOS
zolak akutxilatatu eta
barnizatzen dittut

Sakelekoak: 637 836 023 - LESAKA

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak - Nekazariak eta mendi langileak - Nominak eta Aseguro Sozialak - Lan-Kontratutarako laguntzak - Enpresa berri ezberdinen sortzea	- Diru-laguntza ezberdinak - Kontabilitateak - IVA eta IRPF - Errenta aitortpenak - Elbarritasun eta jubilazio espedienteak - Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
--	---

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittoria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxo: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxo: 948 133 713

UDALA → HERRIKO OSTATUA

Abenduko zubirako Herriko Ostatua zabaltzea espero du Gorka Fuentesek

Herritarrak bost urtetarako hartu du ostatua

Fermin ETXEKOLONEA

Herriko Ostatua errentan hartzeko Udalak egindako deialdian hiru proposamen aurkeztu ziren, eta guztien artean, Gorka Fuentes Mujika herritarrarena aukeratu du Udalak, «osatuen» berea zelako. Herritarra izanik kontent gelditu da arduradun berriarekin Udala, eta herritarrak ere bai, noski, ostatuak berriz zabalduko dituelako atea.

DATUA

3

PROPOSAMEN

aurkeztu ziren

Herriko Ostatua errentan hartzeko, baina Udalak Gorka Fuentesena aukeratu zuen.

ak. Hilabeteko errenta 450 eurokoa izanen da.

Bost urtetarako hartu du Fuentesek osta-

tua, Udalaren baldintzetan hala ageri baitzen, baina epea akitutakoa, beste horrenbeste

luzatzeko aukera izanen da. Esan digunez, bera ariko da lanean, eta asteburuetan, beharrene

arabera, baliteke beste norbait hartzea. Hori bai, ahal dela, herritarra. Herriko Ostatuan dauden 11 logeiei mugimendua eman nahi diela ere gaineratu digu, eta horretan saiaturiko dela.

Lerro hauek idazterakoan, irekiera eguna ez zuen guztiz zehaztua, baina abenduko zubirako zabalik edukitzea espero duela adierazi zigun.

Gure aldetik, zorterik hoberena opa diogu!

Kontzertua atzeratua

Aurreko alean, Udazkeneko Biraren barne, Tomania folk musika taldeak azaroaren 14an kontzertua eskainiko zuela esan genuen. Baina taldekideen osasun arazoak tarteko, bertan behera gelditu zen eta atzeratzea erabaki zen. Hala, abenduaren 5ean eskainiko dute emanaldia, Herriko Etxeko estalpean. Azken orduko aldaketarik ez bada, 19:00etan hasiko da.



ARGAZKIAK: FERMIN ETXEKOLONEA

Euriteek kalteak eragin dituzte

Argazkiei erreperatu besterik ez da egin behar, duela bi asteko euriteek herrian zenbaterainoko kalteak eragin zituzten ikusteko. Zubitekoborda baserrirako bidean, adibidez, lur-jauzi haundia izan zen, eta baserrira joateko biderik gabe dago geroztik Zubitekobordako bikotea. Oinez pasa daitezke, baina autotz ez. Horrez gain, ardi borda bat ere bota zuten euriteek. Udala, bere aldetik, Nafarroako Gobernuako teknikariak noiz etorri zain dago. Teknikariek arazoari zein irtenbide ematen dioten ikusi nahi du, horren arabera neurri bat edo beste bat hartzeko. Arazoa nahiko haundia baita.

COLCHONES
ATSEDEN
KOLTZOI FABRIKA



Zure ametsen fabrika

KRISI GARAIKO GABON HAUETAN:
Familiakoei atsedena oparitu
bertan egindako koltxoiekin

Eta hau guztia gure betiko prezioetan, lanlegiko prezioetan

Esita gaitzazu eta opagutu gure kalitatea eta prezioa

www.colchonesatseden.com



Inula-Huesca errep. • 948 346 000 • TORRES DE ELORZ • Bilatzaondoa kalea • 948 346 006 • BURLATA • Irurialdea, 11 • 948 346 066 MENDEBALDEA

LEGASA

GAZTEAK → OSPAIZUNAK

Eskualdeko gazte topaketa egingen da abenduaren 5ean

Bertzalde, larunbat honetan Kattalin eguna

TTIPI-TTAPA

Ekitaldiz beteriko asteburuak datozkigu; larunbat honetan, azaroak 28, Santa Katalina eguna izanen da eta abenduaren 5ean, berriz, eskualdeko gazte topaketa.

KATTALIN EGUNA

Urtero bezala, Kattalin Eguna ospatuko dugu. Aurten, larunbatean egingen da. Aipatu, berez eguna 25ean dela baina asteazkena denez, larunbatera aldatu da jai giroan ospatzeko asmoz.

EGITARAUA

- 09:00etan dianak.
- 09:30ean gosaria.
- 10:00etan mus txapelketa.
- 11:00etan pilota partidak.
- 14:30ean zikiro jatea.
- Ondotik dantzaldia DJ JOSE M^aren eskutik.
- 22:00etan afaria.

ESKUALDEKO GAZTE TOPAKETA

Aurten lehenabiziko urtez, eskualdeko gazte topaketa ospatuko da Legasan. Lauga-



UTZITAKO ARGAZKIA

Joan den urteko Kattalin Egunean zikiroa prestatzen.

rrer urtea izanen da besta hau antolatzen dena. Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan eta Sarako gazteen artean aurrera ateratako egun hau Lesaka, Elizondo eta Saran ospatu izan da azken hiru urteetan.

Antolatzaileen helburua, eskualdeko gazteen harremanak hobetzeaz gain, bertako gazteei eskaintza alternatibo bat ematea da. Gisa berean, egun hau aldarrikapenez beteak egonen da. Antolatzaileen aburuz, eta topaketa honen lema dion bezala, *mugak apurtuz gazteria aintziner*a, «Euskal Herriaren bateratasuna bistan utzi na-

hi dugu, espainar eta frantziar estatuen inpo-

GAZTEEN BILGUNE

Eskualdeko gazteen harremanak hobetu eta gazteei eskaintza alternatibo bat ematea da helburua

DATUA

4.

GAZTE EGUNA
izanen da abenduaren 5ean Legasan egingen dena. Aitzinekoak Lesakan, Elizondon eta Saran egin dira.

saketa eta asimilazio kanpaina guztien gainetik herri bakar bat garbi utziz».

Helburu horrekin egingen dira ekimen parte-hartzaile guztiak:

EGITARAUA

- 10:00etan dianak txistulari eta gaiteroekin.
- 10:30ean harrera ekitaldia.
- 11:00etan Palestinako herri borrokaren inguruko hitzaldia.
- 12:00etan paella txapelketa.
- 14:30ean bazkaria.
- 17:00etan kalejira joko parte-hartzaileekin.
- 21:00etan kontzertuak.
- Ondotik berbera gau guztian.

FLASH

Frontenis txapelketa

Udan lehenengo aldiz frontenis txapelketa antolatu zen eta izan zuen arrakasta ikusita, negu osoan iraunen duen txapelketa antolatu da. Azaroan hasi eta maiatza bitarte herritarren artean hainbat partida jokatuko dira.

Bi kategoria daude: neska batetik, eta mutilak bertetik. Nesken taldean bortz bikote apuntatu dira eta mutilen taldean zortzi. Zorte on denei!

Arotzeneko denda berriz zabalik

Sorpresa handia hartu genuen, azaroaren 16an dendako pertsona berriz goitua ikusi genuenean. Itxi zenetik dagoeneko bi urte pasatu dira baina berriz zabaltzea erabaki dute. Tabakoaz gain, janaria, garbiketa produktuak eta abar salduko dira. Ordutegia hau izanen da: goizez, 9:45etik 12:45era eta arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara.

Bideo emanaldia abenduaren 10ean

Eskualdeko Gizarte Zerbitzuen Inmigratio Programaren barne, abenduaren 4tik 12ra Kultur Arteko Topaketa egingen da Malerrekan eta Bertizaranan, eta tartean, abenduaren 10ean bideo emanaldia, solasaldia eta berendua izanen dira frontoian, 18:30etik aitzinera.

ONENA

PREZIORIK

HOBERENEAN

Tatanka zure benatzailea Bortzireretan. Salmenta, konponketa eta ordezko piezak

Bizkaia, 6 - 31700 LESAKA - T. 948 638 299

GASOLINA MOTOZERRAK



199€* tik

* Eskaintza honek 2009ko abenduaren 31 arte balio du



AMAIUR altzariak

ESKAINTZA ZABALA eta ESTILO GUZTIAK
Bisita ezazu sukalde erakusketa berria!
Rosa Seminario 13 · DONEZTEBE · T. 948 450 400



ZAHARBERRITZE OBRAK

Deus baino lehen, komeni da merkatuan dauden materialen eskaintza ezagutzea

Erreformak egiterakoan, komeni da merkatuan dauden materialen eskaintza ezagutzea; eta etxea moldatzeko erabakia hartuta, ongi legoke guttien kutsatzen dutenak hartzea.

Naturarekiko errespetu hori mantentzen duenetako bat zura da. Azkenaldian egindako ikerketa batzuek diotenez, material klasiko horrek ez du apenas kutsatzen, biodegradagarria da, birziklagarria eta isolatzailea eta bestelako materialek baino energia gutxiago eskaten du jartzeak.

Egin nahi dugun erreformaren barnean tutueria aldatzeko ideia baldin badugu, kontuan hartzekoa da etxean jarrita dauzkagun tutuen materiala. Berruna bada, onuragarria litzateke propilenozkoekin aldatzea, ekologikoagoak direlako.

Pareten pintura aldatzea etxeari itxura berria emateko modu efektiboenetarikoa da. Horretarako, pintura ekologikoak erabiltzen ahal dira. Garestiagoak izan arren, 10 urteko biziraupena daukate, bera, epe luzera errentagarriagoak suertatuko dira.

BESTELAKO MATERIALAK

Ekologia, erresistentzia, pieza eta gainazal berriak sortzeko kapazitatea, egokitasuna eta mantentzeko erraztasuna dira gaur egun erabiltzen diren materialen ezaugarri nagusiak. Haiei erreparatuta, hurrengo materialok aurki ditzakegu besteak beste:

- **Harria:** marmolaz gain, granitoa, kareharria, arbela, basaltoa edo harzuria, horiek guztiak asko erabiltzen dira gaur egun, mahai, eskailera eta sukalde gainekoetan. Kasu gehienetan eskuz lantzen direnez, harriak ez du tratamendu kimikoaren beharrik izaten.
- **Zeramika:** material honekin egindako hainbat produktuk aurrerakuntza teknologiko ikusgarriak eskaintzen dituzte gaur egun. Horren adibide argia baldosa domotikoak dira, hezetasun nahiz tenperatura aldaketak eta edonolako bakteriak detektatzen dituztenak.
- **Leundutako zementua:** zura eta zeramikaren berotasuna eduki ez arren, leundutako zementuak eskaintzen dizkigun abantailak ez dira urriak. Erresistentzia, itsaspena eta iragaiztasuna dira horietako batzuk.
- **Plastikoa:** Diseinugile askoren materialik maitatuena dugu plastikoa. Eta ez da harritzekoa, kolore eta diseinu aldetik eskaintzen dituen posibilitateak bukaezinak baitira. Altxari nahiz estaldura bertikalerako arras egoia izan daiteke.



ba
bidasoa arkitektura bulegoa

Antoiu 27 · 4 · 31770 Lesaka
T 948.637.503 M 661.847.107
E estudio@arkbidasoa.com

FERRETERIA
BAZTAN

Santiago, 79 · Industrialdea · ELIZONDO
Tel.: 948 580 423

MADERAS
SANTESTEBAN
ZERRATEGIA

- Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
- Bigak
- Teilaturako egiturak
Izotz, hantza eta douglasezkoak edo laminatuak
- Osagarriak
- Autoklabe tratamendua
- Montajea obran

ZUBIETA · 948 450 877

IGELTSU PROIEKTATUA
LOIZATE
YESO PROYECTADO

J.M Mitxelena
689 908 665
BERA

EZKAIN eraikuntzak S.L.



Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain@ezkain.com

SERRERIA ALEMÁN S.L.

SERRERIA ALEMÁN S.L.

Teliatutako estrukturalak (douglass pinak, haritzak...) • Taloia
Haritzak, izia laminatua • KVH • Laminatuak
Egur trinkoa • Tratamenduak



Frantziako errep. 2-A • ERREAZTU • T. 948 453 173 F. 948 453 082
info@serreriaaleman.com • www.serreriaaleman.com



IKERKETA

Geologikoak
Geoteknikoak
Hidrogeologikoak
Ingurumenakoak

620.796.005

Zimentazioak • Lur azpiko urak
Ezponden egonkortasuna • Zaborteziak

Xalbador Kalea, 28 - 31700 ELIZONDO (BAZTAN)



• tarimak, leihoak, ateak, eskailerak...
• obretako lanak orokorrean

Lander Seia
Mikel Arburua



Piedadeko gaina, 32 • IGANTZI
Tel.: 948 637 249

IÑAKI OLAIZOLA
elekttrizitatea

• Elekttrizitatea orokorrean
• Muntaiak elektrikoak
• Alarmak

Bittiria, 39 • LESAKA
948 637 405 • 670 417 499



GONZALO FERNANDEZ
LAMANA y A.T., S. CV.

Ingeniari Tekniko Industrialia

- Bulego teknikoak:
• Proiektuak, obra zuzendaritzak, etab...
- Instalazio elektrikoak
- Etxeko eta industriako elektrozitateak
- Enpresen mantenimendua, etab...

DANIEL FERNANDEZ
TELLETXEA

- Baimendutako instalatzailea
- Instalazio fotovoltaikoak
- Eguzki-energiako plakak

Elizagibela, 5 • Tloa-Faxa: 948 450 760 • DONEZTEBE



IRIBARREN zurgindegia


Fabrikazioa
salmenta
instalazioa




Antsolokueta, 28
31760 ETXALAR
Tel./Faxa: 948 635 071



Ebaketa bertikala



Ebaketa Horizontala



- EGURREZKO LEIHOAK, "CTE" BERRIA BETETZEKO MODURIK ERRAZENA
- **CE** ZERTIFIKAZIOAREKIN
- ISOLAMENDU TERMIKOA
- NATURALA, GOXOA ETA SENDOA
- ENERGIA AURREZPENAK
- AIRE KAMERADUN KRISTALAK
- ISOLAMENDU AKUSTIKOA
- EGURRA, ERAIKUNTZAKO MATERIAL NATURAL BAKARRA
- INGURUNEA: "CO₂" EMISIO GUTXIAGO, BIRZIKLAGARRIA ETA BIODEGRADAGARRIA

Gure leihoa, zure leihoa, denon leihoa, egurrezkoa!



Kanpoaldeko argiak

Etxearen kanpoaldeko argiztapenak egokia, iraunkorra, ekonomikoa eta ingurumena errespetatzen duena izateaz gain, aldi berean, funtzio estetikoak ere bete dezake. Horretarako egin behar den gauza bakarra gailu egokiak aukeratzea izanen da.

Baina estetika eta dekorazio hutsezko alderdiez gain, etxearen kanpoaldeko argiztapena iraunkorra, ekonomikoa eta ingurumena errespetatzen duena ere izan daiteke, gune hori seguruago eta erosoagoa bilakatuko duena. Horra hor zenbait aholku.

TOKI BAKOITZERAKO ARGİ EGOKIAK

Kanpoko argiztapena garrantzitsua da, giroak definitzeko eta etxearen diseinuaren xehetasunak nabarmentzeko balio du. Adibidez, sarreretan, terrazetan eta ataripeetan aplikeak eta fatxadako zintzilikariak jartzea egokia izan daiteke. Tamaina txikiko farolak dira, paretan zintzilikatzen direnak eta finko geratzen direnak; argi difusoa egiten dute, ez dute itsutzen eta giro soila eta atsegina sortzen dute.

Bide eta sarrerak dira lorategietan argia behar duten beste zenbait puntu. Eguzki plaketatik sortutako tentsio txikiko argiak egokiak izan daitezke toki horietarako. Farola txiki horiekin energia aurreztuko dugu; gainera, erraz instalatzen dira, ez baitute kableaturik behar. Argi-balizekin ere, argiztapen interesgarria lor daiteke. Lurretik azaleratzen diren lanpara txiki halogenoak dira, bidexketako izkinak argitzen dituztenak. Aukera hori egiten baduzu, instalatu potentzia txikikoak, bestela itsutu egingen baitute.

Argiztapena zuhaixkak edo landare apaingarriak dekoratu edo nabarmentzeko baldin bada, gomendagarrienak iltzaltzeko fokuak dira. Egiten duen argi-haloe gidatu eta bonbillaren kolorea alda daiteke eta, horrela, efektu interesgarriak eta originalak lortu. Dena dela, elementuak distantzia handira argitu nahi badituzu, erabilgarrienak proiektore halogenoak izanen dira. Potentzia handikoak izaten dira eta zenbaitek mugimendu detektagailuak dituzte; horrela, mugimendua sumatzen dutenean edota eguzki-argia guttitzen denean aktibatu egiten dira energiaren aurrezpena sustatuz.

ERAGINKORTASUNA ENERGIAREN KONTSUMOAN

Lorategia argizatzerakoan, zenbait alderdi kontuan hartu behar dira, hala nola: eraginkortasun energetikoa, aurrezpena eta ingurumenaren errespetua. Ilde horretatik, konbinazio egokia izan daiteke kontsumo energetiko eraginkorreko bonbillak eta kokatutako tokian norbaiten presentzia sumatzean bakarrik piztaraziko dituen mugimendu-sentsoreak erabiltzea.



ELEKTRIZITATEA
PROIEKTU ELEKTRIKOAK

MARITX

ETXETRESNAK

948 630 592 • Legia, 23 • BERA

elicitxe
suministros electricos

material elektrikoaren salmenta

T. 948 581 261 • Faxe: 948 452 397
Santiago, 83 • Industrialdea • ELIZONDO

Andueza e Iriarte, S.L.

TXIMISTINDAR

INSTALACIONES ELECTRICAS

EGUZKI PLAKAK

Zalain Ind. 42-4. pabiloia
BERA
639 125 046 • 639 608 34
948 631 452



LUCIANO IRIARTE S.L

ESKABAZIOAK • HARRIZKO PARETAK
LUR MUGITZEAK

Tel: 948 592 139 • 649 947 181 • 649 947 182
NARBARTE

mutuavenir:
seguros y servicios

Servicios Berawin

- Etxebizitza eta autoen aseguruak
- Jubilazioa / Istripuak / Osasuna / Ehiza
- Informazio inmobiliarioa
- Industria

San Esteban, 11 Behea • 31780 BERA
Tel.: 948 63 06 01 • Faxa: 948 630 805
berawin@terra.es

OSKARIZ
anaiak

Mota guztietako argin lanak

Tel.: 948 452 255 • 619 406 388
Maiderrenea etxea • ELIZONDO

Carpinterías
EZPELA
Zurgindegiak

BERA
678 350 412 (Eloy)
617 081 335 (Matias)

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENTZIA



- Zurich Asegururak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliarioa
- Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestioak
- Bilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago, 15 • ELIZONDO • Tel eta Faxa: 948 580 804
anzabal@anzabal.com

E R A I G K U N T Z A
G E H I C V B B I V Z A

ARRISKU OROTAKO ETXKO ASEGURUAK

Zer kontratatu den jakitea da kontua

Etxebizitza erostea da, generalean, jendeak egiten duen inbertsiorik nagusia eta etxea, zentzu horretan, bere ondarearen baliorik handieneko ondasuna. Ondasun hori arretaz babestu beharra dago, zernahi ezbehar jasan dezakeelako. Ezbeharrei aurre egiteko arrisku orotako aseguruak estaldura zabala izaten dute eta, horri esker, inork ez du auzitan jartzen duten balagarritasuna.

EDUKI ETA EDUKITZAILEA

Arrisku orotako aseguruetan hiru kapital aurreikusten dira: edukitzailea, edukia eta erantzukizun zibila. **Edukitzailea** etxeko euskailu fisikoari deitzen zaio: zola, sabaia, paretak, ate-leihoak, etab. Horretan bertze hainbat elementu finko ere sartzen dira, hala nola antenak, paretako lanparak, etab. **Edukian** biltzen da etxe barnean dagoen guztia: arropa, altzariak, etxetresna elektrikoak eta era guztietako gauzak. Bi kapital hauek (edukitzailea eta edukia) suteak, leherketak edo tximistak, bandalismo-egintzak, jende-samaldak, grebak eta fenomeno meteorologikoei sortu duten kalteak estaltzen dituzte; baita etxebizitzaren alokairuen galerak eta bizigarritasunik eza, lapurreta, espoliazioa eta ebasketa, urak eragindako kalteak eta kristal hausturak ere.

Erantzukizun zibilaren estaldurarekin, beste batzuei eragindako kalteen gatik sortzen ahal diren erreklamazioen aurrean bere burua babestuko du aseguruak. Oinarrizko estaldura horiei beste osagarri batzuek ere erantsen zaizkie: etxeko animaliek eragindako kalteak, istripua, heriotza, etxeko kanpoko atrakua, kreditu-txartelen iruzurrezko erabilera edota larrialdiko sarraila-konponketa estaliko dituzte hauek, bertzeen artean.



Elbeteko Lekuberria baserria 2007an erre zen



EDUKITZAILEA ETA EDUKIAREN BALORAZIOA

Edukitzalea nolako kapitalean tasatuko den kalkulatzea zaila denez, generalean, gutxi gorabeherako estimazioa egiten da (550 - 700 euro, m²ko) berreraikuntzaren kostua kalkulatzeko. **Edukia** konplexuagoa da baloratzen, erabiltzaile bakoitzak bere modura apaindu baitu etxebizitza (bitxiak, koadroak, antzinako altzariak, arropa, baxerak, ordenagailuak, etxetresna elektrikoak...).

Horrek guztiak duen balorea adierazi egin behar da, ezbeharrik izatekotan, berriak ekarri edo zaharrak konpontzeko. Ohikoena da edukitzalearen %35 eta %50 bitarteko kapitala finkatzea, norberak daukan ondasunen arabera. Ondasunak berriro erostea zenbat kostatuko litzatekeen gelaz gela kalkulatzea da egokiena.

Horretara, kontsumitzaileak erreparatu behar dio indemnizazioa finkatu den moduari. Indemnizazioa **berriro ezartzearen arabera** baldin bada, ezbeharrean galdutako telebista, hozkailua edo bideoaren ordeztatzeko beste batzuk jarriko dituzte. Indemnizazioa **merkatuko balioaren arabera** finkatu bada, aseguratzaileak etxetresna elektrikoak, saltzekotan, izan zezaketen prezioaren parekoak jarriko ditu, hau da, balio apalagokoak.

Etxebizitzak berez daukan baliotik hurbileneko kopuruan aseguratzeak garrantzi handia du. Aseguru-priman sos batzuk aurrezteagatik behera jotzen bada (azpi-asegurua), izandako kaltea baino tikiagoa izanen da indemnizazioa. Konparaziora, 200.000 euro balio duen etxea 150.000 eurotan aseguratzen bada, konpainiaarentzat etxearen parte bat (hiru laurdenak) baizik ez da aseguratua. Ezbeharra izatekotan ere, proportzio horretan indemnizatu ko zaio aseguratuari, bai kalteak erabatekoak direnean, bai partzialak direnean ere. Tasazioa egiazko balioz gainera bada (gain-asegurua), poliza garestiago izanen da baina indemnizazioak higiezinaren eta altzarien egiazko balioa bakarrik estaliko du. Ez du merezi, beraz, behar baino gehiago ordaintzea.



Argazkia: TOTU



ALVARO LOPEZ
Igeltsu eta pladur lanak

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

LESAKA • 651 704 593

Matias MITXELENA
eraikuntzak

— Etxeak
— Zaharberritzeak
— Teilatuak

Tfnoa: 948 637182 • 608 777 908 • LESAKA

Goiko
LOREZAINZA

- Diseinuak
- Ereintzak
- Landatzeak
- Ureztatze sistemak
- Mantentzeak



Artzanegi 6 behea
31870 Lekunberri
T 948 604 888
M 667 848 832
M 610 098 595

www.goikolorezaintza.com
info@goikolorezaintza.com

"TELLETXEA"
Lorazaintza

*Paisajismoa
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Kimaketak
Mantentze Lanak*



John Telletxea
Nekazar Ingeniari Teknikoa
Otxangoko Indusartzailea, IR, enbuxatutako nabak
31770 LEZAKA (Nafarroa)
T. 629 488 883 - F. 948 637 048
john.telletxea@totu.com

GEEA

GEEA GEOLOGOS. S.L

IKERKETA GEOTEKNIKOAK
ETA HIDROGEOLOGIKOAK

edozein eraikuntzarako zimendatzeak,
eraikuntza zibila, lurpeko urak, ingurugiroa...

www.geea.es

696 435 907 / 606 507 335
Paseo Sandua, 28 Behea • 31012 IRUÑEA

Gonzalez anaiak
aroztegi metalikoa

Burdina eta aluminioa

F.Joakin Iriarte, 5 • ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 337

LEITZELARREA S.L.
Aroztegi eta Galdereria

Landa Belkoa Industrialdea, 20
T. 948 510 598 M. 669 368 991
LEITZA

JOSE LUIS ITURBIDE IRISARRI
LIXATU ETA BERNIZATUAK

TXIMINDO, 48 A - 2C
31713 ARIZKUN
NAFARROA
TEL.: 948 45 30 08
MUGIKORRA: 696 35 74 96



AROTEGI METALIKOA
CARPINTERIA METALICA

Bidasoa kalea 76, 17.atea
31780 BERA (Nafarroa)
tel/fax: 948 631 651



TRANSTXAKAIN

TRANSTXAKAIN, s.l.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY



MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK

- Kamioia 15mko garabiarekin
- Kamioia 32mko garabiarekin
- Kaja baskulatzailerekin
- Zisternarekin
 - Putzu septikoak • Tuberietako ataskoak kentzea
 - Ura lekuz aldatzea

Otsango Ind. 14 • LESAHA • transtxakain@yahoo.es
T 669 840 198 / 948 638 052 • Faxe: 948 627 578

FORJAZKO BUNDIN HESIAK

Segurtasuna eta dekorazioa zure leihoetarako

Leiho eta ateetako burdin hesiak segurtasunerako elementu bikainak dira, lehenengo solairuetarako eta landa-etxeetarako arras baliagarriak eta alarmak eta lapurreten kontrako sistemak baino merkeagoak. Gainera, modelo eta tipologia ugariak daude, dekorazio-estilo desberdinetara egokitzen direnak.



Burdinazko hesiak, maiz, estilo errustikoko etxebizitzekin edota harrizko eta bistako adreiluzko fatxada dutenekin lotzen badira ere, proposamen hori aparta da eraikuntza modernoetarako ere; izan ere, modeloen barietatea hain da zabala forja-lantegietako artisauek zure etxebizitzari dagokion burdin sarea aurkituko dutela. Tipologia hori leihoetako baoetan edo fatxadan bertan instala daiteke marko originala sortuz. Bigarren aukera horrekin, estetikoki emaitzak hobeak lortuko dituzu, baina, era berean, produktuaren prezioa ere gehitu egiten da, egite-prozesurako material eta lan-ordu gehiago behar baitira.

IRTENBIDE BERRITZAILEAK

Etxeetako lehenengo solairuetan bizi direnek leihoetan burdin sareak jartzeak dituen abantailak baloratu eta desabantaila nagusiak baztertzen dituzte, hala nola, argitasuna kentzen dutela eta etxebizitzan bizi direnengan nolabaiteko "espetxe" sentsazioa eragiten dutela. Bi eragozpen horiei aurre egiteko, merkatuak aukera berritzaileak eskaintzen ditu, etxean gaude-nean edota burdin hesiaren beharrik ez dugunean, haiek ezkutatzeko edo tolestea ahalbidetzen dutenak.

Modelo horiek babesa eskaintzen dute horretarako barra finkoak jarri beharrik gabe eta segidan aipatuko diren sistematan oinarritzen dira: **metalezko aurremarkoak** burdin hesia paretan sartzeko gidekin instalatzea; eta **burdin hesi tolesgarrien** sistema behin tolesten denean paretan bertan egon den tiradera ttiki batean ezkutatzeko aukerarekin. Bi modalitateak erraz eta txukun instalatzen dira eta neurrira egindako produktuak eta ateetarako eta leihoetarako diseinu ugari aurki daitezke.

Egun, bi aukerek eskaera handia dute, ondo betetzen baitute eskatutako segurtasun-funtzioa eta, era berean, etxebizitzan dagoenari, bere beharren arabera, burdin hesia ezkutatzeko edo zabaltzeko aukera ematen dio. Gainera, ixteko gailu desberdinak (horietako zenbaitek blokeo-puntu desberdinak dituela segurtasuna gehitzeko) eta irekitze- eta ixte-sistema desberdinak ditu, erraz lerratzen dira eta formatu, diseinu, tonalitate eta akabera barietate handia dago.

AGERREBERE

AROTEGI METALIKOA



T. 948 580 538 - Zalduvia Ind. - 31730 IRURITA



BERTIZARANA TAILERRAK

ERRETEGIAK ETA BARBAKOAK
ESTRUKTURA METALIKOAK
ATEENDAKO MEKANISMOAK - ATEAK
BARANDA ETA FORJA ARTISTIKOAK

Tel-Faxa: 948 592243 • NARBARTE

aroztegi metalikoa

odriozola huicj

Alkaiaga Industrialdea • Elbasa, 3-18
31789 LESAKA - Nafarroa
Tel. 948631244 • 628363136 • Faxa: 948625564
e-Posta: odriox@gmail.com

CARLOS SAGASTIBELTZA VILLANUEVA

ARKITEKTU TEKNIKOA

sagastibeltza@telefonica.net

Proiektuak
Aurrekontuak
Berrikuntzak
Obren kontrola
Lur neurketa

Landa Ind. Landa eraikina 1esk
LEITZA
948 610 677 • 629 611 912

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA BULEGOA
Celia Lana Ranz, arkitektoa.COAVN 2827

- OBRA BERRIAK
- ZAHARBERRITZEAK
- OGIALURAK
- BALORAPENAK
- HIRIGINTZA KUDEAKETA
- HIRIGINTZA AHOLKULARITZA

Huarte Gotzai 7 - 31880 Leitza
948610663 tel/fax - 645008478 tel



Ipar karrika, 15
31780 BERA
Tel. 948 630 304

**ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
JAURENA**

Julio Caro Baroja. 6 behea
31780 BERA • Nafarroa
Tel/Faxa: 948 631 217



Eraikuntza eta igeltseritza
aurrekontuak

...

Industri-partzelak Ordokan

...

Familia bakarreko etxeak
Oronozen, azkenekoak

PROMOCIONES INMOBILIARIAS **ZIOZ**

SANTIAGO, 55 ELIZONDO 948 58 04 52
www.promocioneszioz.com



ERAIKUNTZA-PROIEKTUAK
URBANIZAZIO-PROIEKTUAK
ZAHARBERRITZEAK
LUR NEURKETAK eta KUBIKAZIOAK
REPLANTEOAK
OBREN ZUZENDARITZA
NABEAK
KONTSULTAK

Santiago, 54 BIS Behea
www.arkilanak.com

ELIZONDO T. 948 581 531
arkilanak@arkilanak.com



Banatzale ofiziala

ASTRA2Connect

INTERNET BIDEZKO
BANDA ZABAL



TDT Instalazioak
TB Instalazioak
(satelite, lurrekoak)
Instalazio indibidualak eta
kolektiboak
Portero automatikoak
Ebeke hari musikala

Tel. 670 415 720

joxeanlizardi@hotmail.com



fatxadak
komunak
sukaldeak
pisuak
zaharberritze lanak
pladurra
pintatze lanak
isolamenduak

ti-tau erreformak, s.l.u.
Baztan Berr plaza 6 behea
Tel. 629 317 086 (Angel)
Fax 948 580 648
31700 Elizondo (Na)


ti-tau@hotmail.com



PINTURA

Etxea kolorez janzteko

Alor honetan jakitun ez bazara, lortu nahi den bukaera eta dagokion azalarentzat pintura egokiena aukeratu aurretik, hobe da aholkua eskatzea. Kolorea zaletasunen arabera aldatzen den arren, zerrenda komertzial batekoa izan edo nahasi behar ditugun tonuak erosita ere, hamaika aukera ditugu eta, hortaz, erabaki aurretik ongi finkatu behar dugu iritzia. Zerrenda komertzialetako koloreak azalera ttiki-ttikietan agertzen dira baina, erreallitate eramanik, dezente bizi eta agresiboago dirudite. Beraz, bainila tonuko horia nahi badugu, hobe da beilegi hitsa daukan potea aukeratzea. Kontuan hartu, gainera, kolorearen tonua argitasunak aldatzen duela. Kopuruak kalkulatzeko, estali beharrekoaren zabalera eta luzera neurtu behar ditugu, tarteak (leihoak, ateak...) salbuetsi gabe. Hobe da guk hautatu dugun pintura horren litroak zenbat metro pintatzen duen eta zenbat esku eman behar diren hornitzaileari galdetzea, emaitza on-ona erdietsi nahi badugu.



LANA ANTOLATZEA

Pintatzen hasi baino lehen hobe da gela egurastea eta, berehala, partikula hegalariai ekar ditzakeen aire-korrontetarik altxa ez dadin, ate-leihoak ixtea, partikula horiek, bestela, pintura hezeari itsatsiko litzaizkioke eta. Pintatzen hasteko modurik egokiena hau da:

- **Lehen urratsa:** hasi sabaia pintatzen. Paretetara igaro aurretik, eman nahi ditugun esku guztiak.
- **Bigarren urratsa:** paretak. Hasi paretak bateko eskuineko goi bazterretik; hurrengo azalerara igaro aurretik, aurrekoa erabat bukatu behar dugu beti. Eskualdi guztiak norabide berean emanen ditugu.
- **Hirugarren urratsa:** ate-leihoak. Estali beti zintarekin pintatu behar ez diren elementuak (bisagrak, sarriak, beirak, etab.).
- **Laugarren urratsa:** zokaloak, lurzoruko ertza zinta horrekin estalita, pinturaz zikin ez dezagun.

PROFESIONALARI AGINDUZ GERO...

Lana profesionalen esku uztea nahiago badugu, hainbat kontu izan beharko ditugu gogoan: pintatu beharreko metro kuadroak eta pintura-mota. Gaur egun dauden pinturak erabiliz, ez da beharrezkoa etxea gauez hutsik uztea, lanaren antolamenduak hainbat gela libre edukitzea ahalbideratzen diolako langileari. Ahal den neurrian, haien lana erraztea komeni izaten da, altxariak baztertuz edo koadroak kenduz, laneko denbora (eta, horren ondorioz, faktura) murriztu egingen delako.

Pintura lanak orokorrean

MELO

pintura lanak

T. 609 873 178 • LEITZA

Kidatzepegi Auzoa, 6 Dendarineko Etxea 31770 Lesaka-Navarra
Tel: 948 627 554 • 656 763 186

Txus Ubiria Andueza

margoketa lanak • pintor

PATXI ZAMORANO

KALITATEZKO LANA ETA PRODUKTUAK

- Barnizatuak eta lakatuak kabinan
- Etxebizitzak eta Lokalak
- Fatxadak

Leitrako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 734 • 606 377 424

Juan Luis

OTXOTEKO

Pintorea

Eskatu aurrekontua konpromisonik gabe

Bittina, 26 3.B • LESAKA • Nafarroa
T. 948 637 902 M.678 993 818
otxotekopinturak@yahoo.es

ETXEPARE anaiak

Igeltzeritza orokorrean

Bittiria, 22
LESAKA
948 637 431
608 576 504



reformas
LASTER
berrikuntzak

SUKALDEAK • BAINUGELAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRA TTIKIAK ETA INTEGRALAK

Paseo Eztegarra, 14
31780 Bera, Nafarroa
T. 948 625 397 • M. 667 717 563
eduprojet@gmail.com



GAZMENDI
ERAIKUNTZAK

DONIBANE KARRIKA
GURE BORDA • SUNBILLA
T. 948 450 130 • 948 451 666
M. 619 469 784



TXARUTA, S.L.

iturgintza
berokuntza
gas

948 45 17 28 • 659 77 00 15
GAZTELU

DIRULAGUNTZAK

Etxean obra egitea pentsatzen ari denak, dirulaguntzarik ba ote duen begiratzea komeni zaio deus egiten hasi baino lehen

Nondik hasi, nola egin, obraren kostua, dirulaguntzarik ba ote den... Gauza aunitz izaten dira kontuan hartu beharrekoak etxean obra egiteko orduan. Kasu honetan, administrazioak eskaintzen dituen dirulaguntzei erreparatu-ko diogu bereziki. Nafarroan, honako hauek dira eskatzen ahal direnak:

ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZE BABESTUA

Dirulaguntzak tramitatzeko, partikularrek laguntza eska dezakete Nasursan (Baztan-Bidasoaldekoek) edo Leitzako Udaletxean (Leitza-Goizueta aldekoek). Beraiek emanen dizkizute xehetasun guztiak.

Zeri ematen zaio dirulaguntza?

1. Beharrezkoa diren errehabilitazio obrei, **hasi gabeak baldin badira**.
2. Inbertsioan sartzen da obraren kostua, teknikoen fakturak eta tasak (zer-gak izan ezik).
3. Babes daitekeen aurrekontua: etxebizitza eta baserrirei atxikitako lokalei dagokiena, batez besteko prezioak aplikatuta.

Betebehar nagusiak

- Aurrekontu minimoa 4.000 euro, BEZ gabe.
- Bizi zaren etxe bera izan behar du edo, ondoko urteetan biziko zarena.
- Etxebizitzak 12 urte baino gehiago izan behar ditu.
- Obrak *hasi gabe* egon behar dira (hagitz garrantzitsua da hori).

Dirulaguntza hauek eskatzeko, kasu bakoitzean beharrezkoa den dokumentazioa Nasursara edo Leitzako Udaletxera eraman ondotik, aparejadorak

bisita egin eta Iruñera bidaltzen du dokumentazio guztia. Iruñetik baimena hilabete bat eta erdi edo bi hilabetera ailegatzeko da eta ordura arte ezin da obrarekin hasi, bertzelako dirulaguntza galtzen da.

Dirulaguntzaren kopurua

Hori kalkulatzeko kasuistika zabala dago. Izan ere, familia unitatearen kide kopurua, familiaren diru-sarrerak, eraikinak dituen urteak eta zein klaseko obra den hartzen da kontuan. Egokiena, dena den, laguntza tramitatzen duen teknikoari galdetzea izanen da.



Gobernuak dirulaguntza onartzen duenean, nahi-taetzkoa da obra hasi gabe egotea



Hainbat kasutan, dirulaguntzak teilatuak berritu eta isolamendu-termikoak egiteko aprobetxatzen du jendeak.

ETXEBIZITZAK BARNETIK BERRITZEKO LAGUNTZAK

Sukaldeak, komunak, barneko ateak eta zolak sartzen dira laguntza haue-
tan. Hona baldintza hauek bete behar dira:

- Aurrekontu minimoa 3.000 euro, BEZ gabe.
- Bizi zaren etxe bera izan behar du edo, ondoko urteetan biziko zarena.
- Etxebizitzak 12 urte baino gehiago izan behar ditu.
- Obrak *hasi gabe* egon behar dira.

Kasu honetan inprimakia bete eta Iruñara bidaltzen da eta erantzuna 15 egu-
netan ailegatzen da. **Aurrekontuaren %20a da dirulaguntza 3.000 euroko
topearekin.** Beraz, gehienez ere 3.000 euroko dirulaguntza aurreikusten da.

BEROKUNTZA GALDARAK ALDATZEKO LAGUNTZAK

Abenduaren 18an bukatzen da la-
guntza eskatzeko epea. Inprimakia
biltzen ahal dira Nasursak Donez-
teben duen bulegoan edo Leitza-
ko Udaletxean. Helburua da berokun-
tza eta ura berotzen gastatzen den
energia murriztea, eta hortara, gal-
dara zaharrak ordezkatzea lagun-
tzen da diruz.

Dirulaguntza hauek bateragarriak
dira Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Departamentuak ematen dituen
dirulaguntzekin. Dirulaguntzaren kopurua kasu bakoitzaren arabera alda-
tzen da (350 eurotik hasi eta 1.250 euro bitarte) 1.200 euro eta 3.000 euro bi-
tarteko guttieneko inbertsioarentzat. Obra egin eta dokumentazioa aurkez-
teko azken eguna, 2010eko ekainaren 30ean bukatzen da. Informazio gehia-
go 848 42 55 20 telefonoan.



LEIHOAK ALDATZEKO LAGUNTZAK

2009an ditulaguntzak eskatzeko epea azaroaren 20an bukatu zen. Litekee-
na denez datorren urtean ere berriz dirulaguntza deialdia zabaltzea, inte-
resatuak erne egon beharko du segimendua egiteko.

TALOTXA
IGANTZI ERAIKUNTZAK,

Piedadeko auzoa, 8 • 31790 Igantzi (Nafarroa)
608202126 • 618901810

LEIZA ANAIK
ERAIKUNTZAK

Lizarraga, 17 • LEITZA
689 231 961
660 334 102

Red
NASURSA
OFICINAS COMARCALES
ESKUALDE BULEGOA
BULEGOEN SAREA

Etxebizitza eta hirigintzari buruzko
Aholkularitza teknikorako
Eskualdeko bulegoa
Herriarrendako zerbitzuak
Udalendako zerbitzuak

Tel. 948 456 100 • Fax. 948 451 320
buztan-bidacea@nasursa.es • www.nasursa.es
Merkaderen karta, 6 DONEZTEBE

anaiak
apezetxea

Idoeta, 71 - 1ª • 31745 GOGUETA
Tel.: 650 20 16 27 • 699 63 24 80
www.apezetxeanaiaak.com
excavaciones@apezetxeanaiaak.com



**PREZIO MUGATUKO ⁽¹⁾
ETXEBIZITZA LIBREAK**
Elizondoko Baztan Berri Plazan

**ORAIN ZURE ETXEBIZITZA LIBREA
BABES OFIZIALEKOA BAINO MERKEAGO**

28.000.000 Pta.tik BEZ barne
168.290 € tik BEZ barne

3 GELA + GARAJEA + TRASTELEKUA

⁽¹⁾ Prezio mugatuko etxebizitza librean erosleek abantaila fiskalak dituzte eta Babestutako Etxebizitzei dagozkien baldintzak dituzten mailegu kualifikatuak lortzen ahal dituzte.


Mendinueta, 6 behea · T. 948 580 304 · info@jbiturria.com
www.jbiturria.com

LESAKAKO KOMERTZIANTEAK

Karibera bidaia zozketatuko dute bezeroen artean

Lesakako Zerbitzuen Elkartea dagoeneko Eguberrietako kanpainari begira dago. Aurten, Kariberako bidaia zozketatuko dute, hori izanen da ekintza nagusia. Komertzioek txartel bat banatuko dute bezeroen artean, zortzi laukitxoekin eta laukitxo horietako bakoitzean, elkarteko establezimendu baten zigilua lortu beharko du bezeroak abenduaren 1etik hasi eta urtarrilaren 7ra bitarte egiten dituzten erosketen bidez. Erosketaren kopurua edozein dela ere zigilua lortuko dute bezeroek, ez da guttieneko gasturik egin beharrik izanen: “Erosketa egin zigilua, erosketa egin zigilua... ez da minimorik izanen, hori bat txartel osoa bete

beharko da, beraz elkarteko zortzi denda ezberdinetan erosketak egin beharko dira, denda guzietan ibiltzea nahi dugu”. Zortzi dendetako zigiluarekin txartela osatua dagoenean, bezeroaren izen-abizen eta gainerako datuekin bete eta zozketan sartuko da. Zuzendaritza batzordeko **Maidor Susperregik** aipatu digunez, “saria ezin izanen da diruarengatik trukatu. Bidaia behe denboraldian egiten da Karibera, baina hori bai alda daiteke, adibidez norbaitek abuztuan bakarrik hartzen ahal baditu oporrak, suplemento batekin joan edo adineko jendeari tokatzen bazaio eta nahiago badu hain bidaia luzea ez egin, hori solastuko guke”.



Zozketa 2010eko urtarrilaren 8an, arratsaldeko 20:30ean egiten da Plazako kioskoan eta saridunari zuzenean deitu egingen zaio.

Olentzero eta jaiotza lehiaketetan sariak

Horretaz gain, Olentzero eta Jaiotza lehiaketan, Zerbitzuen Elkartek ehuna euroko sariak emanen die hobekien abesten duten taldeei, joan den urtean

lehen aldiz egin zuten bezalaxe. “Udalak ematen duenaz gain, premio berezia izanen da”. Eta elkarteko dendek logotipoa, helbidea eta telefonoak agertzen dituzten sakeleko egutegiak ere argitaratu nahi dituzte, bezeroen artean oparitzeko, “zerbait desberdina egiteagatik”, **Susperregik** dioenez. “Egutegi handia toki guzietan ematen dizute, baina sakelekoak lortzea zailagoa izaten da”.

BERAKO LARUN HAIZPE ELKARTEA

100 euroko hamabortz erosketa-bono zozketatu eta puzgarriak paratuko dira Eguberrietan

Berako Larun Haizpe merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresen elkartek, laugarren urtez segidan, Eguberrietako puzgarriak paratuko ditu Altxateko frontoian bortz egunez, Udalaren laguntzaz. Haurrak zaintzeko monitoreak ere izanen dira, 16-17 urteko gazte txoak. **Mari Jose Arak** aipatu digunez, “Eguberrietako oporretan gurasoek beraien seme-alabak uzteko eta hauek jostatzeko leku bat izatea da. Honela, gurasoek erosketak lasai ederrean egin ditzakete. Puzgarrien parkea egunean zortzi bat orduz zabalik izanen da, bortz egunez, jokurak eta ttiki bat ere izaten da eta “orain arte hagitz ongi aterata da” dio **Mari Jose Arak**. Horrekin ba-

tera, uda partean egiten dutenaren arrakasta ikusita, Eguberrietako balkoi apaingarrien lehiaketa ere egiten dute, “Eguberrietako apaingarrien bidez jendeak balkoiak apaingatzeko lana hartu eta herria edertu eta argiztatzeko” helburuarekin.

100 euroko hamabortz erosketa-bono zozketan

Bezeroen fideltasuna saritzeko, berriz, ehuna euroko hamabortz erosketa-bono zozketatuko dituzte Beran Eguberrietan. “Erosketa egiten duen bezeroari—diote

Larun Haizpekoek— zenbaki bat emanen zaio zozketan sartzeko, zenbat eta erosketa gehiago zenbaki gehiago eta saria lortzeko aukera gehiago izanen du”. Oraindik ez dakite zuzen noiz izanen den zozketa, baina bonoak Errege eguna pasatu ondotik, urtarrilaren 7-8tik aitzinera erabili ahal izanen dira. Berako elkartekoek aipatzen dutenez, “joan den urtean Tunisiara bidai bat zozketatu genuen, baina aurten sari handi bat egin ordez, txikiagoekin jende gehiago kontent uzten duzu”. Saridunak segurutik ateratzeko, gainera, bezeroaren datuak eta telefono zenbakiak hartuko dituzte dendetan, eta saridunei abixatu egingen zaie.



BAZTAN-BIDASOALDEKO KOMERTZIOAK ELKARTZEN HASI DIRA

«Hementxe gaude, eta zuek non? Gurekin gelditu!»

Baztan-Bidasoako komertzioak hemen daudela adierazi eta bertako bezeroak beraiekin gelditzea nahi dute. Helburu horrekin, Bera, Doneztebe, Elizondo eta Lesakan komertzianteen elkarteak sortu dira azken bizpahiru urtetan. Hurbiltasuna, konfidantza, herrietako karriketako animazioa, zerbitzu pertsonalizatua... hainbertze ezaugarri eta baliabide azpimarratzen dituzte bezeroak erakartzeko eta hiri handietako supermerkatuetara ez aldegiteko. Urte osoan hainbat kanpaina egiten dituzte eta Eguberrietan ere bezeroei fidelitasuna saritzeko eta zerbitzu berezia eskaintzeko zenbait proposamen egiten dituzte herriz herri. Orain, gainera, eskualde osoko komertziantek biltzen hasi dira, guziekin arazo berberak dituztelako eta denen artean, soluzioak bilatzea errazagoa izanen delakoan.

Lesakako **Jasone Telletxea** laburbiltzen du eskualdeko merkatarien iritzia: "Erakutsi behar dugu ez dela Irun, Donostia edo Iruñera joan beharrik erostekak egiteko. Zuzenean kanpora joan beharrean, jendeak lehenbiziko herrian ikus dezala, kontuan har gaitzala, eta ez badu behar duena aurkitzen, orduan bila dezala kanpoan, horretarako libre da, noski. Azkenean, behar beharrezko gauzak herrian erosi ohi ditu jendeak. Hemen denak ezagutzen gara eta tratua hurbilagokoa da, lasai ederrean bidaltzen ahal dituzu seme-alabak erostera eta badakizu ez dela arazorik izanen".

Herri bakoitzeko merkatariek bere aldetik egin dezaketenez gain, denak batera egiteko moduko ekintzak ere badaudela uste dute. Elizondoko **Jaime Biguriak** adierazi duenez, "hiri handietako denda handien arazoa bera da guzientzat: Bera eta Lesakako dendei kalte handiagoa egingen die Irun eta Donostiak eta guri Iruñeak, baina finean jendea herrian gelditzea eta erostea lortu behar dugu denok. Horixe da erronka". Halere, orain errepede

berriarekin, kokapen kaxkarrena Berak duela uste du **Mari Jose Arak**: "Irun bortz minutura dugu eta dagoena dago". Ekonomia arloan, merkataritza kontuan hartu beharreko arloa dela uste du Arak: "22.000 bizilaguneko eremuan 233 komertzio gaude lau

herri handienetako elkartetan. Horri elkartetatik kanpoko edo herri txikiak denda gehitu eta mila pertsona baino gehiago biziko gara komertzioaz. Industria garrantzitsua da, dudarik gabe, baina autonomoei ere kontuan hartu behar zaigu".

Goitian, ezker-eskuin:
Maidor Susperregi, Mari Jose Capdequi, Sandra Legasa, Edurne Portu, Maite Oskoz, Naiara Alberro, Lourdes Telletxea, eta Mari Jose Ara. Behean, Jaime Viguria, Jasone Telletxea, Mari Jose Alaña, Adela Arlegi eta Ana Mari Arregi.



Baztan, Doneztebe, Bera eta Lesakako komertziantean biltzen hasiak dira. Argazkia azaroaren 3an atera da Lesakan.



Urte osoko ekitaldiak

Lesakan, Udaberriko Feria egin zuten martxoan eta 1.300 lagun sartu ziren frontoian, 15 komertzio paratutako salgaiak ikustera eta erostera. Sanferminetan lau lagunendako afaria zozketatu, baina ez zen saridunik agertu. Beran, apirilean, maiatzean eta ekainean kanpaina berezia ere egin zuten. Apirilean, jendea irakurtzera animatzen zuten, eta 50 euroko zazpi erosketa bono zozketatu zituzten liburu eta aldizkari dendetan erosteko; maiatzean jendea barrenetik zaintzeko animatu zuten, osasuntsu jateko eta erosketa bonoak janaridendetarako izan ziren; ekainean, azkenik, kanpotik edertzeko animatu zuten jendea eta bonoak ileapaindegi eta estetika dendetarako izan ziren. Hiru hilabeteko kanpaina izan zen. Balkoi apainduen lehiaketak ere egin dute bigarren urtez. Elizondon, webguneko gazapo lehiaketa, argazki lehiaketa eta bertze zenbait kanpaina egin dituzte. Webgune dinamikoa eta polita ere osatu dute eta dagoeneko 7.000 bisita baino gehiago izan dituzte. Stock Feria,

Bertan Eguna abuztuan, egutegia eta bertze zenbait ekintza egiten dituzte. Donezteben, joan den urtekoari segida emanez, pintxo lehiaketa egin zen maiatzeko lehen asteburuan, bertze ekitaldi batzuekin batera. Urriko bigarren asteburuan ere azoka prestatu zuen Doneztebarrak elkarteak, jokuak, zozketak, tailerrak eta bertzerekin.

Kanpainen balorazioa

Orain arte egindako kanpainen balorazioa eginez, Bertan elkarteko **Jaime Biguriak** aipatu digunez, "fideltasun txartelak ongi funtzionatu zuen gan den urtean, jendea ilusioz ikusten zenuen bere txartela eraman eta betez, eta hori asentatu da. Jendeak badaki hori duela. Kritikaren bat ere izan dugu, urte osoan erosi ez eta Eguberrietan erosketak egiten duena sariduna suertatzen ahal delako. Denen gustoa egitea ezinezkoa da, baina normalean Eguberrietan ere urte osoko bezeroak ibiltzen zaizkigu eta aurten ere berdin egingen dugu". Lesakan iaz egindako eskaparate lehiaketarako ere jendea espreski horretarako pasean ere so-

ESALDIAK

«Hemen denak ezagutzen dugu elkar, tratua hurbilagokoa da, lasai ederrean bidaltzen ahal dituzu seme-alabak erosketak egitera eta badakizu ez dela arazorik izanen»

Jasone TELLETXEA
Lesakako merkataria

«Bera eta Lesakako dendei kalte handiagoa egingen die Irun eta Donostiak eta guri Iruñeak, baina finean jendea herrian gelditzea eta erostea lortu behar dugu denok. Hori da gure erronka!»

Jaime BIGURUA
Elizondoko merkataria

«Ekonomia arloan kontuan hartu beharreko sektorea gara. 22.000 bizilaguneko eremuan 233 komertzio elkartuta gaude lau herri handienetan eta eskualde osoan 1.000 pertsonatik goiti bizi gara komertzioaz»

Mari Jose Ara
Berako merkataria

«Arraiozko merkataritza gunea hor dago, beti beldur pixko bat izaten da, baina bertze aldetik, Irun ere hor dugu, errepide berriarekin bertatik bertara gelditu dena, eta hor bai dexente somatzen ahal dugu»

Maite OSKOZ
Doneztebeko merkataria

matu omen zuten, gero bozkatzeko. Kanpaina hauek funtzionatzen dutenaren erakusgarri, Lesakan iaz bezero batzuk errandakoa: «Lesakan edo Beran erosketak egin berdin-berdin da, baina Beran saria lortzeko aukera dudanez, han egin dut». **Mari Jose Arak** ere onartu joan den urteko Eguberrietan jende aunitz mugitu zela Beran. «Nere ustez jendea kontent dago, mugitzen hasi garelako, batzuk ordua zela ere erran digute».

Ostalariak ere beraiekin nahi dituzte

Komertzianteeek ostalari eta gremioetako langileak ere elkartetan sartzeari nahi lukete, nahiz eta hori zaila dela onartu. «Guk azpiegitura egina dugu eta hagitzez errazagoa dute gurekin elkarlanean hastea, bakoitzak bere aldetik elkarrea egitea baino. Eta gaur egun, edozer gauza egiteko elkarte bat eskatzen dute». Lesakan hiru ostatu bakarrik daude elkartean sartuak. Beran, aldiz, hameka daude eta zuzendaritza batzordean ostatu bat sartu zuten, «eta lan handia» egiten duela onartu du **Mari Jose Arak**.

«Kanpainetan beraien inplikazioa bilatzen dugu, balkoi lehiaketan saria lau jatetxetan bina afari izaten da, stock feriako sarrerarekin, kontsumizio bat oparitzen dugu... Gauzak errazten diegu, hori egia da, baina guttienez gurekin daude».

Elizondon lau ostalari dituzte elkartean, «baina bakarren batek elkartasunez sartua dagoela erran digu» aipatu du harrituta **Biguriak**. «Inplikazio handiagoa beharko genuke»

Donezteben ere ostatu, jatetxe eta gozotegiren bat elkartean sartuak daude, baina ateak idekiak dituztela aipatu digu **Maite Oskoz**.

Gurekin gelditu!

Baztan-Bidasoako komertzianteeak biltzen hasi dira eta denen artean, beraien arazoei aurre egin eta eskualdeko merkataritza bultzatzeko lanean ari dira, beraiek eskaintzen duten zerbitzua herriak bizirik kontzeko ezinbertzekoa dela uste baitute. Azken finean, komertzianteeek horixe adierazi nahi diote bezeroei: «Hementxe gaude, eta zuek non? Gurekin gelditu!».

DONEZTEBARRAK ELKARTEA

Eguberrietako 47 zare eta 1.000 euroko erosketa bonoa zozketatuko ditu

Doneztebarrak Elkartea ere Eguberrietara begira dago. **Maite Oskoz** presidenteak aipatu digunez, “elkarteko denda guzietan zare bana izanen da, 70 euro inguruko produktuak dituen, denda berdintsua eta dendetako produktuekin osatua, eta soberan gelditzen zaigunarekin, eroske-

ta-bono baten zozketa egin nahi dugu. Kanpaina honetarako 2.400 euroko aurrekontua dute eta, “zareak osatu eta 1.000 euro sobratu direnez, 1.000 euroko erosketa-bale zozketatuko dugu, hori bai, elkarteko denda bakoitzean gehienez ehun euroko erosketa egiten ahal da”. Urtarrilaren 5ean



eginen da bono honen zozketa, Errege Kabalgataren ondotik eliz

atarian. Bertze aldetik, abenduaren 21ean, San Tomas egunean, txistorrada ere egin nahi dute Doneztebako udaletxeko arkupean, arratsaldeko 18:00etan. Haurrendako birziklapen tailerra egingen dute abenduaren 28an 17:00etan eta jokuak ere jarri nahi dituzte urtarrilaren 4ean, 17:00etan. Zinema ere jartzea gustatuko litzaieke, baina aurtengoan ez da posible izanen. “Urteren batean egin zen eta arras ongi atera zen, —dio **Maite Oskozek**— seme-alabak pelikula ikusten gelditzen ziren gustura eta bitartean gurasoek erosketak egiten ahal zituzten lasai”. Bertze urtetan egin den bezalatsu, Eskaparete lehiaketa ere egingen du Doneztebarrak Elkartea. Baina aitzinekoetan udal ordezkariak osatu dute epaimahaia, eta aurreko komertzianteeke beraiek egingen dute epaile lana. Irabazleek diploma irabaziko dute sarritzat.

BAZTANGO BERTAN ELKARTEA

Fideltasun txartelak 76 sari eman eta “10 egun miragarriak” egingen dituzte

Baztango Bertan Elkartea ere fideltasun-txartela bultzatu nahi dute Eguberrietan, Lesakan egingen duten modura. **Jaime Biguriak** aipatu digunez, “gauza beretsua da, hamabi koadro duen txartela aterako dugu eta koadro horiek denak zigiluz bete beharko dira. Denda bateko gehienez ere hiru zigilu jarri daitezke”. Komertzio bakoitzak erabaki dezake zenbat zigilu eman, erosi den kopuruaren arabera. Urtarrilaren 9an egingen da zozketa eta hainbat sari izanen dira. **Biguriaren** erranetan, “gu 76 bazkide gara eta eskaparete batean kanpaina parte hartzen duten bazkideen sariak bilduko ditugu (iaz 64). 30 euro inguruko sariak banatuko ditugu, ahalik eta bezero gehien-

ak saridunak izan daitezen”. Bertze aldetik, azaroaren 23tik abenduaren 2artio, «10 egun miragarriak» antolatu dituzte Bertan elkarteko zenbait bazkidek, “jendeak erosketak aintzinetzeko eta berehunen egiteko ideiarekin deskontuak eskainiko dituzte bere produktuetan”, **Biguriak** adierazitakoaren arabera.

Eskaparete lehiaketa

Aurreko urtean eskaparete lehiaketa egingen dute. Aldaketa bakarra, aurreko urtean ez dutela bezeroek erabakiko irabazlea, baizik eta adituaren epaimahai batek. **Jaime Biguriaren** erranetan “Udal ordezkari batek, herriko artista batek, Merkatarien Federazioko batek eta bertze norbaitek osa-

tuko dute. Eguberri egun inguruan etorri, eskapareteak ikusi eta puntuatuko dute. Gan den urtean eskaparete maila lehen urtean baino baxueagoa izan zela aipatu ziguten. Beharbada jendea nekatua dago. Gan den urtean hogeita bat denek parte hartu zuten, elkarteko kideetatik lautik bat eta ea aurreko indartzen dugun”. Lehiaketa irabazten duen komertzioak publi-

zitate kuita izanen ditu doan Xorroxin Irratian eta Xaloe Telebistan. Argazki lehiaketara aurkeztutako lanekin ere egutegia aterako dute aurreko urtean. “Gan den urtean Zaldia eta Menaren argazkiekin egin genuen, baina aurreko urtean aldatu egin dugu, jendearen parte hartzea bultzatzeko”. Elizondoko karriketan elkartaren logoarekin iratze-metak jarri nahi dituztela ere aipatu digu **Biguriak**.



ARMAIRUAK

Arropa non gorde izateko

Armairu baten barnealdearen diseinua erabiltzailearen behar eta gustuen mende dago. Pauso egokiei segituz gero, diseinu errazak egin daitezke edo, guttienez, proposamen zehatza egin dakioke saltzaileari, armairu pertsonalizatua lortzeko.

Barnealdean apalen moduluak, tiraderak eta arropa esekitzeko barra aurki daitezke. Horiek dira banaketa koherente bat lortzeko guttieneko elementuak. Alabaina, gomendagarriena espazioak handitzea eta goialdean maletak sartzeko tokia uztea da, baita oinetakoen zatia eta hainbat atal bertikal ere.



Armairuak behar adina-ko altuera baldin badu, maletategia ezinbestekoa izanen da beste sasoietako arropa, bidaietarako poltsak eta maiz erabiltzen ez den edozein elementu gordetzeko. Goialdeko toki horrek nahikoa sendotasun izan dezan, komenigarria da armairuaren aurrealdeko ateak beste banaketa bertikal jartzea. Horrela, egiturak sendotasun handiagoa izanen du.

Armairu pertsonalizatua baten erredua; norberaren beharretara egindako apal, tiradera, arropa esekitzeko barra eta ispilu atearekin

Tiraderei dagokienez, erabiltzaileak nahi dituen guztiak jar ditzake armairuaren edukieraren arabera; alabaina, zenbait alderdi kontuan hartu behar dira funtzionaltasun guttiko proposamenetan sartu aurretik. Kajoi gehiegi jarritz gero, barratik zintzilikatzen duen arropak uki ditzake eta horrek kalte egingen die jantziei. Aukerarik praktikoen armairuaren behealdean sartzaren diren kajoi guztiak jartzea da, betiere jantziek horietako bat ere ukitu gabe. Horrez gain, kajoi bakoitzaren altuera ere kontuan hartu behar da; izan ere, horrek ez du 15 cm baino tikiagoa izan behar.

BARNEKO ESTALKIA

Normalena armairua barnetik estaltzea da, jantziak paretako hautsez zikin ez daitezken. Adibidez, pinturaz, paperez, oihalez edo egurrez. Zalantzarik gabe, azken hau aukerarik garestiena da kalitatea ere hobea delako.

AGUSTIN PORTU aroztegia

Ameltziaga - Kaule auzoa - BERA
T. 948 631 058 - 670 422 316

APITTU ALUMINIOAK
XIXO JOSU
626 312 326 626 313 162
Aluminiozko Leihok, Kontraleihok,
Ateak, Porteko ibidurak eta Barandilak
Osango auzoa, 7 - Pab - 31770 Lesaka (Nafarroa)
T.F 948 638 297 - apittu@apittu.com
www.apittu.com


**ZABALA Y GOIKOETXEA
ERAIKUNTZAK**

Gure Ametsa GOIZUETA
T/F: 948 51 42 28
M. 679 47 98 93 - 679 47 98 78



OLAZAR aroztegia S.L.

- aroztegi metalikoa
- itxiera metalikoak
- aluminio aroztegia
- estruktura metalikoak
- zerrailgintza
- galدارagintza
- ate baskulatzaileak
- ate automatikoak

Aparan Ind, 1
Tfnoa - Faxe:
948 456 183
Mugikorra:
649 139 365
DONEZTEBE

BAINUGELAK

Bainugela da, seguruenik, gutxien berritzen den etxeko gela, nahiz eta egunero erabiltzen dugun

Kontua ez da beti bainugela goitik behera aldatzea: aparatu eta armairu berriak jartzearekin aski izan daiteke maiz. Baina dena erreformatu behar denean garestia da. Aparatuak ez dira batere merke, denbora luzeko erabilera hondatu gabe irauteko diseinaturik daudenez, kalitate on-ona izaten dute. Hortaz, zeramika, aparatuak, hodiak, pintura eta bukaera jasotzen dituen erreformaren aurrekontua eskatzean ez da harritzekoa izaten kostua (merke antzean ari gara, jakina) 6.000 euro ingurukoa izatea.

ZATIKA BERRITZEA

Obra planteatzean, aldatu behar denaz serio pentsatu behar da. Altzariak, aparatu guztiak edo haietako batzuk eta txorrotak berritzea izan liteke konponbidea, hodiak eta paretak oraino egoera onean baldin badaude. Bainugela ederra geldituko da eta, obra egun guttitan egingen denez, familiaren bizimodua ez du bortizki aldatuko, hauts gutxiago harrotuko du eta merkeago gertatuko da.



BAINUA EDO DUTXA?

Jendearen %92k dutxatzea nahiago du. Ez da harritzekoa, hortaz, geroz eta bainera guttiago instalatzea. Badu horrek hainbat abantaila: toki guttiago behar da, dutxan sartzea errazagoa da eta bertan istripu edo ezbehar guttiago izaten da. Ingurumenak ere garrantzi handia du horretan: dutxa azpian behar den denbora bakarrik ematen badugu, bainerearekin baino ur-aurrezki handiagoa izanen dugu.

KOLOREA

Kolore biziak dira protagonista. Azken joeren arabera, azuleju eta baldosa neutroak jartzea da egokiena. Modu horretan, bakoitzak nahi duen kolore bizia sar lezake, bai altzarietan eta baita osagarrietan ere. Altzari modernoak dira zintzilikatuak eta distiradunak. Ahalik eta leku gutxien hartzeko, zintzilikatzea da egokiena.



INSTALACIONES ARKALE c.b.

Gas instalazioak
Iturgintza orokorrean
Berokuntza eta aire egokitua
Mantenu lanak
Zintzilikatuta egiten diren lanak

T. 948 450 172 - 610 508 177
Amezia, 10 - DONEZTEBE

Saneamientos GARE

- Bainugelak altxari eta osagarriak.
- Hidrosanizazio eta baimentziak.
- Berugailu instalaberrak.
- Gas natural instalaberrak.
- Titulazio teknikoak.

C/Kaetanberri, 10 Beje
Bera
Tel: 948631307 / Fax: 948631307
Móvil: 608976034

GOIENBURU
iturgintza

Iturgintza, berokuntza eta gasa
eguzki plakak eta biomasa

Goienburu, 10 • 31790 ARANTZA • 600 902 723

AMEKA

Herreminta elektrikoaren konponketa
Profesional eta brikolaiak baino gehiago
Nahi duten guztiak zuzendutako burdindegia

T 948 630 492 • San Esteban, 17 • 31780 BERA



astizanaia
ZURGINDEGIA
info@astizanaia.com

Aldude etorbidea, 5
31700 ELIZONDO

699325449
690687995



ITURRIONDO
ZURGINDEGIA

• parketak • atek • leihoak...

teillatuak • estrukturak • tarimak

Zelai ind. 7 • BERA • 948 631 430 • Faxa: 948 625 330



Juanotena
zurgindegia

TEILATUAK • ZOLAK
KONTRALEIHOAK • ARMAIRU ENPOTRATUAK
ATEAK • ESKAILERAK • LEIHOAK

Zurgin lanak orokorrean

Lentzako bidea, 35 B • DONEZTEBE • 948 450 211



MINDEGIA
ZURGINDEGIA

Atek, tarimak, eskailerak,
parketak, teillatuak, leihoak,
armairuak, sukaldeak...




T. 948 451 906 • M. 689 531 012 • ALRITZ
carpi.mindegia@yahoo.es • www.mindegia.com

ATE LERRAGARRIAK

Tokia irabazteko soluzioa

Erraz instalatzen dira eta ez dute obra handiegirik eskatzen

Ate lerragarriak etxebizitza bateko estantziak banatzeko aukera ona dira. Maiz, atek izan ohi dira geletan tokia kentzen dutenak. Horregatik, toki mugatua duten etxeetan,

tokia hobeki aprobetxa daiteke ate lerragarriekin.

Egun, ateen sektorea izugarri dibertsifikatu da. Hori dela eta, zurezko, kristalezko, material sintetiko edo aluminiozko ate lerragarriak aurki ditzakegu. Formari dagokionez, bakunak, bikoitzak edo elkarri ukitzen diotenak izan daitezke. Horrelako atek edozein etxebizitzentzat dira egokiak. Etxeen barneko geletan ez ezik, garaje balkoi eta beste zenbait pasaleku funtzionalago bihurtzeko lagungarri dira.

Abantailen artean instalazio errazekoak izatea eta obra handiegirik ez eskatzea. Azken batean, espazioak ekonomizatzea, giro desberdinak sortzea eta etxebizitza osatzen duten atalen artean oreka lortzea ahalbidetzen duen aukera apaingarria da.

ATE LERRAGARRI MOTAK

Ate lerragarri bat aukeratzeko, hainbat faktore kontuan hartzea komeniko da. Hasteko, arrasteko mekanismoa. Sistema tradizional soila edo sistema berri-tzaileagoa, programazio automatikoarekin, aukera daiteke.

Orain artekoan eskari handiena sistema soilekoek izan dute. Merkeagoak dira eta lanerako arrasteko gida bat baino ez dute behar. Duen eragozpen bakarra da atea irekitzen den aldeko pareta ezingo dela espazio apaingarri moduan erabili. Tipologia horren baitan sartzen dira mekanismo soileko hauspodun atek. Zurezko, aluminiozko edo beste zenbait materialezko xafla multzoa da bata bestearekin bisagra bidez lotuak, zeinak, barnealdera eta kanpoaldera jarriko diren elkarren segidan eta atea linean mugituko da. Alabaina, alde batera tolesten den atek pasabidea murrizten du. Gaur egungo mekanismoei dagokienez, ate lerragarriek arrasteko zenbait sistemen eta automatismoen bidez funtzionatzen dute.

ATEA AUKERATZEA

Ate lerragarri egokiena aukeratzeko, hura instalatu behar den tokia eta espazio-behar espezifikoak hartu beharko dira kontuan. Ate lerragarrien materialen kalitatea, dagokion instalazioa eta mantentze-lanak ere garrantzitsuak izan dira eraginkorrak izan daitezkeen eta denbora gehiago iraun dezaten.

Argitasun guttiko etxebizitzetan, material gardenezko nahiz zehargarritzko atek aukera daitezke, konparaziora, beira "klasikoa", tindatua edo ispilu efektua egiten duena, argitasuna gela osoan zehar modu orekatuan bana dadin.

Aldiz, lehentasuna diseinuari ematen bazaio, mota askotako akaberak, koloreak, materialak eta testurak daude, zure atea pieza aparta bihurtuko dutenak eta zure etxean giro berezia sortuko dutenak.



Toki mugatua duten etxeetan edota ohiko atek traba egiten duen kasuetan, tokia hobeki aprobetxa daiteke ate lerragarriak jarri betiko ateen ordez.



Toki handiagoa logelan

Altzari mota eta kokapena dira espazioari probetxua ateratzeko bi faktore garrantzitsu. Horrez gain, logelan argiztapen egokia izateak berebiziko garrantzia du, zabala eta arina izan dadin.

Funtzio anitzeko mobleak erabiltzea deskantsurako gela tarte bat irabazi nahi duenarendako proposa izan daiteke. Kutxak dira aukera hori ematen dutenetakoak. Biltegitratze funtzioa betetzen dutenez, beste espazio bat libre uztea ahalbideratzen dute. Gainera, antzinako jatorria duten artikulua horiek mahai funtzioa bete dezakete, baita aulki funtzioa ere, beharren arabera. Horrelako beste elementu bat ohearen oinaldea da. Batzuetan banku funtzioa egiten du, arropak, irakurketarako liburuak edo gosariko erretilua uzteko. Estilo, material eta akabera ugaritan aurki daitezke: zuntz sintetiko eta naturalak, zura, plastikoa, larrua, lakatua, bernizatua...

Ohatzeak, deskantsurako momentuak emateaz gain, bestelako aukerak ematen ditu eta probetxu ateratzeko modu anitz dira: tapa eraigarria duen kanapea jar daiteke, zeinetan ohatzearen barnealdea libre gelditzen den nahi diren gauzak sartzeko, edo bestela, tiraderak jar daitezke azpialdean, ohearen zabalera eta sakonera osokoak. Bi ideia horiekin bilketarako espazio erabilgarria lortzen da. Bestalde, hobi-ohatzeek bata bestearen azpian gordeta, leku txikiagoan izatea ahalbideratzen dute.

KOLOREA ETA ARGITASUNA

Etxebizitza argiz hornitzeak berebiziko garrantzia dauka. Horrek egiten du etxea zabala eta arina. Leiho handirik ez dagoenean pintura eta koloreek lagun dezakete nahi den argitasuna lortzen. Kolore argiak dira proposenak, eta kontrasteak egin daitezke elementu ilunagoekin, estore eta gortinekin adibidez. Horiek ikuste-sakonera handiagoa lortzen laguntzen dute.

Solairuaren koloreak, hein handi batean materialarengatik, etxe osoan argiaren banaketa edertzen du. Kolore argiak egokiak dira horretarako.

MIGUEL ETXEBERRIA zurgindegia

zurgin lanak orokorrean

T. 948 450 310 • 608 677 997
ELGORRIAGA



Ordoki Industrialdea
ARIZKUN
Tfnoa: 948 453 451
619 514 048

ILLURDI
zurgindegia

Klase guztietako zurgin lanak

- ateak
- tarimak
- parketak
- leihoak
- eskailerak
- teilatuak
- portxeak
- teilak
- isolamenduak

670 30 35 20
680 98 68 36
31790 ARANTZA
Nafarroa

Ariztela

DEKORAZIO
TAILERRA

- Kortinak: Estoreak, bisliloak, panel japoniarrek eta mota guztietako kortinak neurrira egiten dira
- Telak, barrak, mekanismoak... eta kortinak egiteko pieza guztiak salgai
- Ohe eta Etxeko jantziak: maindireak, mantak, koltzak, sehasketako jantziak, haurrentzat ohe jantziak, manteleria, esku-poihalak etab...
- Euskal jantziak: Blusak, gonak, gonagonontzak, alkandorak, artilezko gaitzerdiak, txapelak, abarkak...

Landa Industrialdea, Sulezi 3 LEITZA (Nafarroa)
Tf. 948 61 06 11 • 635 71 39 92



Promociones
Lindutx Baztan, S.L.



Hargibel Eraikuntzak, S.L.

Familia bakarreko etxeak laister eraikitzen hasteko:
Partzela pribatuak 500m²tik hasita · 2 etxebizitza aukera

A R I Z K U N

BAZTAN



Epe laburrean,
2 eta 3 logelako etxebizitzak eraikiko dira
134.500€tik hasita BEZ barne

I T U R E N

MALERREKA



ISO 9001
BUREAU VERITAS
Certification



Etxebizitza libreak eta VPO-ak laister eraikitzeak, garaje eta lokalekin

Baztan Berri, 6 behea · 31700 Elizondo · T. 948 580 344
info@lindutx.com · www.lindutx.com

ESKAILERA KIRIBILAK

Toki ttikian jartzeko eskailerak

Eskailera kiribilak, ohiko eskaileren aldean, abantaila nabarmen bat dute: ez dute hainbertze tokirik okupatzen eta txukun gelditzen dira. Materialei dagokionez ere, aukera ugari dago merkatuan: soilik burdinez edo zurez eginak, bien konbinazioa (burdina eta zura), aluminiozkoak, zementuzkoak, harritzkoak...

Egia da gisa honetako eskailera ez dela aukerarik egokiena etxe klasiko eta handientzat, baina bai giro modernoagoko etxe batentzat non metro batzuk irabaztea garrantzitsua den eta eskaileraren mailen artetik argia pasatzea komeni den. Izan ere, betiko eskailera batek iluntasun gehiago sortzen baitu



larreta
IGELTSU PROIEKTATUA

Bidasoa kalea 36
31780 Bera - Nafarroa
Gorka Arretxea 627.225.514
Juanen Saralea 637.921.299

sukalDeco
bainu eta sukalde estudioa

www.sukaldeco.com
IRURITA - 948 580 666

Mikel UBIRIA

Eskabazio eta garraioak

619 716 322 • 608 779 641 • 948 637 214
Bittiria Plaza, 8 • LESAKA



Iñaki Alzuiet margoak

Pintura dekoratiboa eta industrialak • Dekorazioa: estukatzeak, beladurak
Fatxadak • Barnealdeak
Lakatua eta bernizatuak kabinan • Pladurra
Harri eta egurra arenadorekin garbitzen da

Tel.: 659 862 417 • Itur-ttapi etxea - Landibar Auzoa • 31711 URDAZUBI
pinturas.alzuiet@yahoo.es

Udazken honetan **%35erainoko beherapenak** markarik onenetan



Stockaren kitapena Sarasate Pasealekua, 36

Tafalla, 26 bis
Benjamin Tuterakoaren kalea, 8
Sarasate pasealekua, 36
www.colchoneriagorricho.es

Colchonería
Gorricho 
vive el descanso

MIGELENA

anaiak

Erloju-denda
Bitxi-denda
Sukalde altzariak
Bainuko altzariak
Etxetresnak
Sukaldeko tresneria
Zerbitzu teknikoa

Amezti 1 eta 5 • DONEZTEBE
T. 948 450 126 • 948 450 925
M. 677 525 292 • 689 004 841



DOMOTIKA

Etxe segurua eta eroso

Domotika etxebizitzaren tresna automatizatu eta sistema bakar batean biltzean datza, energiaren kudeaketa, segurtasuna, ongizatea eta komunikazio zerbitzuak hobetzeko asmoz. Hortaz, erran daiteke etxebizitza domotikoa etxebizitza inteligente dela.



Etxe domotiko batean, gailu guztiak sare elektriko-ra konektatuak daude (berogailua, garbigailua...) eta unitate zentral batetik kontrolatzen dira.

Duela urte batzuk domotika zientzi-fikzioa zela pentsatzen bagenuen ere, gaur egun, gero eta gehiago dira domotikaren printzipioak aplikatzen dituzten etxeak. Helburua: pertsonen erosotasuna, ongizatea eta segurtasuna handitzea da.

GUZTIA KONTROLPEAN

Domotikaren definizioz zuzenena robotizatutako etxea izanzen litzateke. Definizio horretatik abiatuta, erran daiteke etxebizitza domotikoa etxebizitza inteligentea dela. Hala, segurtasuna, erosotasuna eta aurrezte energetikoa hobetzeko kontrol instalazio batzuek dauzkaten mekanismo automatizatuak daude guztiaren oinarrian.

Etxeako sistema osoa ordenagailu bati lotuta dago. Garrantzitsua da gailu guztiak leku beretik kontrolatu ahal izatea

GARUN ELEKTRONIKOA

Etxe domotiko edota inteligente batean, gailu guztiak sare elektriko-ra konektatuak daude (mikrouhina, garbigailua, berogailua, aire egokitua, pertsianak, segurtasun argiak zein alarma). Horiek elkarrekin komunikatzen dira, eta unitate zentral batetik kontrolatzen dira. Unitate horrek informazioa lortzen du eta pizteko edo itzaltzeko aginduak kanalizatzen ditu.

Etxebizitzan bertan egoten da, eta eramangarria da toki batetik bertara. Liburu baten neurriko ukimenezko pantaila izan dezake etxeako edozein lekutara mugitzeko, edota hotzgailuan zein etxeako sarreran jar daitekeen display ttiki bat ere izan daiteke.

AMETSETAKO ETXEA

Garun honi esker, etxeako aparatu guztien funtzionamendua programa daiteke: etxetik ateratzerakoan argi guztiak batera itzaltzea, goizetan pertsianak igotzea eguzkiaren lehenengo izpiak sartzeko, etxeakoak musika entzunaz esnatzea, kafe makina martxan jartzea, bainera ur tenperatura egokia-rekin betetzea, energia-konsumoa aurrezteko berogailua gauez piztea.

→ 47. orrialdean segitzen du

Composites Baztan Poliesterrezko lanak



- Inpermeabilizazioak: terrazak, igerilekuak, deposituak...
- Fosa septikoak, kolpe benetzaileak.
- Karrozerien errebestimenduak, furgonetak, erremolikatza, traktoreak.
- Era guztietako molde eta piezak egiten ditugu, produktiorako



Tel-Faxa: 948 581 824
compositesbaztan@terra.es
Zaldubia Ind, Iruña • Dantxarinea
31730 IRURITA

BERATARRA ERAIKUNTZAK



Lan mota guztiak
Gremioen koordinazioa

Jose Ignacio Maritorena Larralde
670 489 337 • DONEZTEBE • BERA

**labetik atera
berria...**

todo&mat
alkain
dena&mat



Azken 50 urteotan gure bezeroen beharrei erantzun asmoz eta kalitate-prezio harreman onena eskaini nahian gogor aritu gara lanean.

Ilido honetan jarraituz, pausu bat gehiago eman dugu sukalde-altzairuen munduan sartuz. Honetarako **NOBILIA** marka aukeratu dugu, diseinu fin eta beraien erabiltzaileen erosotasuna bilatzen duen marka arras ezaguna.

Aro berri honen hasiera ospatzeko, sukalde berriaren eskaera abenduaren 31 baino lehenago egiten duten guztiei muntaia dohain eskainiko diegu*.

INTERNET EDOTA MUGIKOR BIDEZ

Normala den moduan, lan guzti horiek jabea etxean ez dagoela ere egin daitezke, Internet edota mugikor bidez. SMS mezu bat nahikoa da, konparaziora, labean aurreko gauean utzitako haragia prestatzen hasteko, edota oporretan zaudela, lorategia ureztatzen has-tea agintzeko.



Etxea barnetik eta kanpotik kudeatzeko aukera ematen du domotikak

SEGURTASUNA, GUZTIAREN AURRETIK

Etxebizitza inteligenteko teknologien helburu nagusienetako bat etxea espazio segurua bihurtzea da.

Aukeretako batzuk honakoak dira: lapurrak ez sartzeko edota gasa, sua, kea zein ura sumatzeko detektagailuak jartzea. Horiek ihesa sortu duen balbula ixten dute eta erabiltzailea zein larrialdi zerbitzuak jakinaren gainean jartzen dituzte SMS mezu baten bidez.

SARERA KONEKTATUAK KAMERA BIDEZ

Geletako irudi horiek Internet bidez ikus daitezke edozein ordenagailutik. Hala, posible da haurrak egiten ari direna edota lorategia zein egoeratan dagoen ikustea.

INBERTSIO ERRENTAGARRIA

Etxean elementu domotikoren bat sartzeko gastua ez da ikaragarrikoa ere. Sistemen estandarizatzek eta gailu desberdinen prezioa apaltzek (sentsoreak, kontrol moduloak, komunikazio pasabideak, etabar) instalazioa egingarriagoa egiten du. Etxebizitza inteligenteen proiektuak martxan jartzen dituzten enpresen arabera, etxebizitza bat robotizatzeko gastuak berreko prezioa %1etik %3ra handitzea baino ez du ekartzen.



Eskailerak igotzea... ez da oztopo!

plataformak • igogailu bereziak • ahulki bereziak...

Añorga-Ixiki, 14 behea · T. 943 368 781 · 671 073 888

www.behetik.com

LUR-LAN eskabazioak

- Eskabazio lanak orokorrean
- Lur ateratzeak, zanpatzeak...

Kaxerna ondo, 3
Tel: 948 630 449
Mug: 653 017 967
BERA



aurrerakada
lan bertikalak
(indemiarik gabe)

Margo lanak
Fotxoden konponketak
Gorbiketak
Tximinien gorbiketak

aurrerakada@hotmail.es

616.413.660
647.673.080

Donibane kalea, 18
Sunbilla 31791 Nafarroa

BALLARENA CONSTRUCCIONES, SL.

ERAKUNTZA : ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA, ERREFORMAK
PLADURREZKO LANAK ,
ISOLAMENDU TERMIKO AKUSTIKOAK

INSTALAZIOAK : ITURGINTZA, ELEKTRIZITATEA,
KALEFAKZIOA,
AIRE- EGOKITUA, GEOTERMIA

SANTIAGO 608 ELIZONDO (NAFARRUA)
TEL/FAX 948-45 23 95 mug 647 65 89 95 / 647 65 89 92
ballarena@telefonos.es

ke kinttako
eraikuntzak s.l.

31754 Goizueta (Nafarroa)
Tl. 948 514 036
Mh. 653 709 495-96

IGELTSEKITZA
OROHAR

ANTZUZELA S.L.

Aintzinaldeak, angeluak, pareta-aitzinakak
leihoak, ateak, arkuak, pilareak,
tximiniak, erlatzak, moldurak
zokaloak, hilariak, marrazkiak

Tel. 948 631 317 • Faxa. 948 631 587
Inongo etrep. BERA
www.antzuzelal.com • info@antzuzelal.com

arteka
arkitektura arquitectura

Juan Mari Aleman - Patxi Valer

Etxebizitza berriak
zaharberritzeak
nabeak/lehorrak...

Tel. 948 580 610
Fax 948 452 434

Plaza Doctor Arana 11A
31704 Elizondokoan
Navarra/Navarra

LABORRA LARUMBE
arkitektoak

T. 948 580 122 • F. 948 581 888
Santiago, 54-1 ELIZONDO
info@laborra.com • www.laborra.com



JOISA

AROTEGIA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK
MAKINA ERREMINTA

- Barandak
- Balkoiak
- Hesiak
- Forja artistikoa...

ADU 16 Ind. - LESAKA
Tel-Faxa: 948 638 150
Mug.: 648 774 117



Gremio guziak koordinatuz eta
proiektuaren ardura hartuz, zure
igogailua instalatzen dizugu

dena
geure esku utz ezazu!!

suteia
instalazioak

ELIZONDO
M.649 699 820-10
T/F. 948 452 557
suteia@suteia.com

KONTUAN HARTZEKO FAKTOREAK

Teilatuen eta fatxaden kolorea, energia aurrezteko gakoa

Fatxaden eta teilatuen kolorea kontuan hartu beharreko faktorea da eraginkortasun energetiko handiagoa lortu nahi bada. Eskualde beroetan, beroa xurgatuko ez duten kolore argiak erabiltzeko joera dago, aldiz, klima hotza egiten duen zonetan, kolore ilunak dira egokienak.

Pinturaren kolorea zenbat eta argiagoa izan, "irradiazio-beroa" deituaren xurgapena orduan eta tikiagoada. Horrela, kolore zuri edo argiak irradiazio-beroa %28a xurgatzen du, gutxi gorabehera. Bien bitartean, beste koloreek, adibidez, marroiak edo berde argiak, %63 islatzen dute eta beltzak %94 inguru.



Toki menditsueto etxeen egitura eta koloreek ez dute kosta ingurukoekin zer ikusirik.


Kontuan hartu behar da ere gainazal zimurrek hobeki xurgatzen dutela beroa eta gakoa etxearen orientazioa dela. Eguzkiak zenbat eta perpendikularago jo, erreplejua tikiagoa izanen da. Ekialdera orientatutako fatxadak goizeko zortzietan izanen du irradiazio-berorik handiena; aldiz, mendebaldera orientatutakoarentzat unerik beroena arratsaldeko laueta izanen da. Beraz, bizi garen eskualdeko klimaren arabera, pintura-mota bat edo bestea erabiltzea eta orientazio bat edo bestea ematea komeniko da. Horretarako, aski da Mediterraneoko herrietako etxebizitza tipikoen kolore zuriak herri nordikoetan karakteristikoak diren kolore biziagoekin alderatzea.

BEIRA JARTZEA

Azken aldian, gero eta gehiago hartzen dira kontuan beirez hornitutako gainazalek energia aurrezteko eskaintzen dituzten aukera ugariak. Beirez hornitutako gainazala zenbat eta handiagoa izan, argi naturala hobeki aprobetxatzeaz gain, berokuntza-sisteman energia aurreztuko dugu. Horretarako, geruza bikoitzeko beira isolatzailea erabili behar da, barneko tenperaturari eusten baitio berotegi-efektu moduan ezagutzen denaren bitartez irradiazio-beroa aprobetxatzen duen bitartean. Baina eraikina toki beroan baldin bada eta lortu nahi dena barneko tenperatura jaistea bada, hobe izanen da beira antitermikoek eskaintzen dituzten abantailak aprobetxatzea, argiaren gehien gehiena islatu egiten baitute.



Beirazko teilek ere aukera berriak ematen dituzte.



RUIZ DE LARRINAGA S.L.

**Zurgintegia
Sukaldeak
Aluminioak
PVC**

Ordoki Ind. • ARIZKUN
rdelarrinaga@hotmail.com
637 59 39 96 - 948 45 33 87



H. LOPEZ

FONTANERÍA • ITURGINTZA
Santiago 93, Elizondo
Tel. 948 452 126

ZERAMIKA



TXIMINIAK



MANPARAK



KOMUNAK





Neurrira egindako leihoak
Diseinu eta modelo ezberdinak
Banakako soluzioak
Isolamendu termiko eta akustikoak
Energia aurrezpenak

Ordoki Industrialdea • ARIZKUN
Tel. 948 453 259 • Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa salmenta eta instalazioa



OBRA BERRIETAN ETA BERRIKUNTZETAN ESPEZIALIZATUAK

NARBARTE

OSPAKIZUNAK → EKITALDIAK LARUNBATEAN ETA IGANDEAN

San Andresak ospatuko dira larunbat eta igande honetan

Herri kirolak, bazkaria, dantzaldia eta mus txapelketa izanen dira

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, aile-gatu zaizkigu San Andresak, eta behar bezala ospatzeko herriko gazteek astebururako egitaraua antolatu dute. Larunbat eta igande honetan ospatuko dira, azaroak 28 eta 29.

Larunbat eguerdian, 12:00etatik aitzinera, herri kirolez goatzeko aukera egonen da; ondotik, herri bazkariarekin emanen zaio segida eta arratsaldea alaitzeko MIKEL SALABERRI akordeoilaria egondan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Euriteek kalteak eragin dituzte

Joan den azaroaren 10ean egindako euriteak herriko bide batzuetan hainbat kalte eragin zituen. Goiko argazkian herriko zubiak egun horretan zuen itxura ikusgai.

Igandean, berriz, aitzineko egunak utzi-

tako bestondoa goxatze, mus txapelketa

eginen da arratsaldean, 16:30ean.

NEKAZARITZA

Nekazarien egoera salatzeko manifestazioarekin bat egin du EHNEk

TTIPI-TTAPA

Nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreak inoiz bizi duen krisi larri honen aitzinean, EHNE-Nafarroa sindikatua motorrak berotzen hasi da eta hala, azaroaren 20an kontzentrazioak egin zituen Nafarroa osoan. Nekazari eta abeltzainek jasaten dituzten ekoizteko kostu garestiek eta jatorrizko prezio baxuek nekazaritza errentan eragin duten murrizketa salatu zuen EHNEk. Horrez gain, ASAJA, UPA eta COAG estatuko nekazaritza erakundeek, joan den larunbaterako, azaroak 21, Madril-en Nekazaritza txiro-tzen ari da, mugitu leloarekin deitua zuten manifestazio deialdi bateratuarekin ere bat egin zuen eta harat joanen zela iragarri zuen.

**Kulturkari**
dizainagrupoa

Logotipoen diseinua
Tarjeten diseinua
Triptikoen, folioen, karpelen,
guztizak, fakturen...
Kartelak, egutegiak
Irudi korporatiboa
Eskatze aurrekontu konpromisoak gabe!
Adreina 12, 31100 Iruia. Tel. 948 433 408. kulturkari.com

Alberto RETEGI
abokatua

948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

**estatxa**
centro náutico

BIDASOAKO AKADEMIA NAUTIKOA
Itsasketarako tituluak lortzeko Eusko Jauriaritzak homologatutako akademia

Itsasontziko patroia:

- ONP (Oinarriko Nabigazioko Patroia) PNB
- LOP (Laketontziko Patroia) PER
- Yateko patroia

Donostia kalea • Sokoa Merkataritza gunea, 10 • HONDARRIBIA
T. 629 070936 • www.estatxa.com

GOIZUETA

KULTURA → OSPAKIZUNAK

Ohiko feria eta parranda izugarria bat eginik aurtengoan ere

Plaza azienda eta postuz eta frontoia bazkaltiarrez beteko da larunbatean

Esteban AROTZENA

Honelako egun batek bereak dituen ohiko osagaiak (artisaauak, azienak, salmenta-postuak...) etaparrandaederki uztartuko dira berriz ere larunbat honetan ospatuko den Feria Egunean. Horretarako, ezinbesteko lagungarri izanen da aurtengoan ere ehunka lagun elkartuko dituen herri bazkaria, sagardo, ardo eta likorez bustitako baberna gorritz eta zokor erreaz enpo egindakoan, edozein baita parrandazale.

Zerriaren kurrinkek irekiko dute feria 10:00 jo bezain pronto. Handik aurrera izanen da zero-

si, zer dastatu eta zer ikusi: sagardo-egileak, artilezko koltxoijotzea, txingalehiaketa eta Barrene txeko belarsoroan eginen den ardi zakurren erakustaldia, esaterako.

14:30ean hasiko den herri bazkariak markatuko du festaren muga. Bazkalondoren dantzaldia izanen da frontoian Ordoki musikariaren eskutik. Gaztetxean, berriz, rock kontzertua 19:00etan. The Zepo eta Syndrome de Treaher taldeekin. Goiz osoan lanean ariko diren herriko trikitilariak osatuko dute eguneko musikarien zerrenda.

Gaiarekin bukatzeko, bidezkoa da Udalaren babespean feriaren antolatzaileen izenak aipatzea: Kultur Taldea, Umore Ona, Gazte Asanblada, Gurasoak, Presoen Aldeko Taldea, Gazte Independentistak eta Jubilatuen Elkarteak.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Iker Salaberria Errioxan txapeldun

Ez dakigu Titin III.aren maila hartuko duen inoiz Iker Salaberriak, baina orain duen pilotarako abileziak txapel bat baino gehiago utzi dizkio. Argazkia Errioxako hirugarren torneoan ateratakoa da, txapeldun ater baitzen orduan ere. Benjaminetan, Errioxako Cordon II.a lagun zuela, Salaberriak eta biek 18-16 irabazi zieten Ruiz errioxarrari eta Alberdi azpeitiarrari.

Xalto Eguna eta Xalto Saria

San Andres Egunaren bueltan, urtero antolatu ohi da festa Andres NARBARTEN izena daraman herriko eskolan. Aurten, ostiral honetan, hilak 27, bertsoarekin zerikusa duten zenbait ekitaldiz gain, Trikuharri antzerki taldearen emanaldia izanen da. Larunbatean, berriz, Nafarroako

Bertsozale Elkarteak bi urtetik behin antolatzen duen Xalto Sariaren edizio berri bat ospatuko da. Nafarroako 16 bertsolari gazteren arteko kanporaketa izanen da aurrena, 11:00etan hasita. Sei onenek 18:00etan jokatu den finalerako txartela eskuratuko dute.

DATUA

500

LAGUN

elkartu ziren joan den urteko Feria Eguneko bazkarian.

?

Baialtzinikin...

Gaur egun Oartzunen bizi den Irati Odriozola goizuetarrak Gipuzkoako Kantu Txapelketa irabazi berri duela banakako eta binakako modalitateetan?

EGUTEGIAK eta BISITA TXARTELA

Kartulina berezia 300gr. - koloretan bi aldeetatik - Distira akabera

Ez hutsik egin eskaintza berezi hau!

	100	200	500	1000
Egutegiak (8,5 x 5,5cm)	70€	85€	110€	150€



Andutzeta, 12 - 31760 Etxalar - Tel. 948 635 458 - Faxa 948 635 457



OSPAKIZUNAK → SAN MARTINAK

San Martin ez dago uzteko!

Egutegia
egiteko argazki
lehiaketa ere
abian da

Taloek ez dute
inoiz huts egiten
San Martinetan.



Ainhua ANSA

San Martin inguruan, herriko zaindariaren omenez, orain urte asko ospatzen omen ziren festak. Guraso zaharrak ez dira horretaz ongi akordatzuten, baina gaztetxoek hala erabakita (Olenzerotan etxez-etxe jasotako diruarekin) eta Udalaren laguntzarekin, San Martin gogora ekartzen da festa polita antolatuz.

Aurten ere arratsalde bateko festa antolatu zen azaroaren 7an. Aurrena Txontxongiloak izan ziren San Roke Elkarteak. Eta 19:30 arimatuta hasi zen Udaletxeko ganbararen, Xauxarko Jabier Legarretak mimo guztiz montatu duen argazki zaharrez osatutako proiektzioa. Herriko toki, jende eta baseriak azaltzen diren cd-a eta dvd-a edozeinek graba dezake Mairtzenean edo Beltso-ko Bordan eskatuta.

Bi emanaldiak bukatuta, eta meztatik jendea ateratzerako, taloak prest ziren San Roke atarian.

II. argazki lehiaketa

Herriko jendeak, poliki-poliki, argazkiak jantzi ditu Kontsejuko pareta-
tan. Han ikusteko jarriak dau-
den argazkietatik dato-
rren urteko kalendariora
egiteko aukeratuko dira
behar adina argazki. Au-
keratutako argazkien
zerrenda hurrengo TTI-
PI-TTAPAn argitaratuko
da! Mila esker parte har-
tu duten guztiei!!!

Rural Kutxaren Gordailu Berezia

Babestu zure inbertsioa

Inbertsioaren %25

%4,55 UTS
%4,50 URTEKO INTERES-TASA NOMINALA
6 hilabeteko epean

Inbertsioaren %25

%4,50 UTS
%4,50 URTEKO INTERES-TASA NOMINALA
12 hilabeteko epean

Inbertsioaren %50

%80 gaitasun erregulartzearen eta
gaitasun erregulartzearen bidez
erregulartzearen gaitasun.
EPEMUGAN KAPITALAREN %100 BERMATUA
36 hilabeteko epean

* Gaitasun erregulartzearen irratia: 5,30 (%4,27 UTS)
Aldizkariak: Salberritu, Sarrabatu, Reparat eta Gaitasun.

**Ekintza honak 2009ko abenduaren 31a bitarte
edo jaurkipena egarri arte balioa du.**

www.rutxakutxa.com
Tel: 900 910 900

nire aukera

LEITZA

UDALA → HIRIGINTZA

40 etxebizitza babestu egingen ditu Udalak Landa Goikoan

Azken 30 urteotan ez da babestutako etxerik egin

Asier IMAZ

Herrikoek bertan gelditzeko aukera izan dezaten, etxebizitzak egingen ditu Udalak: Landa Goikoan 40 bizitza eta Behekoan, bigarren fasean, 216. Horietatik 166 Babes Ofizialekoak izanen dira, eta 50 libreak. Aurreko legegaldian 321 etxebizitzako beste proiektu bat zegoen mahai gainean, baina Udal Talde berriak beste proposamen bat aurkeztu zuen, eta udal talde guztiek onartu zuten.

LANDA GOIKOAN

Landa Goikoan egingen diren 40 etxebizitzetatik 24 babes ofizialekoak izanen dira eta 16 tasatuak. Xabier Zabalo alkatearen hitzetan, «leitzar gazte jendea herrietik joaten ari zela ikusten genuen. Bestalde, etxebizitza libreak bakarrik daude herrian, eta hauek oso garestiak dira. Azken 30 urteetan Leitza ez da babestutako etxe bakar bat ere egin».

LANDA BEHEKOAN

Landa Behekoan egin nahi diren 216 etxebizitza



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

Biribilgunean zirkulazioa zabalik

Lopeneko Iturria zegoen lekuan, biribilgunea egiteko lanak amaitzeaz dira. Dagoeneko bi noranzkoetan zabalik dago errepidea.

tzen egitasmoa «konplikatuagoa» da alkatearen arabera. «Katastroarekin arazoak daude eta hirigintza aldaketek luzeago joko dute». Halere, 216 etxebizitzak ez dira denak aldi berean egingen. Eskatzen arabea, baizik: «Proiektu hau garatu aurretik hamar urte ere pasa daitezke. Helburua ez da etxebizitza guztiak bat-batean egitea, eraikitzeak aukera hori edukitzea baizik».

Izen-emateko zerrendak «laster» irekiko dira.

Konposta egiteko

Etxeko konposta egiteko programa pilotua abiatu da herrian eta inguruan. Joan den ostira-



ARGAZKIA: AURRERA PILOTA ESKOLA

Jon Jaunarena 22 urtez behehitikoetan Nafarroako buruz buruko txapelkun

Nafarroako klub arteko txapelketan, 22 urtez behehitiko buruz buruko kategorian, txapelkun izan da Aurrerako Jon Jaunarena. Azaroaren 7an Labriten jokaturako finalean, 18 eta 5 irabazi zion Txarutako Asier Zarantoni.

lean bukatu zen izen-emateko epea, eta ostegun honetan, ekimenari

buruzko azalpenak ematen dira Herriko Etxean, 19:30ean.

FLASH

Kultur arteko jaialdia abenduaren 12an

Leitzaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Inmigrazio Programak dantza eta musika jaialdia antolatu du abenduaren 12rako. 17:30ean hasiko da ospakizuna, zine aretoan, eta herriko dantzariak gaitin, Ekuador, Senegal, Errumaniako ijitoak eta Ekitaldeko taldeak parte hartuko dute.

EKITALDI GEHIAGO

Gaztetxoek ere izanen dute gozatzeko aukera. Abenduaren 13an, Zirika Zirkus taldeak antzerkia eskainiko du, 18:00etan. Abenduaren 18an, Kiki eta Moko pailazoen *Txintxilin bakea* egin eskainiko dute eskolan, 15:00etan. Abenduaren 20an, azkenik, *Olentzero eta oparien ordua* filma izanen da ikusgai 17:00etan.

Ordenagailuan ere euskaraz

Kax-Kaxeuskarataldak *Ordenagailuan ere euskaraz* ekimena antolatu du ostegun honetarako, hilak 26. 19:00etan izanen da Institutuko Informatika Gelan.

Hilabeteroko buletina egin nahi du Kultur Taldeak

www.leitzakultura.net web orria herriko argilean arteko gune bihurtu nahi du ALKE Kultur Taldeak, eta hori lortzeko, hileroko buletin informatiboa egingen du. Hilabetero, eta behar bada maizago, ekitaldiak eta bestelako informazioa bidaliko da posta elektronikoz. Buletinajasetzeko webgunean harpidetza egin behar da.

2 SARRERA
BIDALI titi saskia
Artic
Izotz jauregia
5767

HONDAKINEN KUDEAKETA → KONPOSTAJEA

Etxean konposta egiteko ekimena abiatu da herrian ere

Ostegunean aurkezpena egingen da Leitzan

Juana Mari SAIZAR

Etxeako konposta egiteko programa jarri da abian Mendialdean eta esperientzia pilotu bat egingen da horretarako. Etxean sortutako materia organikoa konpost bihurtzeko prest dauden ahalik eta pertsona gehien biltzeko epea ireki zen horretarako, baina lerro hauek idazterakoan ez genekien zenbatek emana zuten ize-na.

Aurkezpen saioa ere egingen da Leitzan, Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko parte-hartzaileei zuzendua, eta bertan konposta egiteko kit

bat banatuko da, konpostajeari buruzko oinarritzko alderdiak eta proiektu hau azaltzeaz gain. Parte-hartzaileek jasoko duten formakuntzaren barnean, berriz, trebakuntza saio bat eta konposta egiteko gida emango dira.

Aurkezpenera agertu nahi duenak Leitza-ko Udaletxera joan beharko du ostegun honetan, azaroak 26. Saioa 19:30etik 21:00etara bitartean egingen da.

Interneterako gunea laster zabalik

Dirulaguntza jaso eta urte bukaerarako irekiko dute batzar aretoan Interneterako gunea. Ordutegia idazkariaren berbera izango da, 08:00etatik 15:00etara. Etorkizunera begira,



ARGAZKIA: ANA GOÑI

Gurasoak Gabonetako Jaiotza prestatzen

Gutxi gelditzen da Gabonetarako eta dagoeneko prestaketak ere hasi dira. Guraso Elkarteko kideak, adibidez, Jaiotzaren irudi zaharrak berritzen ari dira, eta aurtengoan berriak izanen diren beste irudi dexente ere margotzen ari dira Ikulu zaharrean.

udaletxeko lehenengo solairua berritu eta pres-

tatzen dutenean Interneterako gunea han

kokatzea da Udalaren asmoa.

edredoi fundak
albormozak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Edredoi-azal nordikoak
eta edredoietan espezilistak

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

BAZTAN

HEZKUNTZA → AZPIEGITURAK

Eskolaren arazoa konpontzeko protesta egin dute Iruritan

Eskola duina lortu arte borrokan segituko dute

TTIPI-TTAPA

Iruritako eskolan duen espazio arazoari konponbidea eskatuz segitzen dute herrian. Gurasoek lan-taldeak sortuak dituzte, eta arazoari ahalik eta zabalkunde handiena eman nahi diote. Eta horretan ari dira. Eskualdeko hedabideetan ez ezik, Euskal Herriko prentsa eta telebistetara ailegatu baita iruritarren protesta. Horrez gain, azaroaren 19an eskolaren aitzineko aldean bildu ziren protesta egiteko, eskola berri bat nahi dutela errepikatu zuten: «gure seme-alabendako eskola duin bat lortu arte lanean eta borrokan segituko dugu».

Aitzineko TTIPI-TTAPAan aipatu bezala, oraingo egoitzaren baldintzak «arras txarrak» direla diote gurasoek, eta gainera, «jolastokia herriko plaza da eta aldi berean bidea ere bada, eta bertatik kotxeak pasatzen dira. Horrek leku arriskutsu bihurtzen du».

Eskola berria eraiki-ko zela hitzartu zen, baina «krisia dela aitzakia, momentuan ez da eskolako proiektua eginen eta ez dakitela noiz eginen den jakinarazi digute».

Metaziriren ale berria

Hamabigarren alea kaleratu du *Metaziri* aldizkariak. Hainbat gailandu dituzte aldi honetan ere: Aroztegia Jaurregia; Kepa Arizmendi, Baztango hiltegia, Foru Poliziaren komisaria, Baztango ordenantzak...



ARGAZKIA: ALICIA ESKUDERO

Azaroaren 19an eskola atarian prentsaurrekoa eskaini zuten gurasoek eta Pello Obregozo Iruritako alkatea.

Hiru eurotan toki hauetan eros daiteke: Arizkun Dolaetxean; Elizondon Axular, Ilargi eta Intzan, Erratzun Altxuko dendan eta Zubi Puntan, Lekarozen ikastetxeko kafetegian eta Oronoz-Mugairin Oskorri.

'10 egun miragarriak'

Izen horixe paratu diote Bertan merkatar

elkartekoek azaroaren 23az geroztik abian duten kanpaina berriari. Abenduaren 2ra bitarte iraunen du ekimenak, eta jendeak Eguberrietako erosketak aitzineratzea da helburua, eta bide batez, hemen eros-tea. Hamar egun hauetan erosketak egiten dituenak deskontuak izanen ditu Bertaneko hainbat komertziotan.

Lau hektarea erreak Orabidean

Sute batek lau hektarea erre zituen azaroaren 14an Orabidean. Bi hektareatan sasiak zeuden, eta bertze bitan zuhaitzak. 14:00 aldera jaso zuten suhiltzaileek deia, eta 16:30erako kontrolpean zuten. Nafarroako Gobernuak suhiltzaileek eta Oronoz-Mugairikoek itzali zuten.

Batzordeetan aldaketak egin ditu Udalak

Udalak ahobatez onartu ditu Informazio Batzorde Iraunkorretan proposatutako aldaketak. Guztietan batzordeburua Virginia Aleman alkatea izanen da. Eta arloz arlo, hauek izanen dira batzordekideak.

•Barne araudiak, ogasuna eta kontu bereziak

Delegatua: Santi Aldako. Gainerakoak: Martin Garde, Isabel Bidart eta Jose M^a Garmendia.

•Hirigintza eta Etxebizitza

Delegatua: Agustin Olabe. Gainerakoak: Santi Aldako, Isabel Bidart eta Eduardo Etxabarri.

•Abeltzaintza eta Mendiak

Delegatua: Ion Dufurrena. Gainerakoak: Remigio Lizasoain, Jose M^a Garmendia eta Miguel Angel Aldea.

•Herri Lanak eta Ingurumena

Delegatua: Remigio Lizasoain. Gainerakoak: Santi Aldako, Leopoldo Jaen eta Eduardo

Etxabarri.

•Osasuna, Gizarte Ongizatea, Kirola eta Gazteria

Delegatua: Lander Santamaria. Gainerakoak: Martin Garde, Isabel Bidart eta Jose M^a Garmendia.

•Kultura, Turismoa, Hezkuntza eta Euskera

Delegatua: Martin Garde. Gainerakoak: Agustin Olabe, M^a Carmen Iribarren eta Isabel Bidart.

•Gizarte eta ekonomia

Zinegotzi delegatua: Lander Santamaria. Gainerakoak: Martin Garde, Jose M^a Garmendia eta Leopoldo Jaen.

BERTZE ERAKUNDEETAKO ORDEZKARIAK

•**Bertizko Partzuergo Turistiko**: Virginia Aleman titularra eta Martin Garde ordezkaria.

•**Zahar-Etxea**: Virginia Aleman lehendakaria. Ordezkariek: San-

ti Aldako, Isabel Bidart eta Lander Santamaria.

•**Osasun Etxea**: Virginia Aleman lehendakaria. Ordezkariek: Santi Aldako eta Isabel Bidart.

•**Ikastetxeak**: Martin Garde.

•**Ehiza eta arrantza elkarte**: Remigio Lizasoain, Jose M^a Garmendia eta Ion Dufurrena.


•**Kinto eta Erregerenako Mankomunitateak**: Virginia Aleman, Remigio Lizasoain, Ion Dufurrena eta Jose M^a Garmendia.

•**Jorge Oteiza Museoa**: Virginia Aleman, Agustin Olabe, M^a Carmen Iribarren, Lander Santamaria.

•**Bai Euskarari**: Martin Garde eta Angel Aldea.

•**Cederna-Garalur, Animsa eta Nafarroako Udallerrien eta Kontzejuen Federazioa**: Virginia Aleman eta Santi Aldako.

•**Lekarozko area berriaren jarraipen batzordea**: Lander Santamaria eta Jose M^a Garmendia.



ERREPIDE BERRIA → IRURITA-ELIZONDO SAIHESBIDEA

Saihesbide berriak kaltetuko dituen ondasunak eskuratzeko 794.498 euro

Horrela onartu
du Nafarroako
Gobernuak

DATUA

13

MILIOI EUROKOA
da obren
lizitazio-aurrekontua.

TTIPI-TTAPA

Iruritatik Elizondora joanen den saihesbide berriak ukituko dituen ondasunak eskuratzeko 794.498 euro onartu ditu Nafarroako Gobernuak. Azaroaren 16ko bilkuran erabaki zuen hori. Proiektua, berriaz, martxoan baimendu zuen, eta obren lizitazio-aurrekontua 13.029.078 eurokoa da.

5,8 KILOMETROKO BIDEA

Irurita eta Elizondoren iparraldetik barna eginen da bide berria, eta 5.800 metro izanen ditu. Arraiozko saihesbidearen akaberan hasiko da, hor eraikiko den biribilgunearekin. Segidan, Iruritako erreka gurutzatu eta Oharizen dagoen arrain-haztegiari eragin gabe, NA-4405 gainetik gurutzatuko du.

Errepide horrek oraingo N-121-B Oharizekin lotzen du.

Trazatuak trenbide zaharren plataforma aprobetxatuko du. Baztan ibaira iristean, bidezubi baten bidez zeharkatuko du, eta hortik iparraldera egiten du, eta NA-4405 eta NA-4403 berriro zeharkatuko; azken hori zeharkatzeko biribilgune bat eraikiko da.

Bordatxuri muinoa zeharkatu ondotik, Elizondon sartzeko biribilgune bat aurreikusi da. Saihesbideak Elizondo eta Elbeteko herrigunetik iparraldetik inguratuko ditu. Eta Elbeten sartzeko bertze biribilgunea ere egiten da, eta saihesbidea N-121-B errepidearekin lotzen duen biribilgune batean akituko da.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ARANTXA GAMIO

San Martinak Berroetan eta San Andresak Zigaurren

Joan den azaroaren 7an egin zen Berroetan San Martinen omenezko besta. Gure Ametsa elkartearen herritar andana bildu zen afaltzera, eta ondotik herriko trikitilariak alaiturik giro ederra izan zen goizaldera arte. Azaroaren 11n, berriaz, meza izan zen. Duela 40 urte inguru aldatu ziren San Martinen omenezko bestak Mendekoste garaian ospatzera, eguraldia izan omen zen arrazoietako bat. Bertzalde, larunbat honetan, azaroak 28, Zigaurreko San Andres besta ospatuko da: 11:00etan mus txapelketa egiten da Herriko Ostaturen (sari eta guztia!); eta 14:00 aldera bazkaria Agerralde akordeoilariak alaituta izango da. Herritar guztiei gonbidapena luzatu nahi da eta bazkarira apuntatzeko epea asteazken hau, azaroak 25, da. Elkarteko zerrendan izen-eman eta maiordomoren bati 10 euroko fidantza eman behar da horretarako.



UTZITAKO ARGAZKIA

100 urte bete ditu Oronoz-Mugairiko Patrocinio Perezek

Denbora laburrean bigarren baztandar batek ehun urte bete ditu: Oronoz-Mugairiko Patrocinio Perezek, hain zuzen. Bere mendeurrena ospatzeko Arkupeak Elkarteko kideek eta herriaren izenean, Bittor Elizagoien alkateak oroigarria eman zioten azaroaren 15ean. Alkateak bertsoak ere kantatu zizkion eta Baztango Udaleko zinegotzia den Lander Santamaria ere han izan zen, eta zapi bat oparitu zion. Burgosen jaioa, duela 70 urte etorri zen Baztanera. Clementino Santamariarekin ezkondu zen, eta 10 seme-alaba, 11 biloba eta zortzi birbiloba ditu.

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iñuñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

HERRIZ HERRI
ETXEN
EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Maixen eta Véronique
SARA

ARMUA JATEKOA
T: 948 509 131
Zugamendiak erag. 3 eta
URGAZUE

MENDIALDE JATEKOA
T: 948 453 060 · AMAIUR
www.mendialdea.com

ZUGARRAMURDI

SORGIN EHIZA → 400. URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK

Inkisizioak eraildako herritarren omenez egin den kantaldia arrakastatsua izan da

Ikuskizun ederra eskaini dute lau emakumezko

Koro eta Margari

Arras kantaldi berezia ikusteko aukera izan genuen azaroaren 8an Sorginen Museoan. Egun horretan 399 urte bete ziren gure hainbat herritarrek zigor haundiak jaso zituztela, sorginak zirela aitzaikiarekin.

Beren omenez antolatua zen kantaldia, eta bertan kantu diferenteak, goxoak eta hunkigarriak eskaini zituzten Maddi Oienart, Anari, Maialen Lujanbio eta Judith Monterok. Gainera, usaian kantaldietan aunitz ikusten ez diren musi-



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Kantaldiko protagonistak saioa akitu ondotik.

ka-tresnen laguntza izan zuten: saxofoia, klarinetea, biolontxelo eta musika esperimental.

Ikusleen aldetik ere arrakasta pulita izan zuen kantaldiak, 70 lagun

inguru bildu baitziren Museoan.

Kontzertua ortziralean

Bertze gisako musika doinuak aditzeko

aukera izanen da ortziral honetan, hazilak 27, herrian. Doneztebeko Zenzerock talde mitikoak kontzertua eskainiko baitu Graxiana aterpean, 22:30etik aitzinera.

MUS TXAPELKETAK

Gisa beran, erran behar da, hazila eta abenduko ortziraletan aterpean Mus txapelketa azkarrek antolatzen direla, eta ortziraletan zerbait gehiago antolatuta baldin bada (Zenzerocken kontzertua adibidez), larunbatera pasako dela txapelketa.

Kantu Zaharren Eguna Dantxarinean

Aitzineko alean iragarri bezala, larunbat honetan, hazilak 28, Kantu Zaharren Eguna egingen da Dantxarinea-ko Lugarana jatetxean. Seigarren edizioa izanen da aurtengoa, eta euskal kantu zaharrak gogoko dituenak aukera ezinhobea du.

**ferreteria
Quevedo**

**TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK**



Santiago 31 · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 234 · Faxe: 948 581 210

“

NIRE BIZITZAN ZER IZAN DEN HUNKIGARRIENA? ITZULTZEA

ABENDUAREN 3a. NAFARROAREN EGUNA

”

Aspaldi joan nintzen itxasoz bestaldera, beste zenbait bezala, bizimodu hobearen bila. Desberdina zen dena, eta gurean baino askoz ere handiagoa. Baina herrimina sentitzen nuen: gure alorren usaina, goizeko freskura, negu hotzak. Lagun onak egin nituen, jendea maitatu. Haiek ere maitatu ninduten.

Baina nire etxearen, nire jendearen, gure jan-edanaren falta sumatzen nuen. Eta noizbait ere, itzultzeko ordua ailegatu, eta gure lurrera etortzea erabaki nuen, zalaparta handirik egin gabe, oso egun berezian: Nafarroaren Egunean.

Sancho Muro

Sancho Muro, emigrantea, duela 76 urte Nafarroatik Argentinara joana.



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAREN EGUNA'09

SENPERE

MERKATARIAK → EKITALDIAK ABENDUAN ETA URTARRILEAN

Saltzaileek ideia ainitz dute giro ona piztu eta herriari bizia emateko

Abenduan jokoak eta urtarrilean dantzaldia antolatu dituzte

Franck DOLOSOR

Senpere ez du logela bilakatu nahi. Holakorik ez dute entzun nahi herriko saltzaileek. Berriki, beren lana ezagutarazteko gisan, hogoi bat saltzailek besta arrakastatsua apailatu dute Inharrea etxaldean. Toki berean, herrian barreatuak diren lanbideak ezagutu ahal izan dira: eskulanak, iturginak, berina egilea, barazki ekoizlea edo auto saltzailea...

Heldu den abenduan, joku bat prestatuko dute. Saltoki bakoitzean galde bat egingen zaie bezeroei eta errepusta xuxena emanen duenari puzzle zati bat eskainiko zaio. Puzzle osoa osatuko dutenek hogoi sari irabazten ahalko dituzte. Urtarrilaren 16an, aldiz, dantzaldi bat egingen da.

BRIGITTE EUSKALTZALEA

Idea hauen gibelean beti erne ibilki da Brigitte Ryckenbusch. 2003-az geroz, egurrezko, igeltsuzko eta larruzko esku lanak prestatzen eta saltzen ditu karrika nagusian. Emazte alegera hau duela hamar urte etorri zen gure herrirat. Eskuz egiten duena bere baitarikikasi zuela dio, irriz... Izan ere, 22 urtez gizarte segurantzako

idazkaria izan zen. Bidez arrunt aldatu da, baina, gisa batez, sail berean segitzen omen du maitate baitu jendeekin solas egin eta proiektuak prestatzea. Lanak ez baitio beldurrik ematen, herriaren aldean egitearen parioa egin zuen gan den urtean. 2008ko bozetan, herriko hautetsi izendatua izan zen anderea auzapezaren zerrendan. Lan hori ez zaio batere

arrotza bi legealdi egin baitzituen jadanik bere sorterrian, Angers hirian, Anjou eskualdean. Senpererat etorri zelarik eralduna zen arrunt Brigitte, baina berehala deliberratu zuen euskara ikasiko zuela, eta orain, gure mintzairak ez du sekreturik harentzat. Gainerat, euskara ikasteaz gain, irakasten hasi zen duela hiru urte, hori bai beti umore onean...

Eskola publikoa hetsia

A gripea dela eta, eskola publikoa hetsia izan da zonbait egunez. Prefeturak dio neurri hori hartu dutela gero eta haur gehiago eritu baitzen hazil erditsuan.

INRAko ikerlariak Kergelen uhartetan

Hegoaldeko hemisferoan uda hastekotan baita, Lapurdiko bortz ikerlari Kergelen uhartetaratan gan dira berriki ikerketa zonbait egiterat. Hauen artean, badira Senpereko INRA hidrologia zentroko kideak. Hango arrainak, aintzirak eta itsas bazterrak ikertu nahi dituzte. Ez zaite erraten ahal bakanztetarat gan direla uharte hortan biziki hotz eginen baitu beti. Tenperatura beroenak bortz gradutan kokatzen dira eta hotzenak zeroz azpitik bortz gradutan. Apirila arte, lan ainitz egingen dute, hauen artean, hiru asteko espedizio bat itsasontzi batean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Senpertar lotsagabea Euskal Telebistan

Jokin Etcheverria senpertarra ETBn ikus daiteke berriz ere BURP saio bitxiarekin. Bigarren denboraldia hasi dute berriki eta aurrean ere ahalge gutirekin ariko dira dantzan, kantuz eta berdin pilotan. Saio zinez berritzailea ETB3n eskaintzen dute lehenik, eta gero eitb.com eta youtube atarietan ere ikus daiteke.

MONTXO OSTATUA

Dantxarinetatik 2 km-tara

TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA - YRDAZVBI
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

Carlos Garaikoetxea
Etxenike
abokatua

Tfnoa: 948 581 468
Mug: 630 354 818

Santiago, 59 2C
ELIZONDO

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostata
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

EHIZA → USO GUTTI

Aurtengo sasoin osoan iazko urriaren 18an baino uso guttiago pasatu da

Denboraldi osoan iaz baino 565.000 uso guttiago

Xan HARRIAGUE

Uso sasoin txarra izan da aurtengoa. Urriaren 15etik hazilaren 11ra 177.554 uso zenbatu dituzte Lizarrietan, joan den urtean 742.331 izan zirelarik. 2008ko urriaren 18an bakarrik aurtengo sasoin guzian baino uso

DATUA

177.554

USO

zenbatu dituzte aurturriaren 16etik hazilaren 11ra. Joan den urtean, berriz, 742.331.

gehiago pasatu ziren, 279.348, alegia.

Berezia ere izan da aurtengo pasa. Usoa usaian baino beranduago abiatu da. Iaz lehen pasa urriaren hastapean izan zen, aurturriaren 26a arte goaitatu behar izan da lehen uso pasa ikusteko. Lizarrietan 84.000 kontatu zituzten orduan. Bigarren uso pasa adierazgarria hazilaren 9an izan zen, 34.440. Gaineratiko egunetan 10.000 baino guttiago kontatu dituzte eta gehienetan batere ez. Kontaketak iraun duen 27 egunetatik 14tan kontatzaileak zerotan gelditu dira.

Kontaketa finitu eta gero pasa polita izan da hazilaren 13 eta 14an batez ere, baina zenbatekoa izan den ezin jakin.



ARGAZKIA: JOANES GARTZIA

Egunkariaren aldeko elkarretaratzea

Aitzinekoan aipatu bezala, Seaskako Integrazio Batzordearen aldeko futbol txapelketan, Egunkariaren itxiera salatu eta auzipetuei elkartasuna adierazi zieten parte-hartzaileek.

Dirudienek asko dira Europako hegoalde-ara pasatu ez diren usotak. Joan den urtean, Urruñan harrapatu, eta haien segitzeko sistema ezarri eta gero, askatu zituzten sei usotatik lau Europako erdialdean jarraitzen zuten hazilaren 18an. Frantziako uso kontaketen zentroak, berriz, hazilaren 19an ezarri du sasoin guziko uso mugimendurik handiena.

Telethona

Urtero bezala, abenduko lehen asteburuan urritasunak dituztenen aldeko Telethon ekimena egiten da. Gure he-

rrian ere ekitaldi franko antolatu dituzte eritasun horien kontrako ikerketa diruz laguntzeko. Usaiako jokoak eta Larrunera upatzeaz gain hainbat ikastaro ere antolatu dituzte.

Ostiralean, abendurak 4, hiru eskoletako haurrak xiba jokoetan lehiatuko dira eta nahi dutenek haur bat babes-ten ahalko dute, alegia, sosa eman hurrek parte har dezaten. Hainbat jokotan lehiatuko dira, arto biltzean, zaku lasterketan, esne ontzi- en lasterketan, sokati- ran, birletan, boneta bo- tatzean eta tokan, ber- tzeak bertze.

Larunbateko ekital- di nagusia Larrunera tre- nez upatzea eta oinez jaustea izanen da. Aur- ten 14:30ean abiatuko dira San Inazio lepotik. Trenez upatu ahal iza- teko 10 euro ordaindu beharko dira. Gainera, arratsalde osoan pan- dereta jotzen eta fan- dangoa ikasteko ikas- taroak eskainiko dira Lur Berri gelan eta Denean Etxea geletan, hurrenez hurren. Izen-ematea borts eurokoa izanen da. Ekitaldi guztiak fini- tu orduko talo-jatea iza- nen da Lur Berrin, eta gehiago luzatu nahi du- tenentzat zintzur bus- titzea beranduago.





PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masalak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

EZKONTZAK

Oroitz Zurutuza Ibarguen eta **Mirian Makazaga Arratibel**, Errenteriakoa eta Goizuetakoa, urriaren 24an Goizuetan. **Alejandro Salaberria Apezetxea** eta **Leire Alsua Eskudero**, Goizuetakoak, azaroaren 14an Goizuetan.

Josu Apeztegia Erasun eta **Miren Arantza Santesteban Santesteban**, Aurtizkoa eta Errenteriakoa, azaroaren 6an Iturenen.

Daniel Bertiz Bertiz eta **Aitziber Juaneña Andiarena**, Sunbillakoa eta Sal-diaskoa, azaroaren 14an Sunbillan.

Xabier Inda Lizasoain eta **Haizea Luzuriaga Badiola**, Donamariakoak, azaroaren 7an Donamarian.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Oihane Laurnagarai Ros, Elizondokoa, irailaren 30ean.

Axular Aleman Irisarri, Elizondokoa, urriaren 20an.

Aimar Lizasoain Apeztegia, Oronoz-Mugairikoa, urriaren 28an.

Aroa Mendia Otermin, Berrobikoa, azaroaren 11n.

Amaia Martinez Aginaga, Doneztebekoa, azaroaren 2an.

Maddi Goizueta Urdanitz, Leitzakoa, azaroaren 1ean.

Amaiur Amenabar Igartua, Leitzakoa, azaroaren 4an.

Olaia Etxarte Etxeberria, Igantziakoa, urriaren 28an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Ceferino Perurena Perurena, Goizuetakoa, azaroaren 2an, 87 urte.

Josefina Sanzberro Istilar, Erratzukoa, azaroaren 6an, 86 urte.

Prudencia Mutuberria Martikorena, Eratsungoa, azaroaren 7an, 88 urte.

Elisa Indaburu Sanzberro, Etxalarakoa, azaroaren 8an, 83 urte.

Iban Etxaleku Lasett, Almandozkoa, azaroaren 9an, 80 urte.

Juliana Legorburu Igartua, Elizondon, azaroaren 14an.

Ursula Azpirotz Lazkano, Leitzakoa, azaroaren 9an, 101 urte.

Jose Artieda Telletxea, Berakoa, azaroaren 10ean, 91 urte.

Ignacio Ballarena Etxeberria, Elizondokoa, azaroaren 10ean, 83 urte.

Anastasio Olazabal Amunarriz, Aresoakoa, azaroaren 18an, 88 urte.

Tomas Arretxea Mendiburu, Azpilkuetakoa, azaroaren 12an, 52 urte.

Maria Irtzoki Nesprias, Berakoa, azaroaren 18an, 91 urte.

Pedro Monaco Otxandorena, Zubietakoa, azaroaren 14an, 81 urte.

Benita Goienetxe Iturbide, Zugarramurdikoa, azaroaren 19an, 90 urte.



Victoria HITA ARCE 'Bittori'

Alejandro Jaunikotena Torresen alarguna

V. URTEURRENA
Cancunen (Mexiko) hil zen, 2004ko azaroaren 27an

*Ez agurrik, ez adiorik
gero arte baizik.
Gure bihotzetan betiko
maite zaitugu amaxi.
Gogoan zaitugu.*

ZURE FAMILIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

**TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA**

**LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK**

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

MAILA NAGUSIKO TXAPELKETA → NAZABAL NAGUSI

Larretxea azpitxapeldun Nafarroako Txapelketan

Nazabalek bi
minutuko aldea
atera zion
arantzarrari

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Mindegiaren kontra-ko desafioaren ondorioak nabaritu zituen Donato Larretxeak azaroaren 13an Donezteben jokatu zen Nafarroako Aizkolaria Txapelketan. Floren Nazabal zen faborittoa, baina Larretxeak ez zuen gehiegi es-

tutu. Frontoia bete-be-tea zela jantzi zuen txapela Etxarri-Aranazkoak bosgarren aldiz. 27 minutu eta 34 segundo behar izan zituen lau kanardiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko edo 72 ontzako mozteko. Bi minutu eta 4 segunduko aldea atera zion Larretxeari (29:38) eta hiru minutukoa hirugarren izan zen Juanjo Lopez Azpilikueta (30:35). Laugarren Antonio Senosiain izan zen eta Mindegiak ez zuen parte



ARGAZKIA: LEGARRA

Donato Larretxea eta Floren Nazabal, Nafarroako azpitxapelduna eta txapelduna, hurrenez hurren.

hartu, Tolosako apostutik oraindik errekupe-ratu gabe baitzegoen. Beraz, joan den urteko podiuma errepikatu zen Nafarroako txapelketa nagusian. Azkeneko hiru txapelak segidan irabazi ditu Nazabalek eta

aitzinetik, 2001 eta 2002koak ere bai.

Donato Larretxea kontent zegoen egindako lanarekin, «baina Nazabali irabazteko aukera izateko %100ean egon beharko nuke», aipatu zuen.

SOKATIRA → NAFARROAKO ZORTZIKO TXAPELKETA

Goma Gaineko txapelketako azken saioa larunbatean Elizondon

Amaiur
gizonetan eta
Amaiur eta Beti
Gazte nesketan

TTIPI-TTAPA | ELIZONDO

Nafarroako Goma Gaineko Zortziko Sokatira Txapelketako hirugarren eta azken jardunaldia jokatu da larunbat honetan, azaroak 28, Elizondon. Azaroaren 14an Arbizun jokatu-ko lehen saioaren ond-otik, bigarrena azaroaren 21ean egin zen Lesakan. Eta Elizondokoa erabakiorra izanen da. 17:00-

etan hasiko da, kirolde-gian.

Emakumezko eta gizonetzkoetan ari dira le-hian, 640 eta 600 kiloko kategorietan gizonetzko-ak eta 500 kiloko mailan neskak.

Gizonetan, 640koen mailan, hiru taldek eman dute izena, joan den urtean baino bat gehiagok: Amaiur, Berriozar eta Txantrea. 600 kiloko en mailan, aldiz, Amaiureta Berriozar baino ez dira ari. Beraz, bietako baten-tzat izanen da txapela.

Emakumezkoetan za-balagoa da parte-hart-zea, baina iaz baino tiki-ia-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Beti Gazteko neskak joan den urteko txapelketan.

goa. Lau taldek eman dute izena: Lesakako Be-

ti Gazte, Amaiur, Saka-na eta Berriozar. Joan

den urtean Beti Gaztek bi talde aurkeztu zituen.

LASTERKETA

Eskualdeko
168 lasterkari
Behobia-
Donostian

TTIPI-TTAPA

Eguraldi txarrak ez zituen kikildu, eta azaroaren 8an Behobia-Donostia lasterketa-ren 45. edizioan izena emana zuten 18.444 kirolarietatik 14.944 korrikalari 20 kilome-tro inguruko bidea egi-tera ausartu ziren. Hel-mugaratu zirenen ar-tean, 168 eskualdeko-ak izan ziren. Herriz-herri hona parte-har-tzeak: Arantza 10, Be-ra 32, Bertizarana 4 (3 Narbartetik eta 1 Le-gasatik), Doneztebe 11, Elgorriaga 1, Etxa-lar 3, Goizueta 4, Igan-tzi 8, Leitza 18, Lesa-ka 29, Sunbilla 7, Sa-ra 1, Senpere 12 eta Baztan 28 (Aniztik 3, Oronoz-Mugairitik 1, Arraioztik 2, Lekaroztik 1, Iruritatik 2, Gartza-indik 1, Elizondotik 12, Arizkundik 5 eta Erra-tzutik 1).

Irati Otxoteko Arlegi txirrindulari lesakarrak 15 urte ditu (1994ko apirilaren 26an jaioa) eta errepidean, Nafarroako txapeldun izan da aurten kadete mailan. Halere, bere

ezaugarriak kontuan hartuz, pistan eta abiaduran hobeki moldatzen dela onartzen du. Euskadiko txapelketan, pistan, bigarren izan zen eta horrek edo Espainiako errepi-

deko txapelketan lortutako hemeretzigarren postuak Nafarroako txapelak baino meritu handiagoa duela uste du, «konpetibitate gehiago zegoelako».

Irati OTXOTeko ARLEGI | Lesakako txirrindularia

«Pistako abiadura probetan hobeki moldatzen naiz mendian goiti baino»

A. AROTZENA | LESAKA

Bederatzi urtetan hasi zen Irati Otxoteko bizikletan talde batean, La-kuntzako Intersport Aralar taldean, aitarien txirrindularitzarako afizioak kutsatuta. «Kirola gustatzen zitzaidan, pilotan, futbolean, bizikletan, denean aritzen nintzen. Aitak bizikleta talde batean izen-ematera animatu ninduen baina lehenbiziko urtea gogorra egin zitzaidan, ez nituen taldekideak ezagutzen eta uzteko gogoia ere izan nuen tarteka, baina urtea bukatuta segitzeko txirrinta hori sartu zitzaidan». Orduan printzipiante taldean hasi zen konpetitzen, eta mailaz maila, kadetetara ailegatu da. «Hasieran kasik astero kopa batekin bueltatzen nintzen etxera». Orain Iruñeko Berri-txaco taldean ari da, «Nafarroako nesken talde bakarrean». Denetara 20 neska biltzen dira taldean. Aurten emaitza onak bildu ditu. Errepidean, maiatzaren 24an Betelun egindako proban Nafarroako txapeldun izateaz gain, Euskadiko pista txapelketan bigarren izan da eta Valladoliden, bi aste-buruz egindako txapelketetan, batean lehenbiziko izan zen.

Errepideko probetan, mendian goiti ibiltzea baino nahiago du esprinta. «Pisu nahiko badut



UTZITAKO ARGAZKIA

Irati Otxoteko lesakarra astero joaten da Tafallako belodromora entrenatzera.

eta abiadura errazagoa hartzen dut. Mendian segidan uzten naute gibelan», adierazi digu Iratik.

Pista edo errepidea, zer nahiago duen galdetuta ez du garbi, «baina pista hobeki egokitzen zait, hala erran zidan Hector Roldan selekzionatzaileak» dio. Pistan deskantsatzeko errepidean baino aukera guttiago izaten da, «beti pedalei eragin behar diezulako eta abudoago nekutzen zara, neke ezberdina da. Pista esplosiboagoa da, manillarra beheitiago dago, postu-

ERREPIDE ARRISKUTSUA
«N-121A errepidean obretan ari zirenean hagitz arriskutsua zen eta ez zidaten bakarrik ateratzea uzten. Zenbat buelta eman ote ditut Agiñara edo Igantzi-Arantza aldera! Fondoa lantzeko, berriz, Lesakan bueltak ibiltzen eta azkenean asper-asper egina bukatzen nuen. Jendeak ere erranen zuen 'Zenbat buelta eman behar ditu neska honek?'»

ra aerodinamikoagoa duzu eta bizikletak ere arinagoak dira, ez dute lako kanbiorik».

PISTA EZEZAGUNA

Donostiako Sei Orduek Anoetako belodromoa betetzen badute ere, pistako txirrindularitza kasik ezezaguna da guretzat. «Ingalaterran pistako txirrindulariak famatuak dira —dio Iratik— eta babes handia hartzen dute, baina hemen pista, ziklo-krossa eta mendi bizikletak ez dute batere laguntzarik». Berak pistan entrenatze-

ko astero-astero joan behar izaten du Tafallara entrenatzera eta bada-ki gurasoen laguntzarik gabe ezinezkoa izanen lukeela kirol honetan segitzea. Errepidean entrenatzeko, berriz, inguru honetako karreterak erabili behar izaten ditu: «Obretan zegoenean, hagitz arriskutsua zen eta ez zidaten uzten bakarrik ateratzen. Zenbat buelta eman ote ditut Agiñara edo Igantzi-Arantza aldera! Fondoa edo esprinta lantzeko, berriz, Lesakan bueltak, azkenean asper-asper egina». Behin lanak bukatuta ere haserre gelditu da Irati, «karretera zaharreko zati batzuk bakarrik utzi dituztelako, Doneztebera joan nahi badut, nahitaez errepide nagusira sartu behar dut. Fondoa lantzeko kotxea hartu eta bertze norabaitera joan behar dugu».

Pistan hainbat modalitate izaten dira eta lesakarra abiadurako probetan nabarmentzen da. Espainiako txapelketan, 500 metrotan seigarren gelditu zen eta 200 metrotan bosgarren. Bizikleta dela medio, Espainian barna ibiltzeko aukera izan du Iratik, «hemen hagitz proba gutti izaten direlako». Etorkizunean, bizikletan segitzeko gogoz dago eta ikasketak ere, kirol arlora bideratu nahi lituzke.

AIZKORA → APUSTUA

Betaranoetan gazteena nagusi

Lau minutu eta erdiko alde atera dio Larretxeak Mindegia

TTIPI-TTAPA | TOLOSA

Bi eta batekoa Donato Larretxearen alde. 60 urteko Ezkurako semeak eta 49 urteko Arantzako semeak elkarren kontra egin duten hirugarren lehia Larretxeak irabazi du. Eguraldi gogorri aitzin egin, eta eurentzat azken apustua izan dena jokatu zuten Miel Mindegia eta Donato Larretxeak azaroaren 8an Tolosako zezenplazan, 1.500 lagunetik goitiren aitzinean, eta lau minutu eta erdiko alde atera, Larretxeak es-

kuratu zituen 24.000 euroak.

Alde bakoitzak 12.000 euro paratuak zituen jokoa, eta 60 ontzako 20 enbor ebaki behar izan zituzten. Eta egur gogorak, gainera. Horrela aitzineratu baitzuen Ezkurakoak desafioa jokatu baino egun batzuk lehenago. Desafioan hitzartu bezala, berak eraman zituen egur guztiak, baina zozketa egiterakoan, Larretxearek egokitu zitzaion zein alde nahi zuen aukeratzea. Lanak 100 minuturen bueltan akituko zituztela aitzineratu zuen Mindegia, baina uste baino guttiago behar izan zuten biek.

Hasierako enborretik nagusitu zen arantzarra, eta hamargarren enborrean, bi minutuko tartea



ARGAZKIA: NOTICIAS DE NAVARRA

Apustua akituta, Donato Larretxea, Oihan semea eta Iruntxiberri ondoan dituela.

DENBORAK

	Larretxea	Mindegia
1	2:25	2:50
2	6:10	7:05
3	9:45	10:45
4	13:25	13:55
5	16:56	17:34
6	20:44	21:38
7	24:40	25:14
8	29:34	29:56
9	33:38	33:55
10	37:02	38:56
11	40:58	43:12
12	44:44	48:05
13	48:40	52:42
14	53:06	57:22
15	57:14	1:01:32
16	1:01:22	1:06:24
17	1:05:39	1:11:12
18	1:10:54	1:16:27
19	1:15:45	1:21:26
20	1:21:34	1:25:59

atera zion Ezkurakoari. Eta hortxe erabaki zen apustua, hortik aitzinera garaipena esku artean ikusi baitzuen Donatok.

Baina lan txukuna egin zuten biek ere, eta enbor guztiak mozteko ordu bat, 21 minutu eta 34 segundo behar izan zuten Larretxeak; Mindegia, berriz, ordu bat, 25 minutu eta 59 segundo. Arantzarrak Iruntxiberri eta Oihan semea izan zituzten ondoan, eta Ezkurakoak Lorentxo Apeztexea eta Cipriano Telletxea.

Apustua irabazita, kon-


tent gelditu da Larretxea. Ez horrenbertze, Ezkurakoa, apustua galdu izanaren tristurarekin, noski. Baina 60 urterekin horrelako lana egiteko gai izatea bada pozik egotekoa. Larretxeak, berriz, berezi ki gogoan izanen du azaroaren 8ko apustua, bere hamaikagarrena -hirugarrena Mindegia-ren kontra- eta iragarri duenez, bere azkena. Apustuez oroitzapen ona gordetzeko aitzakiarik behintzat ez du falta, hamaikagarrena ederki borobildu baitu.

DESAFIOA → ERASUNEK AIZPURURI

Ander Erasunek Josu Aizpururi botatako desafioa erantzunaren esperoan

TTIPI-TTAPA | AURTITZ

Apusturako grinak ez du etenik. Mindegia eta Larretxearena pasatu orduko, bertze baterako mugitu baitira aizkolariak. Ander Erasun aurtiztarra izan da azkena. Apusturako deia egin zion azaroaren 8an Josu Aizpururi Errekalderei. Ez nolanahikoa, gainera. 16 kanaerdiko ebaki aizkora eta ondotik 8 kilometro lasterka zezenplazan. Aitzinako apustuen gisara luzatu zuen desafioa Erasunek. Azaroaren 14an Tolosako Kantabriko ostatuan esperoan egonen zela adierazi zion nuarbetarrari, baina honek ez zuen seinalerik eman. Dena den, badiudi ez dela horretan geldituko kon-tua. Erasunen hurbilekoek TTIPI-TTA-



Ander Erasun.

PAri adierazio diotenez, Andres Osa Sakona Euskadi Irratiko kazetariak Aizpururi deitu dio, eta honek Tolosara joateko intentzioa zuela aipatu omen dio. Min hartuta zegoelako ez omen zen joan. Sendatzean aurtiztarak bere berri izanzen duela ere erran omen du. Ikusiko da, beraz.



ESALDIA

«Nire erritmoa jarri dut hasieratik, eta aitzine-tik jarri naiz. Horrek indarra ematen du»

Donato LARRETXEA
Arantzako aizkolaria



ESALDIA

«Pentsatu baino 15 minutu gutxiagotan akitu dut, eta uste dut lan ona egin dudala»

Miel MINDEGIA
Ezkurako aizkolaria

azaroak 27-abenduak 17

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Ospakizunak



URDAZUBI | 2009.11.28

Kantu Zaharren Eguna
Lugarana jatetxean

Seigarren edizioa beteko du Kantu Zaharren Eguna. Sunbillako Ulibeltzan hasi eta Elizondoko Lur aretotik pasatuta, Dantxarinean laketu da.

Ekitaldiak



DONEZTEBE | 2009.12.12

Kultur Arteko Topaketa
Malerreka eta Bertizaran

Abenduaren 4tik 12ra egingen diren topaketan *Emakume etorkina bizilaguna* erakusketa ikusgai izanen da eta abenduaren 12an besta eguna.

Bertsoak



LESAKA | 2009.12.05

Bertso bazkaria Arranon Fredi Paia eta Iker Zubeldiarekin

Josu Goikoetxearen zuzendaritzapean ariko dira Fredi Paia eta Iker Zubeldia, Bortzirietako Bertso Eskolak antolatutako bertso bazkarian.

tzertua eskainiko du Doneztebeko Zenez-rock taldeak Graxiana aterpean 22:30ean.

Bestak

LEGASA

Kattalin Eguna

Azaroaren 28an Santa Katalina eguna ospatuko dute, egun osoko egitarauarekin. Xehetasunak 22. orrialdean.

NARBARTE

San Andresak

Azaroaren 28 eta 29an astebururako egitarau zabala presatatu dute gazteek. Xehetasunak 51. orrialdean.

Antzerkiak

BERA

XI. Kafe Antzerki
Zikloa

Azaroaren 27an, Apurka antzerki taldearen *Han izan ezik, hona naiz* antzezlanak Xuga ostatuan.

ELIZONDO

Umeentzako antzerkia

Azaroaren 26an, Zirikak Zirkus taldearen *Larar Larika* antzezlanak ikusgai Baztango Haur Eskolan, Nafarroako Gobernuaren Arte eta Kultura programaren barrenean.

GOIZUETA

Trikuharri taldea

Azaroaren 27an, Trikuharri antzerki taldea eskolan, Xalto Egunaren barrenean. Kultur Elejira zirkuitua.

LEITZA

Zirika Zirkus

Abenduaren 13an Zirika Zirkus taldearen emanaldia 18:00etan.

ARESO

Pailazoak

Abenduaren 3an, Kiki eta Kokoren ikuskizuna.

na 17:00etan plazan edo eskolan. Kultur Elejira zirkuitua.

Ekitaldiak

ARANTZA

Baztan-Bidasoaldeko
Txistu Eguna

Abenduaren 12an Xehetasunak 15.ean.

LEGASA

Eskualdeko gazteen
IV. Topaketa

Abenduaren 5ean Bortzirietako, Malerreka, Bertizarana, Baztan eta Sarako gazteen

topaketa. Xehetasunak 22. orrian.

LEITZA

Etorkinen besta

Abenduaren 12an Xehetasunak 54.ean.

MALERREKA -
BERTIZARANA**Kultur arteko topaketa**

Abenduaren 4tik 12ra *Emakume etorkina bizilaguna* erakusketa izanen da Doneztebeko Turismo Bulegoan. Bertze ekitaldi ugari eta aben-

duaren 12an besta.

ITUREN

Kultur egunak

Abenduaren 4tik 6ra. Xehetasunak 20.ean.

IGANTZI

Kultur egunak

Abenduaren 4tik 6ra. Xehetasunak 14. orrian.

Kontzertuak

ZUGARRAMURDI

Zenzerock aterpean

Azaroaren 27an kon-

Feriak

GOIZUETA

Azienda Feria

Azaroaren 28an egun handia izanen da. Aziendak plazan eta herri bazkaria frontoian.

SARA

Eguberrietako
merkata

Hazilaren 28an plazan izanen da, 09:30etik aitzinera.

Bertsoak

LESAKA

Bertso bazkaria

Abenduaren 5ean Arrano elkartearen bertso bazkaria Fredi Paia eta Iker Zubeldiarekin. Izen ematea Arranon bertan, 618 963011ean edo bortzibertso@gmail.com helbidean.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango
Mendigoizaleak

Azaroaren 29an Argañetara ateraldia egingen dute.

PROPOSAMENA

LEGASA

Eskualdeko laugarren
gazte topaketa

Dianak, harrera ekitaldia, Palestinako herri borrokaren inguruko hitzaldia, paella txapelketa, bazkaria, kalejira jokoekin, kontzertuak eta berbena antolatuta dituzte abenduaren 5ean, eskualdeko gazteen harremanak hobetzeaz gain, bertako gazteei eskaintza alternatibo bat emateko helburuarekin, *Mugaz apurtu gazteria aintziner*a lelopean.



Abenduaren 6an Xaguxelaira ateraldia eginen dute.

Abenduaren 13an Adartzara ateraldia eginen dute.

BERA

Larun Ttiki mendira

Azaroaren 29an Santa Barbarara (Larretagaina) ateraldia antolatuko du Larun Ttiki mendi taldeak.

Abenduaren 13an Leurtzakoko urtegiara ateraldia antolatuko du Larun Ttiki mendi taldeak, Urrozetik aterata.

Zinema

LEITZA

Emanaldiak

Azaroaren 27 eta 29an *Un cuento de Navidad* filma ikusgai. Ostiralean 22:30ean, igandean 19:30ean.

ARESO

Zinema, euskaraz ere bai zikloa

Abenduaren 8an *Perez Sagutoxa 2* filma ikusgai, 17:00etan eskolan.

ELIZONDO

Emanaldiak

Abenduaren 3an, 4an eta 5ean Ikuspuntua'. Zinema dokumentala jaialdiko film sarituak.

Lehiaketak

BORTZIRIAK

Haur eta gaztetxoekin ipuin lehiaketa

Abenduaren 2a baino lehen aurkeztu behar dira lanak Berako liburutegian edo Kultur Etxean. Xehetasunak 10. orrian.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Ane Pirata (Pirritx, Porrotx eta Marimotots)

MITXEL MURUA

Elkar, 2009

Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek bere lagun handi bati bisita egin zioten behin ospitalean. Ane izena du lagunak eta pirata izan nahi du. Gai-xo dago Ane, baina pozik dago hala ere, pirata izatea erabaki baitu, eta bere desioa konplitu egin baitzaio. Eta nola egiten da bat pirata? Horretarako, maisu on bat behar da, noski. Eta Ane Piratak munduko piratarik ausartena du maisu eta eredu, Patakon. Alaia da Patakon, festazalea, eta inork baino hobeki daki piraten lezio ederrak ematen. Liburuaz gain, azken orrian 'Eskerrik asko' diskarekin kaleratutako liburuxka atxikia dago. Mitxel Murua editorea da lanbidez. Ipuinak idazten ditu. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen laguna, haien abenturatan parte hartzen du. Ane Pirataren barkuko tripulazioan sartzeko eskaria egin zuen, eta kontalaria- ren eginkizuna izendatu zioten; bere egitekoa, piraten abenturak kontatzea. Abordajeetan parte hartzeko eskubidea du. Marrazkiak Julen Tokero- k egin ditu.

Musika



Mahai inguruko kantuak

AUNITZEN ARTEAN

Kantari aunitzek parte hartu du 'Mahai inguruko kantuak' disko honetan, guziak gure ingurukoak: Amaiurko Juan Mari eta Itziar Aleman anai-arrebak, Erratzuko Antonio Inda, Eratsungo Luis Mari Retegi eta Angel eta Patxi Mariezkurrena anaiak, Urrozko Lorea Babaze, Sunbillako Alfredo Arretxea eta Aitziber Etxeberria eta Doneztebeko Alberto Zunzarren abeslariak dira diskan ageri direnak. Jalisko Bandeko taldekide batzuen eta Joxe Angel akordeoilariaren laguntzaz diska gustagarria plazaratu dute. Izenburuak dioen bezala, garai batean hain ohikoa zena, mahai inguruan kantatzeko eginak. Hamabi abesti, kantu herrikoiak gehienak, ezagunak: Zazpiak ohial batetik, Prima eijerra, Xarmangarria zira, Pottoka, Iduzki denean, Eperrak, Joseba Elozegi, Arrantzaleak, Pilota euskal jokoa, Aitorren hizkuntz zaharra, Muñagorri eta Xalbadorren heriotzean. Goxoan aditzeko eta, zergatik ez, kantatzeko diskoa.

Internet



BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOA

CONSORCIOBERTIZ.ORG

Bertizko Partzuergo Turistikoaren webgunean inguru honetako informazioa topatzen ahal du- te bisitariek. Hasieran, partzuergoak hartzen duen eskualdearen kokapen orokorra ageri da, baina zehatzago ere egin daiteke, Urdazubi-Zugarramurdi, Baztan Bailara, Bertizarana, Malerreka edo Bortzi- riak klikatuz. Bisita birtualak, Bidasoako Bide Ber- dearen inguruko informazioa, gure artitsautza eta produktuak, Aizkolegi taldea, eskaintzak eta ber- tze hainbat aukera eskaitzen ditu sarrerako orriak eta inkesta ere betetzen ahal da. Baliabideak ata- lean ere herriak egiten ahal da bilaketa edo bisita- riari interesatzen zaion arloaren arabera (interese- guenak, jatetxeak, ibilbideak, museoak...). Alojamen- dua atalean ere gauza bera, herriak edo bilatzen den alojamentu motaren arabera (albergeak, lan- da-etxeak, kanpinak, hotelak...). Agendan ekital- dien berri ematen da.

Nire aukera



Xabi ZUGARRAMURDI
Arantzako mendizalea

Kanpoan eta garaian garaiko gauzetan aritzea gustatzen zait

Arantzako aterpea kudeatzen duen neurrian, asteburuetan eta uda partean nekez izaten du denbora libre- rik Xabi Zugarramurdi- k. Urtean zehar, ber- riz, «garaian garaikoa» egi- tea gustatzen zaio: «udazkenean ehizira eta onddotara joan, negu- an eskiatzera, udaberri- an mendia eta azken al- dian mendiko bizikletan ibiltzea gustatzen zait. Udarako lana gelditzen zait, nahiz eta hondar- tzara bueltaxka bat egi- tea gustatu». Barnean ere tarteka izaten du ira- kurtzeko aukerarik, «ez naiz irakurle fin-fina bai- na zerbait irakurtzen dut eta Interneten ere egu- neko gauzak irakurtzen ditut». Oporrak hartze- rakoan, lehen kanpora eta orain hurbilago ibil- tzen dela aipatu digu Xabik, «nahiz eta tarte- ka hegazkina hartu eta nonbaitera joaten saia- tzen garen». Eta aste- burua libre izanen balu zer? «Inguruan ibili, Eus- kal Herria ezagutu, xo- ko aunitz badira ezagu- tzen ez ditugunak. Eta horietan jatea gustatzen zait, gastronomia ere ezagutu behar da!».

ETXEBIZITZAK
salgai

BERA. 70 m² erabilgarri dituen pisua salgai. Teila-tua, fatxada eta barrene-tik irailean berritua. 3 logela, egongela, sukaldea eta trastelekua. 211.000 euro. ☎600 264852.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

LEITZA. Amazabal kalean lehenbiziko pisua salgai. Mobleztatua, egoera onean eta igogailuarekin. ☎649 208310 (Deitu gaez).

DONEZTEBE. Zazpigerutze plazan 115 m²ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela eta trastelekua. Eguzkitsua eta estreina-tu gabea. ☎630 948271.

ETXALAR. Lizaletako parajearen zaharberritze-ko baserria eta borda salgai, lur eremuarekin. ☎661 121540.

IRUÑEA. Unibertsitate publikoaren ondoan pisua salgai. Inbertsio bat egiteko interesgarria. ☎669 082682.

LESAKA. Bi bizitzako etxebizitza salgai. ☎609 477277.

BERA. Eztegarra pasealekuan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta bainugela. Trastelekua, berogailua eta igogailua. ☎635 706629.

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58**

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK
erosi

LESAKA. Etxe bat edo baserri bat erosi nahi da. ☎609 477277.

ETXEBIZITZAK
errentan eman

DONEZTEBE. Pisua errentan emateko. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎628 045374.

LESAKA. Bittiria karrikan, pisua errentan emateko, Aliproxen gainean, 3. solairuan. Dena mobleztatua eta gela guztiak kanpoaldera. 4 logela. ☎686 378154.

NARBARTE. 90 m²ko pisua errentan emateko. 3 logela, sukalde handia, komuna, egongela eta garajea. ☎667 995233.

ETXEBIZITZAK
errentan hartu

BERA. Pisua errentan

hartu nahi da. ☎620 036655.

DONEZTEBE. Pisua errentan hartu nahi da. ☎620 284895.

GARAJEAK / LOKALAK
errentan eman

LESAKA. Albistur karrikan lurrazpiko garajea errentan emateko. ☎618 962937.

IRUN. San Migel karrikan, Urantzu azokaren ondoan, garajea errentan emateko. ☎619 147069.

LURRAK / LOKALAK
salgai

ITUREN. 1.200 m²ko lur eremua salgai. ☎660 368497.

LANA

eskariak

Emakume bat **sukalda-**

ri lanetan ariko litzateke. Gidatzeko baimenarekin. ☎638 520090.

**LANA**

eskaintzak

BERA. Egun erdiko lana eskaintzen dut, 18:00etatik 22:00etara. ☎648 231368.

LESAKA. Baserri batean zaharrak zaintzeko eta sukaldean lan egiteko emakume bat behar da. ☎948 637968/659 843528.

MOTORRA

salerosketak

Peugeot 206, 1.6-16V gasolina salgai. 115 zaldi, extra guziekin. 4 gorpilak berriak, klimatizagailua, llantak, musika ekipo ona, beira beltzak, suspentsioa bajatu. Dena homologatua. 2 urteratarako ITV pasatua. 60.000 km. Oso egoera onean. ☎666 230820.



Audi TT 1.8 Quattro autoa salgai, 225 CV. 93.500 km. Egoera onean. Prezioa: 14.000 euro. ☎637 781797.



Mercedes Vito Marco Polo furgoneta salgai. 2000koa. 210.000 km. Sukalde montatua, frigorifikoa, 4 pertsonak lo egitekoa, berogailua eta dutxa. ☎607 890923.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(azaroaren 6tik 13ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 38,00 € (=)

Zerri gizena
0,955 € kilo. (=)

Zerramak:
0,390€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,89 (=)

1.koa 3,59 (=)

2.koa 2,99 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 3,99 (=)

1.koa 3,69 (=)

2.koa 2,95 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

uruxak 130,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:

uruxak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,82/2,92

Zaldi-behorrak: 1,52/1,73

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 7,70/8,50

8-10 kilokoak: 6,20/6,20



texartu

JANTZI HERRIKOIAK - BRODATUAK

San Frantzisko kalea, 8 eta 10
Inuita (Ald. Zaharra)
T/r.: 948 226495
texartu@texartu.com • www.texartu.com

Citroen Saxo 1.1i autoa salgai, NA-AS matrikuladuna. 5 plazakoa eta ITV azaroan pasatua. 89.000 km. Prezioa: 1.200 euro. ☎618 409100.

Renault Megane familiarra salgai, oso egoe-
ra onean, AA, CC, EE, ar-
gi automatikoak, gris ko-
lorekua eta 2005ekoa. 50.000 km. Prezio nego-

ziagarria. ☎948 451832/
687 544646.

MOTORRA
tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

ANIMALIAK
oparitzeko

LEITZA. Espaniel zakur baten kumeak oparitzeko. ☎659 576969.

Arratoi zakurkumeak oparitzeko. ☎628 446394.

ANIMALIAK
salerosketak

Setter arrazako **zakur-
kume** emea salgai. 4 hi-
labete txertatua. Aita eta



Talleres SANTESTEBAN

DONEZTEBE • Leitzako errep. 80 • T 948 450282

%25 Urte bukaera arte
%25 ko deskontua
zure gurpilak
aldatzean
%25

ama ehiztari onak. ☎661 821645.

ARANTZA. 28 ardi eta 2 ahari salgai. ☎948 634077.

Ardi latxak salgai. ☎699 860323 (Ultzama)

OITZ. 40 ardi mutur-go-
rri salgai. Aitzinerako.
☎948 450160.

DENETARIK
salerosketak

Sukaldea salgai, egoe-
ra eta prezio onean. ☎630 510918.




ttiipi-ttapa

ttiipi-ttaparen
motxila eskuratzeko
deitu
948 63 54 58 telefonora

Eska ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektua aukeratu izanaren frogagarria Nafarroako Kutzaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

**geure bezeroek
aukeratutako
proiektua** **can**

**DAGOENKO
847
LAGUNEK**
egin dute
gure alde

*eskerrik
asko!*

urtebetetzeak

Argazki soilak: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



MARIA ETXABE OLHAGARAYK 7 urte bete ditu azaroaren 14an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



JANIRE TELLETXEA IRATZOKI etxalartarak 6 urte eginen ditu abenduaren 14an. Zorionak eta 6 muxu haundi familia guztiaren partetik.



OIER gure mutiko koxkorak 2 urte beteko ditu abenduaren 7an. Aunitz urtez eta bi muxu haundi Arantzako lagun guztien partetik.



AINARA azaroaren 13an 4 urte bete ditu. Aunitz urtez familiaren partetik.



Zorionak DIEGO BIURRERENA ORTIZ, bere zortzigarren urtebetetzean. Egun ona pasa eta segi horren bizkor eta alai. Muxu bat familiaren partetik.



Gartzaingo AITOR ESKUDERO azaroaren 21ean urtea bete du. Zorionak Gartzaingo eta Urdazubiko familiaren partetik, eta muxu bat Julen eta Aneren partetik.



AIMAR ZAMORA-NO DUARTE lesakarrak 9 urte beteko ditu azaroaren 29an. Zorionak eta 9 muxu familia guztiaren partetik.



Etxalarko **XABIER ARIZTEGI** ELIZAGOIENEN azaroaren 26an urteak beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik, baina bereziki Ekiñe ilobaren partetik.



Sunbillako **MIKEL BERTIZ IBARRAK** azaroaren 26an urteak beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta muxu haundi-haundi bat Ekiñeren partetik!!! Padrazo!!!




LUIA FAGOAGA BABAZE zubietarak 5 urte beteko ditu abenduaren 14an. Muxu haundi bat Marilutxi! Aurtizko familia guztiaren partetik berendu goxoa prestatu!



LUIA FAGOAGA BABAZE zubietarak 5 urte beteko ditu abenduaren 14an. 5 muxu haundi, atta, ama, Egoi eta familia guztiaren partetik.



MIKEL ETA AINHOA 8 urte azaroaren 20an eta 4 urte azaroaren 14an bete dituzte. Zorionak aitabxo eta amabxoren partetik.



ANDY GARCIA SANCHEZ 11 urte bete ditu azaroaren 16an. Zorionak eta muxu haundi bat Etxeni eta Gorkaren partetik.



11 urte bete ditu azaroaren 16an. Zorionak **ANDY!!!**



OIER ERKIZIA abenduaren 7an 2 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta muxu haundi bat gure pilotari ttikiari.



Igantziko **PATXI LOIARTE** PETRIKORENAK azaroaren 27an 7 urte beteko ditu. Zorionak etxekoan partetik. Ama, aita, amaxi, osaba-izeba eta arreba.



OIHAN ITURRIA aranztarak 3 urte bete ditu azaroaren 22an. Aunitz urtez eta hiru muxu haundi familiaren eta bereziki Aioraren partetik.




Muxu haundi bat beltzaxarara! Zu ere xaharitzen hasia zara! Zure postre goxo-goxo horren zain geratuko gara. Zure lagunak.



Zorionak ARKAITZ!! Bazen ordua gu bezala 27 urte egiteko. Afari goxoaren zain egon gara. Zure lagunak.



Ei!!! Neska guapa honek abenduaren 16an 27 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat laguneren partetik.



BENAT ETXABIDE OLAZABAL lesakarrak azaroaren 23an 4 urte bete ditu. Zorionak Beheko Errotako attona, amaxi, izeba, osaba eta bereziki Amaiur eta Ainitzeren partetik, zu zara etxe honetako pirata maitagarria!



SAIGOTS IGLESIAS ibartarrak 2 urte bete ditu azaroaren 17an. Txokolatezko muxuak Lesakako atxatzi Yimiren partetik.



Zubietako **MARITXUK** azaroaren 29an 11 urte beteko dituela eta... Zorionak eta ongi pasa! 11 muxu. Inaki eta Ines.



UXURI eta **XUBAN ETXEGIA** ETXEBESTERI aunitz urtez! **XUBAN** azaroaren 30ean jaio zen eta **UXURI**, berriz, abenduaren 1ean. Ongi pasa merendolan! Egin besta ederra!

Bidali **ttipi-ttapa** heritik kanpo bizi diren lagun edo familakoei

(0034)948 63 54 58

ttipi txartela baldin baduzu deitu **ZOZKETAN** parte hartzeko

SEGURU SARIREN BAT IRABAZIKO DUZULA

ttipi txartela rekin beti irabazten da

DESKONTUAK · ZOZKETAK · ALDIZKARIA MUSUTRUK



ttipi txartela egiteko edo zozketetan
parte hartzeko deitu **948 63 54 58ra**.
Astelehenetik ostiralera 09:00 - 18:00.

ZOZKETAK



LIBURUAK

Ibaizabal Argitaletxea
www.ibaizabal.com



MARTIKO PRODUKTUAK

Martiko
www.martiko.com



LOTEA

Kalotxa opariak-osagarriak



LIBURUA + DVD + PINak

Pierix, Porrotx eta Marinotots
www.katigorreta.com



KAMISETA 1

Onddo ta punto
www.onddobipunto.com



JANTZIA

Txapela buruan
www.txapelaburuan.com

SARIDUNAK

ttipi txartela

- LIBURUAK (Ibaizabalak)
Amalia Odrizola (Bera)
- KAMISETA + CDa (Bide Ertzean)
Xabier Balarrena (Erratzu)
- LOTEA (Kalotxa)
Lourdes Indakortxe (Sunbilla)
- ALIXORRAK & LAPURRAK (Ikastolen Elkarteak)
Ainhoa Arzoena (Bera)
- KAMISETAK (Oninart)
Aurora Artieda (Bera)
- KAMISETA (Txapela Buruan)
Miren Joseune Iturzaeta (Arizkun)
- M^a Jose Zaldúa (Eibete)
- ttipi saskia
- LIBURUA (Mendukiloko leizeak)
Gloria Arretxe (Sunbilla)
- 5 SARRERA bikoitz (Mendukiloko leizeak)
Estrella Bidegain (Arizkun)
- Josune Jaurena
Izaskun Otxandorena
Itziar Azpiroz
- Rakek Deskarga (Lusaka)
- 2 SARRERA (Camelot Park)
Izaskun Añzu (Iturriz)

DESKONTUAK

FANTXIKE

%10, 30etik gorako gastuan

GOIKO

%10 kopia digitaletan

Intzuri

%10eko deskontua

IPARLA
kirolak

%8, 30etik gorako gastuan

IPINGI

%10, 30etik gorako gastuan

ttipi saskia

Bidali SMSa **5767**ra TTIPi SASKIA eta zure IZEN-DEITURA idatziz

JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE



Zozketen parte hartzeko epasa: abenduaren 31a baino lehen, irabazlearen izenak abenduaren 17ko aldirian argitaratuko dira.
Mazarren kostea 1,20€ (BIZ gabe). Zure datuak ttipi-ttapan fotografin gordetako dira aurrerantzean
zaren diren egunkari berrak erabaki. Zuzenketa edo deusartapeneren baliagotzeko deitu 948 63 54 58ra.

CANTECADEMACAÑO

ABENDUAK
5
LARUNBATA

00:30 14€ Aurretik 16€ Takilan

Salmenta puntuak: Elizondo: Antxitonea, Txokoto | Lesaka: Atxaspi | Iruña: El Infiernito

KRISI-KONTRAKOGAUA

ABENDUAK
7
ASTELEHENA

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1

02:00etatik aintzina 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

COUNTRYBESTA

ABENDUAK
12
LARUNBATA

ZEZENMEKANIKOAREKIN

01:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

JOXEINAETXEERRIA

ABENDUAK
19
LARUNBATA

01:00 9€

EGUBERRIEGUNA

ABENDUAK
25
OSTIRALA

01:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

KRISI-KONTRAKOGAUA

ABENDUAK
26
LARUNBATA

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1

02:00etatik aintzina 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

URTEZAHARGAUA

ABENDUAK
31
OSTEGUNA

02:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 04:00ak arte Irekia 08:30ak arte

